2018-01-19 EGUBAKOITZA / 757. ZENBAKIA / 18. URTEA
DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM

goiena" Zu hemen zaude.




+ Mikel Laskurain aktore bergarararri elkarrizketa

2deo, euskarazko ikus-entzunezkoen laborategia



# ERREPIDEAN DA EUSKADI MURIAS TALDEA

Julen Irizar eta Mikel Aristi bergararrak gertu daude Kontinental Profesional mailan lehiatzeko / 38

Julen Irizar eta Mikel Aristi, Euskadi Murias taldeko maillot berdearekin, Angiozarko herrigunean gora. XABIER URZELAI

# Autobus gutxiago eta bidaiari gehiago

Zerbitzua berregokitu arren bidaiari kopurua handitu egin dela dio Gipuzkoako Foru Aldundiak, baina zalantzak sortu ditu baieztapen horrek / 4

## Ur-zozoen kopurua nabarmen hazi da Debagoienean, ibaiaren "ur kalitatea hobea" delako / 7

### SINADURAK


| | |
|---|---|
| ESTEPAN PLAZAOLA / 8 | PEDRO GARITANO / 26 |
| ANE GOROSABEL/ 12 | AINHOA BERNABE / 32 |
| LEIRE ELEJALDE / 17 | ANDER ETXEBERRIA / 48 |






Arantxa Tapia sailburua Eneko Azkarate aurkezlearekin batera *Harira* saioan. GOIENA

# Edesa Industrial eta AHTa hizpide

Goiena telebistako *Harira* saioan izan da Arantxa Tapia sailburua. AHTaren Bergarako lotunearen eta Edesa Industrialen etorkizunaren gainean egin du berba

**Josu Bilbao** DEBAGOIENA
Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburu Arantxa Tapia Goiena telebistan izan zen martitzenean, *Harira* saioan. Bertan, Edesa Industrialen gaur egungo egoeraz, Abiadura Handiko Trenaz eta, bereziki, Bergarako lotuneaz egin zuen berba Tapiak, besteak beste.

**Edesa Industrialen, egoera zaila**

"Une larrienetakoan gaudela esan beharko genuke, lehen *Fagor* marka bera tartean zegoelako eta horrek interesa pizten zuelako irtenbide bat bilatzeko moduko pertsonak eta enpresak erakarriz. Baina marka ez badago, Fagorrek berreskuratzea eskatu duelako, irtenbidea askoz ere konplikatuagoa izango da. Zarata txarra besterik ez dago une honetan", aipatu zuen Tapiak.

"Ulertzen dut Fagorrek hori egin izana. Alde batetik, Edesa Industrial enpresa sortu zenean, marka erabiltzeko hainbat gauza bete behar ziren, eta ez betetzeak egon dira. Beraz, kontratua ez bada betetzen, marka berreskuratu daiteke. Bestalde, Fagor ez da bakarrik Fagor Etxetresnak, beste hainbat enpresa ditu, eta, Fagor beste batzuen ahotan dabilenean, berri txar batengatik, guztiei egiten die kalte", adierazi zuen sailburuak.

Hala ere, proiektu bideragarri bat egonez gero Eusko Jaurlaritza bidelagun izango dutela azpimarratu zuen Tapiak: "Beti egon beharko du bideragarria izan daitekeen proiektu bat. Jaurlaritzak lagundu dezake, baina behin konkurtsoetatik aterata. Europa zorrotza da zentzu horretan, eta oso zorrotz ibili behar dugu. Hala ere, proiektu bat aurkezten bada, lortzen badugu prozesu honetatik ateratzea gutxieneko proiektu bat bideragarria dena, noski, Eusko Jaurlaritza bidelagun izango da irtenbide egoki bat bilatzen".

Prozesuan zerk huts egin ahal izan duen galdetuta, Arantxa Tapiak "gardentasun falta" eta "kudeaketa arazoa" aipatu zituen: "Langileekin eta erakundeekin harremanak ikusita, gardentasun pixka bat falta izan dela uste dut. Benetan ikustea zer gertatzen ari den eta erabakiak une egokietan hartzea ere falta izan da. Kudeaketa arazo bat egon da, beraz".

Langileentzat, bestalde, ez da zilegi marka berreskuratu nahi izateagatik CNAk Fagorri egoztea jardun industrialarekin jarraitu ezina, eta hark Edesa marka Hong Kongeko beste enpresa bati saldu izana. Dena dela, gaia epaitegira eraman eta marka berreskuratuko dutelakoan da Enpresa Batzordea, legez hala dagokiolako. "Badakigu, agian, denondako lanik ez dela egongo, baina plan on batekin eta hazkundea egonez gero lanpostuak areagotu egin daitezke", azaldu du Enpresa Batzordeak.

Langileek, aurretik ere, bestelako laguntza eskatzen diote Jaurlaritzari, eta, gaur, 11:00etan, Arrasateko Kulturaten batzarra eta 12:30ean Seber Altuben elkarretaratzea egingo dituzte.

**PROIEKTU BERRI BAT BIDERAGARRI IZANEZ GERO, FAGORREK BIDELAGUN IZANGO DU JAURLARITZA**

**'EUSKAL Y'-A 2023RAKO BUKATUTA EGON LITEKE, OBREN EPEAK "ZORROTZ" BETEZ GERO**



**Bergarako lotunea, gakoa**

Iragan astean, Espainiako Sustapen Ministerioak AHTaren Bergarako lotuneko hirugarren eta azken sektorea lizitaziora atera zuela ezagutzera eman zuen. Horrela, aurreikuspenen arabera, 2023rako bukatuta egongo litzateke *Euskal Y-a*. Berria "oso pozgarria" izan dela aitortu zuen sailburuak: "Badirudi, behingoz, garrantzitsua dela konturatu direla eta bultzada bat emango diotela Sustapen Ministeriotik. Alde batetik, Iparraldearekin Europara lotuko gara; beste batetik, Iruñetik ardatz mediterraneora lotuko gara, eta Gasteiztik Espainia osora. Berria oso pozgarri da guretako. Obrak doazen bezala, lizitazioak doazen bezala eta epe guztiak errespetatzen badira, posible izango litzateke 2023rako bukatuta edukitzea. Zatirik geldoena Bergarako lotunea da eta dagoeneko lizitatu egin da. Hiriguneak ere lotu behar dira, proiektu horiek oraindik atzeratuta baitaude. Kontuan izan behar dugu elektrifikazioa eta gainetik doan guztia jarri behar dela eta trenak probak egin behar dituela. Horrek urte eta erdi beharko du. Batuketak eginez zenbakiak ateratzen dira, oso zorrotz joanda".

Bergarako lotunea aipatuta, Angiozar Bailarako Batzarrak txosten bat kaleratu du, bertan bizi direnek dituzten arazoen berri emateko. "Bailaran interes orokorreko hainbat azpiegiturak izan duten eragina nabarmena da, eta, bitartean, gure bizi-iraupen eta etorkizunerako beharrezkoak ditugunak burutu ezinean gabiltza. Oraingoan, *Euskal Y-a* deiturikoaren lotunea hemen bertan egokitu zaigu eta lanak laster hasiko dira. *Euskal Y*-aren bailara bihurtuko gara, eta euskal erakundeen inplikazioa nahi dugu, urteak eman baititugu proposamen eraikitzaileak eginez inork aintzakotzat hartu ez gaituelarik", dio Angiozar Bailarako Batzarrak.

Arantxa Tapiak kalteen ordainak adostu daitezkeela azaldu zuen *Harira*-n. "Horrelako azpiegitura bat egiten denean eta kalteak egiten direnean, ordain moduan hobekuntzak sartzen dira. Beraz, herri bakoitzean, zatirik zati, aztertu beharko litzateke egoera. Edozein obra dela eta, kaltetu delako, saiatzen gara hobekuntzaren bat sartzen, eta hori udalekin adostu daiteke. Gero, ez dugu ahaztu behar %1 kulturari ematen zaiola horrelako azpiegituretan. Zertara bideratu daitekeen Adif-ekin eta ministerioarekin aztertu edo adostu daiteke".



Edesa Industrialeko eta Geyserreko langileen elkarretaratzea, Arrasaten. GOIENA

Bestalde, Espainiako Sustapen Ministerioak aurkeztu duen proiektu berrian, *Y*-aren lotura Ezkio-Itsasotik egin beharrean, Gasteiztik egingo litzateke: "Egia da Ezkio-Itsasotik askoz garestiagoa dela Gasteiztik egitea baino. Ingurumen ikuspegitik, bestalde, inpaktu txikiagoa du hortik egiteak Gasteiztik egiteak baino. Gauza asko izan behar dira kontuan, eta, horiek aztertuta, Gasteizko lotura hobeto irteten da. Publiko irten ostean ingurumen inpaktuko deklarazioa egingo da, eta hor adieraziko da benetan zein ikusten den egokiago eta zergatik".

**Arcelor eta bailarako garraioa**

Bergaran Arcelor enpresak duen lantegiari dagokionez, "etorkizuna bermatuta" duela azpimarratu zuen Arantxa Tapiak. "Bergarakoak etorkizun bat edukitzeko Olaberriak izan behar duelako hazkunde bat. Horretarako moldaketa potoloa egin du Arcelor Mittalek, eta une honetan bai Olaberriak eta bai Bergarak bermatuta dute euren etorkizuna, gaurko egoera mantentzen baldin bada. Merkatua, izan ere, kasu hauetan oso konplikatua delako. Bergaran gauzak ondo eginez gero, eta badirudi gauzak hobetzen doazela aurreko urteko zenbakiak kontuan hartuta, inbertsioak egiteko aukera izango dutela dirudi".

Horrez gain, Debagoienerako beste garraio mota baten beharra ere ikusten duela zioen Tapiak: "Nik uste dut bailara honek behar duela. Ez dakit tranbia den edo Gasteizko autobus elektrikoaren proiektuaren moduko bat izan daitekeen. Proiektu bat behar da Debagoienean. Kontuan hartu behar dugu herri asko direla, eta guztien onurarako eta guztien adostasunarekin. Hemen horrelako proiektu batek onura asko izango lituzkeela uste dut".

DEBAGOIENEKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA
"GUZTION ESKOLA, GUZTION ARTEAN"




URTARRILAREN 29TIK OTSAILAREN 9RA

605773 992 goieskola@gmail.com goieskola baikara

HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA, DBH
INFORMAZIO BILERAK eta ATE IREKIAK

| | |
|---|---|
| ARAMAIO, San Martin Eskola<br>ANGIOZAR, Herri Eskola<br>ELGETA, Herri Eskola<br>ANTZUOLA, Herri Eskola | Informazio zuzena eskolan bertan |
| BERGARA<br>San Martin Agirre Eskola | Otsailaren 3an, 11:00etan, Haur Hezkuntzako eraikinean. Ondoren, ate irekiak –zaintza egongo da– |
| Ipintza Institutua | Urtarrilaren 30ean, 18:00etan |
| ESKORIATZA<br>Luis Ezeiza Eskola | Urtarrilaren 26an, 17:30etik aurrera ate irekiak |
| ARETXABALETA<br>Kurtzebarri Eskola | Urtarrilaren 25ean, 18:00etan |
| Kurtzebarri Institutua | Urtarrilaren 30ean, 18:00etan |
| ARRASATE<br>Arrasate Herri Eskola | Urtarrilaren 30ean, 18:00etan, Bedoñaben<br>Urtarrilaren 31n, 18:00etan, Musakolan |
| Arrasate Institutua | Urtarrilaren 30ean, 18:00etan, Arrasaten<br>Urtarrilaren 31n, 18:00etan, Aramaion |
| OÑATI<br>Errekalde Eskola | Urtarrilaren 27an, 17:00etatik aurrera ate irekiak |
| Zuazola - Larraña Institutua | Urtarrilaren 30ean, 18:00etan |
| HHI-EPA ARRASATE<br>HHI-EPA BERGARA | Matrikula zabalik |



Autobusak Arrasateko Garibai geltokian. GOIENA

# Aldundiak dio bidaiari kopurua hazi egin dela

Lurraldebus autobus zerbitzuan egindako moldatzeen ostean egin du azterketa Gipuzkoako Aldundiak. Haren esanetan, 2017ko azken hiruhilekoan, 2016an baino 115.864 bidaiari gehiago izan dira ibarrean. Udalek zalantzan jarri dute datua

**Iker Oñate** DEBAGOIENA

Azken hilabeteotan eztabaida iturri dira Lurraldebus autobus zerbitzuan eginiko moldatzeak; Debagoieneko zenbait ordezkari kexu azaldu dira horiekin; linea murrizteagatik, adibidez. 2017ko azken hiru hilabeteetako erabilera aztertu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Eta astean jakinarazi ditu horretan eskuratutako datuak. Haren esanetan, hilean 38.600 bidaiari gehiago ibili da batez beste Debagoienean –guztira, 115.864–. 2016ko azken hiruhilekoko datuekin alderatuta eman du informazioa.

Datuek "ustekabean" harrapatu dituzte ibarreko zenbait udal ordezkari. "Normalean, beharragatik erabiltzen da autobus zerbitzua. Bada, arraroa da urtebetean autobusa erabiltzeko beharra horrenbeste igotzea", azaldu du Unai Elkorok, Aretxabaletako alkate eta Mankomunitateko presidenteak. "Egia esan, ez nuke esango datuak bat datozenik errealitatearekin. Azterketan erabili dituzten irizpideak jakin gura nituzke, emaitza hobeto ulertzeko", gaineratu du Oñatiko alkate Mikel Biainek. Gaur-gaurkoz, ibarreko udal ordezkariek ez dute datu zehatzik esku artean. "Eskatu ditugu. Baina noiz bidaliko zain gaude oraindik", dio Oñatiko alkateak.

### Berrantolaketak, "mesede"

Gipuzkoako Foru Aldundiak datuen balorazioa eskaini du ohar bidez. Bertan azpimarratu du urrian autobus zerbitzuan eginiko moldatzeen osteko emaitzak direla. "Iazko datuekin alderatuta, %20 hazi da erabiltzaile kopurua. Esangura handikoa da hori, berrantolaketa osteko hilabeteak baitira", azaldu du Aldundiak. Bestetik, adierazi du "eskualdeko ordezkarien eskakizunei erantzunez" egin dutela aldaketa, "alkate eta zinegotzi guztien onarpenarekin".

Horrenbestez, kexu azaldu da EH Bilduren jarrerarekin: "Desinformazio eta ospe-galtze kanpainan dihardu. Datuek erakusten duten moduan, ez dator bat errealitatearekin, eta intentzio politikoaren alarma sortzea besterik ez du bilatzen". EH Bilduk, berriz, "datuen erabilera maltzurra" egin izana egotzi dio Aldundiari. Jakinarazi du "datu zehatzak" esku artean dituenean egingo duela "balorazioa". Horiek noiz jasoko zain daude orain.

### Ibarreko udalak, kexu

Debagoieneko herrietako udal ordezkariak ez daude konforme autobus zerbitzuan egindako aldaketekin. "Aretxabaletan kexu da jendea. Ororen moduan, hobetu daiteke oraindik. Eta horretarako lanean dihardugu", aitortu du Elkorok. Besteak beste, Eskoriatzan ere hainbat "arazo" sortu dituzte aldaketek; eta horiek konpontzeko lanean dihardu Udalak. "Autobus pilaketa sortzen da Akeita parean, eta arazoak izaten dira Santa Anako biribilgunean", esan du Josu Ezkurdiak, Eskoriatzako Mugikortasun eta Hirigintza batzordeburuak.

### Ordezkariekin batzarrak

Oraindik ere itxi barik dute berrantolaketa prozesua. "Hori pentsatu gura dut, behintzat", dio Elkorok. Hala, ibarreko udal ordezkariekin harremanetan dihardu Gipuzkoako Foru Aldundiak: gaia lantzen duen batzordera gonbidatu dituzte, nork bere herriko egoera azaldu dezan. Oñatiko alkatea atzo izan zen bertan; eta hurrengo asteetan batzartuko dira beste herrietako ordezkariak.

"Ez gaude konforme aldaketekin. Eta hori eroan dugu batzordera; ea oraingoan kasurik egiten diguten. Dena den, ez dute konpromisorik hartu", argitu du Biainek. "Moldatzeekin zaildu besterik ez da egin autobusez bidaiatzea. Esaterako, oñatiarrok ezin dugu zuzenean Eskoriatzara edo Bergarara joan; autobus aldaketa egin beharra dugu, ezinbestean", gaineratu du Biainek. Gogorarazi du bidaiari askok joan behar izaten dutela egunero Eskoriatzako unibertsitatera eta Gureakera –Bergara–; besteak beste, Udalak zerbitzu berezia jarri behar izan du azken horiendako.

### Inkestak eta sinadura bilketak

Bergaran ere kezka sortu dute aldaketek: zerbitzuak murrizketak izan dituela salatu zuen, aho batez, osoko bilkurak. Hala, inkesta bidezko galdeketa abiatu dute herritarren iritzia jakiteko. Bestetik, zerbitzuak ibarrean izandako "murrizketez" kezkatuta, sinadurak biltzeari ekin zion Arrasaten oposizioak.

## Debagoieneko turismo eskaintzak, Fiturren

Eguaztenean hasi zen nazioarteko turismo azoka. Eta Debagoieneko eskaintzak dira tartean

**I.O.** DEBAGOIENA

Madrilen egiten diharduten nazioarteko Fitur turismo azokan bada Debagoienaren arrastorik. Ibarreko herrietako eskaintzak eroan dituzte turismo ordezkariek. "Halako hitzorduak lagungarri zaizkigu promoziorako", aitortu du Ana Erizek, Mankomunitateko Turismo arduradunak.

Besteak beste, ibarreko museoen, mendi ibilaldien eta koben inguruko informazioa jarri dute eskuragarri. Eta Puntaik Punta egitasmoa aurkezteko aukera ere izan zuten atzo eguerdian.

Bestetik, Eden saria jaso zuen eguaztenean *Ignaziotar lurraldea* egitasmoak; Debagoiena, Urola Garaia eta Urola Erdia dira horren parte. Beraz, ibarreko ordezkariak ere izan ziren sari banaketa ekitaldian. "Oso pozik gaude aitortzarekin, garapen bidean dauden proiektuen praktika onak saritzen baititu. Sariak estatu eta Europa mailan kokatzen du egitasmoa", dio Erizek.



Ibarreko ordezkariak, Eden saria jaso ostean. DEBAGOIENEKO INTERPRETAZIO ZENTRUA

arizmendi ikastola



# konfiantzaz

## ZATOZ IKASTOLARA!

### HAUR HEZKUNTZA 0-6 URTE

ATE IREKIAK

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **UMEZAINTZA*** | urtarrilak | **20** | (larunbata) | 11:00 | Arrasate |
| **OLARTE** | urtarrilak | **23** | (asteartea) | 17:30 | Arrasate |
| **JOSE ARANA*** | urtarrilak | **23** | (asteartea) | 17:30 | Eskoriatza |
| **SANTA TERESA** (2-6 URTE) | urtarrilak | **24** | (asteazkena) | 17:30 | Arrasate |
| **URIBARRI*** | urtarrilak | **24** | (asteazkena) | 17:30 | Arrasate |
| **BASABEAZPI** (2-6 URTE) | urtarrilak | **24** | (asteazkena) | 17:30 | Aretxabaleta |

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
Arizmendi ikastolak kudeatzako Udal Zeribitzua (0-3 URTE)

eskoriatzako udala
Arizmendi ikastolak kudeatzako Udal Zerbitzua (0-3 URTE)

### LEHEN HEZKUNTZA 6-12 URTE

ATE IREKIAK

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **ARIMAZUBI** | urtarrilak | **29** | (astelehena) | 09:15-11:15 / 14:45-16:30 | Arrasate |
| **SANTA TERESA** | urtarrilak | **30** | (asteartea) | 09:15-11:15 / 14:45-16:30 | Arrasate |
| **ALMEN** | urtarrilak | **31** | (asteazkena) | 09:15-11:15 / 14:15-16:00 | Eskoriatza |
| **GAZTELUONDO** | otsailak | **1** | (osteguna) | 09:15-11:15 / 14:45-16:30 | Arrasate |

(*) [ Ordutegi horietan bisita gidatuak antolatuko dira gunea ezagutzeko. Ordu horietan ezinezkoa bazaizue, LHko zuzendari Maider Herzerekin jarri harremanetan: mherze@arizmendi.eus ]

### DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA 12-16 URTE

ATE IREKIAK

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **GAZTELUPE** | urtarrilak | **22** | (astelehena) | 9:00-12:30 | (6. mailako ikasleen bisita) | Arrasate |
| **ALMEN** | urtarrilak | **25** | (osteguna) | 11:00etan eta 15:00etan | | Eskoriatza |
| **GAZTELUPE** | urtarrilak | **30** | (asteartea) | 11:00-12:30 | (Gurasoentzat ate irekiak, geletan lanean) | Arrasate |
| **GAZTELUPE** | urtarrilak | **30** | (asteartea) | 15:00-16:30 | (Gurasoentzat ate irekiak, geletan lanean) | Arrasate |

(*) [ Ordutegi horietan bisita gidatuak antolatuko dira gunea ezagutzeko. Ordu horietan ezinezkoa bazaizue joatea, DBHko zuzendariekin jarri harremanetan: (Almen) Unai Busturia: ubusturia@arizmendi.eus / (Gaztelupe) Elena Errasti: eerrasti@arizmendi.eus ]

INFORMAZIO BILERAK

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **SANTA TERESA** | Elebitan > | urtarrilak | **23** | (asteartea) | 17:30 | Arrasate |
| **ALMEN*** | Euskaraz > | urtarrilak | **23** | (asteazkena) | 18:00 | Eskoriatza |
| **GAZTELUPE** | Euskaraz > | urtarrilak | **24** | (asteazkena) | 18:00 | Arrasate |
| **GAZTELUPE** | Elebitan > | urtarrilak | **25** | (osteguna) | 18:00 | Arrasate |

* Bapateko itzulpena gaztelerara.

MATRIKULA EPEA ZABALIK ··········> **URTARRILAREN 29tik OTSAILAREN 9ra**

ikastolenelkartea

informa zaitez 943 77 20 25 www.arizmendi.eus

# Goribarko lantegi berria inauguratu du Ulmak

Ulma Packagingek Oñatiko Goribar auzoan eraiki duen lantegi berria inauguratu dute astean Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olanok eta Oñatiko alkate Mikel Biainek. 5 milioi euro inbertitu ditu Ulmak termozigilatze lanetara bideratutako lantegi berrian



Diputatu nagusi Markel Olano eta Packagineko gerente Cecilio Lejarreta. M.A

**Miren Arregi** OÑATI

Dagoeneko martxan badago ere, astean egin dute Ulma Packagingek Goribar auzoan zabaldu duen lantegi berriaren inaugurazio ekitaldia. Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olanok, Oñatiko alkate Mikel Biainek eta Ulma Packagingeko gerente Cecilio Lejarretak inauguratu dute, besteak beste.

Lantegi berria termozigilatze lanetara bideratuta dago eta 5.000 m2-ko azalera dauka. Azalera horretatik, 4.000 m2 ekoizpen arlorako dira eta gainerakoak, bulegoetarako. Ulmak 5 milio euro inbertitu ditu lantegi berrian.

Instalazioak urtean 400 makina baino gehiago ekoizteko ahalmena dauka, eta, behar izanez gero, beste 4.000 m2 gehiago handitu ahal izango da. Antolaketa aldetik, kudeaketa eredu bat ezarri da, eta horrekin termozigilatzeko makinak epe azkarretan eta baliabideen eragin-kortasun handiarekin ekoiztu ahalko dira.

**Ekarpena sozioekonomiari**

Ulma taldeak herriko errealitate sozioekonomikoan egiten duen ekarpen handia ipini zuen balioan Oñatiko alkateak, eta kapitala bertakoa izatearen garrantzia ere azpimarratu zuen: "Lurraldetik bertatik datorren konpromiso batetik dator, eta zuena da kapitala. Herri batendako berme bat da kapitala bertakoa izatea", zioen. Esperientzia kooperatiboa arrakastatsua izan dadin kooperatiben eta erakunde publikoen arteko elkarlana ere aldarrikatu zituen Biainek ekitaldian.

Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olanok, bestetik, zorionak emanez hasi zuen hitzaldia. "Dagoeneko topera martxan dagoen lantegi honen inaugurazioak adierazten du aurrera goazela. Gaur, Ulma enpresa zoriontzeko eguna da".

## Mintzapraktika programetan parte hartzeko aukera zabalik

Arrasaten, Bergaran, Oñatin, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Elgetan zabalik dago izen emate epea

**M.A** ARRASATE

Zabalik dago mintzapraktiketan parte hartzeko izen-ematea. Bada, euskara maila hobetzeko eta hizkuntza praktikatzeko aukera eskaintzen du egitasmoak. Programa doan da, eta, hasiera batean, astean behin eta talde txikietan elkartu eta euskara ikasteko lehen urratsak egiten dira. Gainera, herrian egiten diren aisialdi ekintza batzuetan parte hartzeko laguntza ere izango dute, nahi izanez gero. Ekainera bitartean lau irteera egingo dira. Lehenengoa, urtarrilean.

Izena emateko, Arrasaten, AED elkartean duzue aukera, 943 77 12 28 telefonoan edo *zaharberri@aedelkartea.eus*-en; Bergaran, 943 76 36 61 telefonoan edo *jardunkultura@topagunea.com* helbidean; Oñatin, 943 78 24 96 telefonoan edo *euskera@onati.eus*-en; Aretxabaletan, 943 77 09 70ra deituta edo *auzoko@loramendielkartea.eus*-en; Eskoriatzan, 943 71 46 88ra deituta edo *euskara@eskoriatza.eus*-en; eta Elgetan, 688 648 041 telefonoan edo *elgetanberbetan@gmail.com* helbidera idatziz.





Ur-zozoa, Deba ibaian. IKER NOVOA

# Ur-zozoak nabarmen hazi dira Deba ibaian

Hamahiru zenbatu dituzte urtarrilean Deba ibaian; hamabi Debagoienean eta bat Elgoibarren. Kopuru polita dela diote adituek, eta ur-kalitatearen hobekuntzaren ondorio zuzena. Ur-zozoaren errekuperazioa kontsolidatu egin dela uste dute

**Miren Arregi** OÑATI

Debagoieneko ibaiak garbitzen ari dira eta horren ondorioetako bat da ur-zozoaren ugaritzea. Urtarrilaren 13an Urkuluko eta Aixolako urtegietan eta Deba ibaian egin den kontaketa baten ondorioztatu dute hori, besteak beste. Hain zuzen ere, mundu mailako ur-hegaztien kontaketa egin zen egun hartan. Gipuzkoako kontaketa Itsas Enara ornitologia elkarteak koordinatzen du eta Debagoieneko hezeguneak, berriz, Josemi Devesak, Asier Sarasuak eta Iker Novoak aztertzen dituzte. Modu horretan jaso dituzte Urkuluko eta Aixolako urtegien eta Deba ibaiaren –Aretxabaletatik Elgoibarrerainoko zatia– azken bi hamarkadetako datuak.

**Ur-zozo gehiago dago orain**

Hain zuzen ere, kontaketa horiekin egiaztatu dute "ur-zozoaren bilakaera positiboa". "2007an detektatu ziren lehenengo aldiz ur-zozoak Deba ibaian egindako neguko kontroletan. Izan ere, 2000tik 2007ra bitartean egindako kontroletan, bat bera ere ez genuen erregistratu", dio Oñatiko Naturzaliak elkarteko Iker Novoak. "2007tik hona, ale gutxi batzuk erregistratu dira –bat eta hiru artean–, baina aurten, gorakada esanguratsua izan da, hamahiru ur-zozo desberdin zenbatu baititugu", erantsi du. Harritu egin ditu gorakada horrek ikerlariak, eta eurendako "sorpresa oso polita" izan dela onartu dute. Datuak ur-zozoaren errekuperazioa kontsolidatu egin dela adierazten duela erantsi du Novoak. Zenbatu dituzten hamahiru ur-zozo horietatik, hamabi daude Debagoienean eta bat Elgoibarren. Debagoienari berari dagokionez, bi aurkitu dituzte Aretxabaletan, zazpi Arrasaten eta hiru Bergaran.

**Erreka nagusira bueltan**

Deba ibaiaren uraren kalitatearen hobetzearen ondorio zuzena da ur-zozoaren ugaritzea. "Deba ibaia hamarkadatan zehar erabat kutsatuta egon da eta ur-zozorik gabe, baina azken urteetan berreskurapen nabaria egon da". Epeleko araztegia ipini izanaren ondorio zuzena da hori, eta, ur-zozoaren gorakada nabarmena, ur kalitatearen hobekuntzaren indikatzaile oso ona. Puntu honetan, Novoak argitu du ur-zozoa ez dela inoiz desagertu Debagoienetik, baina, Deba ibaiaren egoera txarraren ondorioz, "errekasto garbietan babesturik" egon dela urte askotan. "Orain, erreka nagusira bueltatzen ari dela ikusten dugu", dio.

Ur-zozoa "errekari hertsiki" lotuta bizi den txori bat da. "Errekako zomorroez elikatzen denez, ur kalitate oneko errekak behar ditu bizi izateko", dio Novoak. Hain zuzen ere, hori da Euskal Autonomia Erkidegoan ur-zozoa interes bereziko –espezie mehatxatua– izendapenez katalogatua egotearen arrazoia.

**Kumaldiak, azpiegituretan**

Errekan bizi da ur-zozoa; kumaldietarako, baina, gizakiak egindako azpiegiturak erabiltzen ditu. "Hori bai, azpiegitura zaharrak. Hondatuta daudenak, zulotxoak-eta dituztenak. Berrietan ez dute habiarik ipintzen, ez dutelako zirrikiturik". Udaberria iristearekin batera hasiko dira kumaldiak.

**Oñatin ere, erreka gehienetan**

Oñatiko Naturzaliak elkarteak 2013 eta 2015 urte bitartean egin zuen Oñatin ur-zozoen gaineko ikerketa bat. Hain zuzen ere, haien jarraipena egin zuten, banaketa eta populazio tamainak aztertu zituzten eta eragiten dizkieten faktoreak identifikatu. "Ondorioa izan zen Oñatiko erreka gehienetan bizi direla, nahiz eta ez dentsitate handian". 2014ra arte, Epeleko araztegia Zubillagako zikinak garbitzen hasi zenera arte, ez zuten auzo horretan ur-zozorik ikusi. Ordutik aurrera, bai. Beste ondorioetako bat izan zen, aipatu bezala, eraikin zaharrak –zubiak, presak, eta abar– aukeratzen dituztela habiak egiteko. Hala izan zen aztertutako kumaldien %92an. 2015ean hamabi bikote aurkitu zituzten Oñatin eta kumaldien %38 galdu egin zen, molestiengatik, harrapakaritzagatik eta beste arrazoi batzuengatik.

**IBARRARI DAGOKIONEZ, BI AURKITU DITUZTE ARETXABALETAN, ZAZPI ARRASATEN ETA HIRU BERGARAN**

## Hemen da 'Goiena gida 2018', zerbitzuen gida eguneratua

Debagoieneko 2018ko merkataritza gida berrituta dator aurten; 19.000 ale banatuko dituzte, guztira

**M.A** ARRASATE

Goiena Komunikazio Taldeak landutako gida komertziala da *Goiena gida 2018*. Hamabosgarren urtez argitaratu du. GOIENA aldizkaria jasotzen duten toki guztietan banatuko da; herri bakoitzean, herriari dagokiona. Hasi dira gidak banatzen eta urtarrilaren bukaeran amaituko dute banaketa. Berrikuntzekin dator aurtengoa; izan ere, besteak beste, diseinua berritu dute, erabiltzaileendako bilaketa errazte aldera. Gainera, merkataritza gida batez haragoko gida prestatu dute; hala, betiko merkatari eta zerbitzu profesionalen gaineko informazioaz gain, 2018ko egutegia, bestelako erakunde publikoen eta zerbitzuen intereseko telefonoak, guardiako farmazien egutegia eta zaborren egutegia ere txertatu dituzte, baita Debagoieneko desfibriladoreen kokalekuak ere. *Goiena gida 2018* kontsulta daiteke *Goiena.eus/gida* atarian, baita *Goiena* aplikazioan ere.




*Goiena gida 2018.* GOIENA



ZABALIK

ESTEPAN PLAZAOLA

# 'Iparraldearen orena'

Zuberoako, Lapurdiko eta Nafarroa Behereko egunerokoa erakusten digu *Iparraldearen orena (Iparraldearen ordua)* ETB1eko albistegiak. Beste albistegietan oihartzunik izaten ez duten berri lokalak eman ohi ditu gehienetan.

Baina Euskal Herriko populazioaren %10 hartzen duen lurgune hori behin baino gehiagotan izan dugu, azkenaldian, gure hedabideetako programa eta orrialde nagusietan ere.

Parte-hartze eta bozketa-prozesu luze baten ondoren, orain dela urtebete, 2017ko urtarrilaren 23an, sortu zen Euskal Herri Elkargoa, Iparralde osoa hartzen duen egitura administratiboa.

Hilabete lehenago izan zen Luhusoko bake-artisauen lehenengo ekintza eta euren atxiloketa.

Iparraldeko gizartea bat eginik atera zen kalera atxilotuak askatzearen alde eta handik lau hilabetera ETAren armagabetzea etorri zen; inoiz inon gertatu gabeko moduan. Orain, presoen gerturatzea.

**ETXAUZIAK HEGOALDEKO HERRITARREN ETA ERAKUNDEEN BULTZADA BEHAR DU**

Baina Iparraldean badira hainbesteko oihartzunik ez duten beste hainbat proiektu ere.

Bost urte egin berri ditu Euskoa moneta sozialak eta une honetan Europako bi-hiru moneta sozial nagusien artean dago.

Gero eta indartsuago da, eta horren adibide, Baionako Udalak hartutako erabakia: ordainketa batzuk euskotan egitea eta Udalak eskaintzen dituen zenbait zerbitzu ordaintzeko ere euskoa onartzea.

Gainera, dagoeneko, ordainketak txartel bidez ere egin daitezke euskotan.

Herri eragileen bultzadaz, abian da Etxauzia proiektua ere: Baigorriko Etxauzia gaztelua erosi eta herriaren zerbitzura jartzea helburu duen proiektua. Lau ardatz dituen egitasmoa: eskualdeko ekonomia sustatzea, kultura garatzea, ondarea berreskuratu eta interpretatzea eta Euskal Herri eta mundu osoko euskaldunon bilgune izatea.

Iparraldetik datorkigun proiektu guztiz interesgarria, Hegoaldekoon bultzada ere behar duena. Lagun dezagun Etxauzia gure ekarpena eginez. *www.etxauzia.eus.*

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE




HANDIK ETA HEMENDIK

## Isilik egoteak balio duena

AITZIBER GARMENDIA

HTTPS://LABUR.EUS/LYYG5 ('BERRIA')

[...] Pertsonaia publikoa naizen neurrian, normalean nire kontrako zerbait entzun edo irakurtzen dudanean onena bakean uztea izaten dela pentsatzen dut beti. [...] Baina ezinezkoa izan da oraingo honetan. [...] Partida hasteko, aurkariak eta biok fitxa berdinak izan ditzagun, berak egin duen moduan, nik ere izen-abizenekin jokatuko dut, justua dela uste dut; zuretzat, beraz, Jokin Labaien, nire jokaldia.

[...] Jokin urtarrilaren 11ko bere *Ekografiak* zutabean EITB 2018 denboraldi berriko aurkezpeneko argazki baten inguruan aritu zen. Ez zitzaion nonbait ondo iruditu ni *Zuriñe* pertsonaiaren azalean agertzea.

[...] Baina gehien haserretu eta mindu nauena azkeneko hitz jarioa izan da.

"Lan desberdinetan ikusi dut, eta iruditzen zait, ikusleen aurrean, haren talentu ikaragarria galtzea dakarrela erabaki horrek. Baina, noski, erabakia hartu duenarentzat, nerabeen saiorako, nerabearen irudia gainetik kendu ezin duen emakume txikia da; ziur asko, bere ilusioen kalterako".

Ez, hau ez dut onartuko, garrasi egiteraino haserretzen naute halako komentarioek. Nerabearen irudia gainetik kendu ezin duen emakume txikia ez dakit zein den, baina ni ez. Itxurak itxura, ez daukat inongo intentziorik irudi hori emateko, metro berrogeita hamazazpi neurtzen duen 35 urteko emakume handia naiz, 17 urte daramatzat aktore lanetan, eta sekula ez nire ilusioen kalterako. Nire alokairu, gosari, bazkari, afari eta kapritxoak ordaindu ditzaket aktore lanarekin. Hori da nire ilusioa. [...] Lanbide gogorra delako, merezi duten guztiek aukerarik ez dutelako eta aukera dugunean erabaki bat edo bestea hartzeagatik kritikatzen gaituztelako. Lanbide aldapatsua gurea, eta askotan gustuko aldapan lekurik ez.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

**Argitaratzailea**
Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagirre.
**Zuzendari nagusia**
Iban Arantzabal.

**Eduki zuzendaria**
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**
Eneko Azkarate, Goiatz Arana, Monika Belastegi, Mirari Altube.
**Zuzendari komertziala**
Mireia Larrañaga.
**Administrazio zuzendaria**
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**
Iñaki Iturbe.
**Hizkuntza arduraduna**
Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa arduraduna** Marta Leturia.

**Sailetako arduradunak**
Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

**Maketazioa**
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
**Publizitatea**
Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza.
**Administrazioa**
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*harpidetza@goiena.eus*

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
*publi@goiena.eus*

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp: 688 69 00 07
*berriak@goiena.eus*

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 19.000 ale
**Difusioa:** 18.723 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia

Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

# "Iboni etxean egotea dagokio eta lortu arte segiko dugu"

**ANGELITA BURGOA** IBON IPARRAGIRRE PRESOAREN AMA

**Josu Bilbao/Goiatz Arana** ARRASATE
Ibon Iparragirre preso ondarrutarra gaur, barikua, iritsiko da Arrasateko Aita Menni ospitaleko Psikiatria Legaleko unitate berezira, Madrilgo Alcala Mecoko espetxean egon ostean. Senideak zain daude Aretxabaletan, kezkati, Iparragirreri "ez diotelako inolako gaitz psikologikorik ezta psikiatrikorik diagnostikatu".

**Nola izan duzue semearen lekualdatzearen berri?**
Asteazken arratsaldean deitu zidan Ibonek Alcala Mecotik, atera egingo zutela esanez. Bere kezka, orduan, anbulantzian etorriko zela izan zen, eta gurekin ezin izango zuela bitartean hitz egin. Eta horrela izan da. Izan ere, badirudi linbo batean dagoela, guk ez dugulako jakin ezer, ez espetxetik, ez beste inondik ere. Beraz, non dago? Barikuan, Aita Mennira eramango dute, baina denbora horretan guztian non egon da?


Angelita Burgoa, atzo, eguena, Aretxabaletan, GOIENAri erantzuten. GOIENA

**Nola dago Ibon?**
Beldurtuta, lekualdatzearekin. Sevillatik Basaurira ekarri zutenean ere bost egun eman zituen eta ez genuen jakin non egon zen denbora horretan guztian. Espetxerik espetxe egon zen, trantsituko tokietan, oso beldurtuta. Beherakoa izan du oraingoan ere, jarraian. Espetxean eman zioten poltsa ere betetzeko gogo barik zegoen asteazkenean. Baina ez da gogo kontua, baizik eta ahalmen kontua. Ez du poltsa betetzeko ahalmenik. Hala ere, nik esan nion dena bertan uzteko, esfortzurik ez egiteko, eta, ahal izan gero, lasai egoteko. Gauzez ez arduratzeko. Horiek izan ziren eguaztenean esan nizkion azken berbak. Edozer dela ere, edozein ordutan helduta ere, ni Aita Mennin egongo naizela itxaroten.

**Gertuago izango da aurrerantzean.**
Bai, baina etxean gura dugu. Exean egotea egokitzen zaio. Bere gaixotasunarekin, baldintza guztiak betetzen ditu etxean egoteko. Gaur egun baino hobeto zegoenean baldintzapeko askatasuna eman zioten, etxe-kartzela, eta ia bi urte egon zen horrela. Astero joaten zen Basaurira sinatzera. Eskuko telematiko batekin kontrolpean zegoen. Gaixotasuna zela-eta ekarri zuten eta egin beharreko gauza guztiak bete zituen. Baina sententzia heldu zenean, kartzelan sartzea erabaki zuten.

**Berriz ere egoera hori lortzeko borrokan jarraituko duzue??**
Bai. Horren zalantzarik ez dezala inork izan. Etxera ekarri arte hor egongo gara, berari etxean egotea egokitzen zaiolako.

ITURRI ONETIK

## Eusko Ikaskuntza: mendeurrena Oñatin

Eusko Ikaskuntzak 100 urte beteko ditu aurten. Izan ere, 1918an sortu zuten Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaiko aldundiek. Eta Oñatin egindako biltzarrean sortu zen. Mendeurreneko ospakizunetan, Oñatik izango du protagonismo nagusia, sorrera-leku den heinean. Azaroaren 23an eta 24an ekitaldi berezia egingo dute Oñatin, eta euskal erakunde publikoen goi ordezkariak izango dira; Iñigo Urkullu lehendakaria eta Uxue Barkos Nafarroako presidentea, besteak beste.

GORA ETA BEHERA

## Txistulari Bandarendako toki egokiagoa

Bergaratik heldu da mezua. Batetik, txalotzeko, Bergarako Txistulari Bandak kalean presenteago egoteko egiten dihardauen ahalegina, Jose Migel Laskurain zuzendariarekin. Bestetik, kexatzeko, txistularien emanaldirako aukeratutako tokia dela eta. "Negu partean, bereziki, toki hoberik ez da Bergaran udaletxeko arkupeak baino, musika emanaldi baterako?" dio.


GOIENA

HAU BE BADOGU!

## Joxan Artze gogoratzeko mezu ugari sarean



Duela astebete zendu zen Joxan Artze poeta gogoratu dute asteon sare sozialetan:

*@ainhoaarbaiza:* "Asko maite duenak, asko, asko daki. Asko dakienak, asko, asko maite du. *#JoxanArtze".*

*@esnebeltza:* "Iturri zaharretik edaten dut, ur berria edaten, beti berria den ura, betiko iturri zaharretik. *#JoxanArtze,* izan zarelako gara".

## Iñurrategik ireki du txotx denboraldia



Alberto Iñurrategi alpinista aretxabaletarrak ireki du aurtengo sagardo denboraldia:

*@BittorOroz: "#txotx2018* Iritsi da jasotako uztaz gozatzeko unea. Sasoikoa, kalitatekoa eta jatorrizko euskal produktua, gora sagardo berria, txotx!".

*@Ioarizos77:* "Hasi da denboraldia! Kupela, kupela sagardoan hotela. Kupela, kupela zaindu ezak horrela Txotxxx!!".

## 'Ume motxiladunak', oraindik hizpide sarean

Iragan zapatuan egin zen presoen eskubideen aldeko manifestazio jendetsua Bilbon, baina asteon, oraindik, *trending topic* izan da sare sozialetan *#motxildadunumeak* traola txiolari euskaldunen artean. Gainera, ETBko *Ur handitan* saioan eskaini zuten programa berezia dagoeneko sei hizkuntzatan azpititulatu dute, hainbat herritarren lanari esker.

# Eibarrek Atxabalpen jarraituko du 2021era arte

Astearte goizean sinatu zuten akordioa Maria Ubarretxenak eta Amaia Gorostizak, Eibar Kirol Taldeko presidenteak. Bertan jasotzen denez, talde armaginak 5.450 euro ordainduko ditu hilero, azken hitzarmenean jasotakoa baino lau aldiz baino gehiago

**Xabi Gorostidi** ARRASATE
2014ko maiatzaren 25ean, ezinezkoa zirudiena egia bihurtu zuen Eibar Kirol Taldeak: Gaizka Garitanok zuzendutako taldeak bi urtez jarraian mailaz igotzea lortu zuen, Bigarren B mailatik, izarrez jositako Lehen Mailaraino.

Aurrekontu askoz handiagoak zituzten taldeen aurka lehiatzeko, belar naturala zuen zelai bat eskatu zuen Garitanok, taldea bertan entrenatu zedin. Bergarako Ipintza futbol zelaian egin zuten denboraldi-aurrea, baina, Atxabalpe erabili gabe zegoela ikusita, horren aldeko apustua egin zuen talde armaginaren zuzendaritzak.



Maria Ubarretxena eta Amaia Gorostiza, Atxabalpen, elkarri eskua ematen. XABI GOROSTIDI

**Zelai bat, eta gero bi**

Orduko alkate Inaxio Azkarragaurizarrek eta Eibarko zuzendaritzaren ordezkari German Albistegik akordioa sinatu zuten 2014ko uztailaren 23an. Urte baterako hitzarmena zen, eta Eibar Kirol Taldeak belargunea eta aldagelak erabiltzearen truke 600 euroko kuota sinbolikoa ordaintzea adostu zuten.

Kirol arloan, Eibarrek maila mantentzea lortu zuen, eta, elitean jarraituko zutela ikusita, Atxabalpeko beste zelaia belarrezko bihurtzeko inbertsio garrantzitsua egin zuten. Horrez gain, oso txarto zegoen harmaila kendu egin zuten.

2015eko abenduaren 15ean inauguratu zuten bigarren zelaia, eta 2019ra arte luzatu zuten bi aldeko akordioa, hilean 1.200 euroko kuotarekin.

**600 eurotik 5.450era**

Asteartean hitzarmena sinatu zuten Maria Ubarretxena alkateak eta Amaia Gorostizak, Eibarko presidenteak. Horren baitan, hain zuzen ere, Eibarrek 2021era jarraituko du Atxabalpen entrenatzen, eta horren truke Arrasateko Udalak 5.450 euro jasoko ditu hilero, lehen baino lau aldiz baino gehiago. "2014an egin zen lehenengo kontratua, eta, orduan, eremu hau oso egoera prekarioan zegoen. Tarte honetan zehar aldaketa eta hobekuntza prozesu batean egon da Atxabalpe, eta, behin egonkortu denean, kontratua berritzea tokatzen zen. Hirigintza Sailak ezarri du prezioa, lursailaren baldintzak eta erabilpenak kontuan hartuta", azaldu du Ubarretxenak.



Atxabalpen ateratako argazkia, lehen hitzarmena sinatu aurretik. J. DOMINGO

## Zaldiak lehen; jokalariak gero

2007an Mondra Mojategira lekualdatu zen, eta, handik gutxira, zaldiek belarra jateko gune izatera pasa zen Atxabalpe. Baina 2014an, Eibar Kirol Taldeak eta Udalak akordioa sinatu zuten, eta, ordutik hona, armaginen entrenamendu gune eta gotorleku izan da.

## Bi aldeak pozik hitzarmenarekin



**MARIA UBARRETXENA**
ARRASATEKO ALKATEA

"Gu ere oso eskertuta gaude, eta, guretzat, oso egun pozgarria da gaurkoa. Arrasaterentzat oso garrantzitsua da lehen mailako talde bat bertan entrenatzea. Inbertsio handia egin dute Atxabalpen, eta ea kirol arloan dituzten emaitza onak mantentzeko balio dien".



**AMAIA GOROSTIZA**
EIBARKO PRESIDENTEA

"Gaur, bi urtez luzatu dugu Atxabalpe erabiltzeko geneukan errentamendu-kontratua. Oso pozik gaude, eta asko eskertzen diogu Arrasateko Udalari gu laguntzeko duen jarrera. Guretzat, luxua da paraje hain eder hauetan entrenatzen jarraitzea".

# EH Bildu prest dago txakur gorotzen arazoa konpontzeko

Txakur jabeekin, herritarrekin eta lorezaintza langileekin batzarrak egin nahi dituzte, konpromisoak hartzeko

**X.G.** ARRASATE
Komunikabideetara bidalitako ohar baten adierazi dutenez, jabeek gorotzak ez batzeak "bizikidetza arazoa" dakar, zuzenean eragiten duelako belardiak gozatu nahi dituzten herritarrengan, eta baita lorezaintzan dabiltzan langileengan ere. "EH Bilduren ustez, garrantzitsua da herritarrek Arrasateko parke eta belardiak gozatzeko aukera izatea. Hori gaur egun ez da guztiz posible, txakur gorotzek zikinkeria eta usaina dakartelako. Langileek ere, lorezaintzako enpresa azpikontratatuaren arduradunaren bidez, adierazi dute oso gogorra zaiela belarra moztea txakur gorotzez inguraturik".

Oharrean aipatzen denez, aspalditik datorren arazoa da, eta orain arte egindako lana ez da nahiko izan hori konpontzeko. "Urteetan zehar ahalegin ezberdinak egin dira arazo hau konpontzeko: kanpainak, plastikozko poltsak herrian zehar banatzea, eta abar. Zoritxarrez, ez dugu lortu arazoari buelta ematea".



Txakur gorotz bat. EH BILDU

Hala, Oscar Garcia batzordeburuari eskatu diote gaia 2018rako lehentasunen artean kokatzeko. "Bizikidetza prozesu bat abiatzea da proposatzen duguna; txakur jabeekin, herritarrekin eta lorezaintza langileekin batera. Asmoa da bizikidetza konpromisoak hartzea, eta espazio publikoez eta txakurren konpainiaz aldi berean gozatu ahal izatea".



LKSk idatzi zuen musika etxearen proiektua, eta hori da lehiaketa publikoan aurkeztu zuten zirriborroa. LKS

# Juan Arzamendiko lanak, %26 merkeago esleituta

Urtarrileko osoko bilkuran onartu da birgaitze lanak Lurgoien SA enpresari esleitzea, 5.550.012 euroren truke (BEZa barne). Prezio ona da, uztailaren 28ko ezohiko osoko bilkuran 7.500.000 euroko prezioa onartu baitzen kontratazio prozedurarako

**Xabi Gorostidi** ARRASATE
Arrasate Musikalen eta Goikobaluren egoitza berria izango denaren birgaitze lanek osoko bilkuraren oniritzia behar zuten aurrera egiteko, eta urtarrileko osoko bilkuran lortu dute.

Aurretik, uztailaren 28an, gai bakarreko ezohiko osoko bilkura egin zuten udalbatzako kideek, Juan Arzamendi Musika Etxearen kontratazio prozedura onartuta geratu zedin. Bertan, 7.500.000ko prezioa zehazten zen pleguetan –BEZa barne–, birgaitze lanak egiteko. EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin eta EH Bilduren abstentzioarekin egin zuen aurrera kontratazio prozedurak. Baleikek eta Irabazik, berriz, aurka botatu zuten.

**Lurgoien garaile**

Hamar enpresa aurkeztu dira eraikinaren birgaitzen lanak egiteko lehiaketa publikora. Abenduaren 20an elkartu zen kontratazio mahaia, eta bertan, Lurgoien SA enpresa izan zen irabazlea, 5.550.012 euroko aurrekontuarekin. Beraz, pleguetan ezarritako prezioan baino ia 2.000.000 euro azpitik esleitu dira lanak, %26 merkeago. Lurgoien SA Balzola taldeko enpresa bat da, eta, besteak beste, Bilboko Guggenheim museoaren eta BECen eraikuntzan parte hartu dute.

**%73 aurreztuta**

Esleipena botatu aurretik, Juan Arzamendi Musika Eskolaren lanak finantzatzeko Udalak duen egoera finantzarioan jarri zuen fokua Anuska Ezkurrak. Azaldutakoaren arabera, legealdi honetan jada 4.044.000 euro aurreratu ditu Udal Gobernuak obra horri ekiteko; beraz, momentu honetan, kostu totalaren %73 aurreztuta egongo litzateke. EAJk, PSE-EEk eta EH Bilduk alde botatu zuten eta Baleikek eta Irabazik, berriz, abstentziora jo zuten.

Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasun zinegotzi Ibon Arrupek azaldu duenez, lanak martxoan hasiko dira, eta hogei hilabete izango ditu Lurgoien SA enpresak horiek egiteko. "Dena ondo bidean, 2019ko Gabonetarako edo 2020 hasierarako erabilgarri egongo da musika etxe berria".

**0-5 urte**

**Hazkuntza - Osasuntsu baterako Tailerra**

**Edukiak:**
- Errespetuan oinarritutako haziera baten oinarriak
- Haurraren jarrera ulertu eta gidatu
- Nola lagundu seme-alabei emozioekin?
- Arazoak arazo ez direnean
- Anaia-arreben arteko zeloak eta gatazkak
- Guraso bezala gure emozioak kudeatzen

**Egutegia:** saioak astelehenetan izango dira, otsailaren 5ean, 12an, 19an eta 26an eta martxoaren 5ean eta 12an.
**Ordua eta lekua:** 18:00-19:30, Kulturateko Loramendi gelan
**Dinamizatzailea:** HEZIBIDE elkarteko, Mireia Centeno, psikologoa eta psikopedagogoa.

**6-12 urte**

**Garapen emozional osasuntsua**

**Edukiak:**
- Haurraren jarrera ulertu eta gidatu
- Nola lagundu seme-alabei emozioekin?
- Nola lortu gure seme-alaben kooperazioa
- Nola sustatu seme alaben autonomia
- Eguneroko gatazkak kudeatzen
- Guraso bezala gure emozioak kudeatzen

**Egutegia:** saioak astearteetan izango dira, otsailaren 6an, 13an, 20an eta 27an eta martxoaren 6an eta 13an.
**Ordua eta lekua:** 18:00-19:30, Kulturateko Loramendi gelan.
**Dinamizatzailea:** HEZIBIDE elkarteko Mireia Centeno, psikologoa eta psikopedagogoa

**13-18 urte**

**"Zer egingo dut nik orain?"**

**Edukiak:**
- Komunikazioa
- Coaching-a eta aldaketa prozesuak
- Entzute-aktiboa eta asertibitatea
- Helburuen formulazioa
- Komunikazio ez-berbala eta inteligentzia emozionala
- Gatazken ebazpena eta negoziazioa
- Estrategia berrien identifikazioa erabakiak hartzerako orduan
- Familia sistema gisa (arauak, rolak...)
- Arazoen birplanteatzea
- Gatazkak aukera moduan.

**Egutegia:** saioak asteazkenetan izango dira,otsailaren 7an, 14an, 21ean eta 28an eta martxoaren 7an eta 14an.
**Ordua eta lekua:**18:00-20:00, Kulturateko Loramendi gelan.
**Dinamizatzailea:** : Ardatz Formazio eta Ikasketa Zentroa.






**Izen ematea: urtarrilak 26ra arte**

ANTOLATZAILEA: Arrasateko Udala / Ayuntamiento de Mondragón

- BAZ - 943.25.20.00
- GIZARTE ZERBITZUAK - 943.25.20.07
- http://www.arrasate.eus/eu/tramiteak/izen-emateak



Arantza Beitia –Berdintasun teknikaria– eta Esther Lizarralde –Emakume Txokoko dinamizatzailea– egitarauarekin. XABI GOROSTIDI

# Emakumeak ahalduntzeko bidea, ekintzaz josita

Emakume Txokoko jabetza eskolan labetik atera berri dute maiatzera arteko ikastaro, tailer eta ekintza sorta. Horien artean daude 'La flamencura todo lo cura' ikastaroa eta 'Genealogia feministak' tailerra. Izen emateak, urtarrilaren 22 eta 26 artean

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Aste honetan plazaratu du Emakume Txokoak otsailetik maiatzera antolatu dituen ekintza eta ikastaroen sorta. "Jabetze eskolan erreparatuko diogu gure errealitateari ikuspegi feministatik, saiatuko gara kultura birdefinitzen ikuspegi horretatik, eta eskuratuko ditugu parte hartze sozial eta politikorako tresnak", azaldu dute antolatzaileek.

**Emakumeen ekarpena**

Gizonek historian utzi duten arrastoa askoz handiagoa izan da emakumeena baino, eta, hutsune hori betetzeko asmoz, emakumeek egin dituzten ekarpenetan jarri dute fokua egitaraua osatzeko orduan. "Ildo horretatik doaz Iraitz Agirrek gidatuko duen *Genealogia feministak* tailerra eta *Wikiemakumeak*", azaldu du Esther Lizarralde dinamizatzaileak. Izen emateak urtarrilaren 22 eta 26 artean egin behar dira, Emakume Txokoan, posta elektronikoz edo telefonoz.

## Maiatzera arteko egitaraua

- **Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa** Otsailaren 5etik aurrera, astelehenetan. Ordutegia: 09:30-11:00. Gazteleraz.
- **Mindfulness ikastaroa** Otsailaren 5etik aurrera, astelehenetan. Ordutegia: 15:30-17:30. Euskaraz.
- **'La flamencura todo lo cura'** Otsailaren 5etik aurrera, astelehenetan. Ordutegia: 17:45-19:45. Gazteleraz.
- **'Askatasunetik maitatzea, berdintasunetik'** Otsailaren 6tik aurrera, martitzenetan. Ordutegia: 15:30-17:03. Gazteleraz.
- **'Gure emozioak lantzen'** Otsailaren 6tik aurrera, martitzenetan. Ordutegia: 18:00-20:00. Gazteleraz.
- **'Abdominalak arriskurik gabe'** Otsailaren 7tik aurrera, asteazkenetan. Ordutegia: 09:30-11:00. Euskaraz.
- **Antzerkia taldean** Otsailaren 8tik aurrera, ostegunetan. Ordutegia: 18:00-20:00. Gazteleraz.
- **Joskintza, jabetzeko tresna** Otsailaren 3tik aurrera, bi zapatutik behin. Ordutegia: 09:30-14:00. Euskaraz.
- **Mendi orientazioa** Martxoaren 10etik aurrera, zapatuetan. Ordutegia: 09:30-13:30. Euskaraz.

**Tailerrak**

- **'Wikiemakumeak'** Otsailak 21 eta 28. Ordutegia: 18:00-20:00. Euskaraz. Trebatzailea: Amaia Astobiza Uriarte.
- **Autodefentsa ziberfeminista** Martxoak 6 eta 13. Ordutegia: 18:00-20:30. Euskaraz. Trebatzailea: Kattalin Miner Perez.
- **Topalekua eta ahalduntze gunea, herrialde eta kultura askotako emakumeena** Martxoak 7, apirilak 18 eta maiatzak 9. Ordutegia: 18:00-20:00. Dinamizatzailea: Marisol Abreu Fariñas.
- **'Genealogia feministak'** Apirilak 17-24, maiatzak 8-15. Ordutegia: 18:00-20:00. Euskaraz. Trebatzailea: Iraitz Agirre Aranguren.
- **Laguntza tailerra hilekoaren zailtasunei buruz** Otsailak 24, martxoak 17, apirilak 21, maiatzak 26. Ordutegia: 17:00-20:00. Euskaraz. Trebatzailea: Oihana Lopez Cestao.

**Ekintza solteak:**

Guatemalako ekintzaile indigena eta feminista Aurora Lolita Chavez Ixcaquic-en hitzaldia otsailaren 8an; emakume artisau eta baserritarren azoka martxoaren 10ean; Zinegoak-eko film laburrak martxoaren 14an; poesia musikatua martxoaren 16an...

## "Gure proiektua finantzatzeko modua da Topatufest jaialdia"

**AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ** TOPATUKO KIDEA

Hilaren 27an Topaturen festa egingo dute Arrasaten

**X.G.** ARRASATE

**Lehenik eta behin, nola azalduko zenioke Topatu zer den horri buruz ezer ez dakien bati?**

Euskal Herriko gazteon komunikazio proiektua da. Euskal Herriko gazte mugimendutan murgilduta gaudenak batzen gara bertan. Sortzen ditugun erreportajeak gaztetxeak bezalako eragileek esku artean dituzten proiektuekin lotuta egoten dira, orokorrean.

**Nola funtzionatzen du zuen sareak?**

Hiru pertsonak osatutako koordinazio lantalde bat dago, eta gero, Topaturen sarea dago. Euskal Herriak zazpi probintzia ditu, eta probintzia bakoitzean sare bat daukagu.



Amaia Ramirez de Okariz. AMAIA R.D.O.

**Urtarrilaren 27rako Topatufest jaialdia antolatu duzue Arrasaten. Zein helbururekin antolatu duzue? Eta zer izango da bertan?**

Nahiko proiektu prekarioa da gurea, eta, hori dela eta, urtero antolatu dugu Topatufest jaialdia, gure jarduna finantzatzeko helburuarekin. Goizean bi tailer egingo dira, kartelgintzarekin eta bideogintzarekin lotuta, eta *Gaztesarea*-koen mahai-ingurua ere izango da. Bazkalostean, Silvio eta Rodriguezen zuzeneko akustikoa eta karropoteoa egingo ditugu. Eguna amaitzeko, aldiz, Autobus Magikoa eta Erokomeri taldeen kontzertuak eta DJ Kartoon-en saioa.



NIRE USTEZ

**ANE GOROSABEL**

## Marseilla gogoan

Halako herri azoka bat egon zitekeenik ere... Baserritar eta herritarrak protagonista, elikagaien istorio zaindariak elkarren artean mintzo, elkarren artean ezagun, konplize.

Kontatu zidaten, garai batean, udalak proposatuta, azoka hartan autoak aparkatzeko espazioa egokitzeko asmoa agertu zela. Ez zegoen nik ezagutu nuen jendetza orduan. Baserritar bakar batek eusten zion garai hartan bere produktua zuzenean saltzeko eromenari, eta ez zuen bere izana alde batera lagatzeko inongo asmorik. Antza, aspaldiko araudi baten berri eman zion bateren batek, non adierazten zen baserritar bakar bat egotea nahikoa argudio zela azoka errespetatzeko.

Auzotarrak gehitu zitzaizkion espazio hura mantentzeko eromenari, eskakizun kolektibo bihurtu zen arte. Marseillako auzo hark ez zuen soilik baserritar hura babestea lortu, baita gaur egun herriarentzako ezinbestekoa den espazio bizia sortu ere, autogestionatua, herritik eta herriarentzat. Hemendik, nire eskerrik zintzoenak zuen herrietako asteroko azokaren jabe, erabiltzaile eta zaindari zareten guztioi!


Udalbatzako kideak martitzeneko osoko bilkuran. XABI GOROSTIDI

# Aparkaleku publikoei buruzko eztabaida

Biteriko eta Laubideko 2018ko tarifak adosterakoan, gaiarekiko hausnarketak egin zituzten alderdiek. Horrez gain, kaleen garbiketa zerbitzuaren kontratazio zerbitzua hutsik deklaratu zuten, eta Palestinarekin lotutako mozioa onartu zuten aho batez

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Eguneko lehenengo puntua izan zen aparkalekuena, eta bertan, Irabaziko Juan Luis Merinok esan zuen garestiegiak direla. "Arrasateko udalbatzak prezio horiek aldatu beharko lituzke. Bi parking horietan, guztira, ia 600 aparkaleku daude, eta horietatik 244 kontzesio administratiboan. Bada, libre dauden horiek beharra dutenentzat erabili beharko lirateke, eta horretarako prezio merkeagoak behar dira".

Anuska Ezkurrak erantzun zion, esanez, Arrasateko Udalak asko jota KPIaren igoera ezarri edo ez erabaki dezakeela, baina ezin dituela prezioak bere kabuz ezarri. "2003an Murias enpresarekin 50 urterako kontratua sinatu zuen Arrasateko Udalak, eta, bertan jasotzen denez, prezio politika Muriasen eskumena da. Gustatuko litzaiguke prezioak jaistea, baina eskuak lotuta ditugu 2003ko kontratuan adostutakoarekin".

Eneko Barberenak esan zuen 2003ko kontratu hori bere testuinguruan kokatu behar dela. "Udalak beste inbertsio garrantzitsuago batzuk zituen orduan, eta horrek behartu zuen 50 urterako kontratu bat sinatzera".

Azkenik, Maria Ubarretxenak gai horrekin demagogiarik ez egiteko eskatu zion Juan Luis Merinori. Arrasateko Udalak prezioa jaistea onartuz gero, kontratuan hitzartutakoa hautsiko lukeela esan zuen, eta horrek kalte-ordainetan 9.000.000 euroko kostua izango lukeela gaineratu.

**Garbiketa zerbitzua, hutsik**

CESPA eta UTE Zerbitzu SL FCC enpresen arteko lehia administratiboaren eraginez, hutsik geratu da Arrasateko kaleen garbiketa zerbitzua kontratatzeko prozesu irekia. 2017ko maiatzeko osoko bilkuran, zerbitzu hori CESPAri esleitzea onartu zuten, hurrengo lau urteetarako. Baina bigarren postuan geratu zen UTE Zerbitzuak SL FCC enpresak errekurtsoa jarri zuen Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoan, eta, onartua izan zenez, urriko osoko bilkuran eurei esleitu zitzaien zerbitzu hori. Horren aurrean, CESPAk errekurtsoa jarri zuen lehen aipaturiko organoan, eta hark arrazoia eman zion partzialki abenduaren 15ean. Hala, kale garbiketa zerbitzua esleitzeko kontratazio prozesua hutsik deklaratzea onartu zuten.

Baleikeko Igor Urizarrek blokeo egoera hori dela-eta garbiketa zerbitzua udalekotzeko txostenaren inguruan galdetu zion Oscar Garciari, eta hark jakinarazi zion bizpahiru astean eginda egongo dela.

**UDALAK PREZIOAK JAITSIZ GERO, 9.000.000 EURO ORDAINDUKO LITUZKE KALTE-ORDAINETAN**


Gaztetxo bat pago gorria landatzen, 2016ko urtarrilean. IMANOL SORIANO

## Hidalgobason zuhaitz landaketa egingo dute bihar goizean

Zuhaitz feriarekin batera egiten den landaketan parte hartzeko, hitzordua egin dute 10:00etarako, Institutuan

**X.G.** ARRASATE

Garaiko ortuko produktuez gain, zuhaitz ukitu nabaria izango du urtarrileko baserritarren azokak. Sei mintegitako zuhaitz-landareak egongo dira salgai. Zuhaitz horien artean daude, besteak beste, fruta-arbolak, koniferoak eta basoko landare autoktonoak, eta basoko fruitu txiki espezieak ere erosi ahal izango dituzte herritarrek.

**21. landatzea**

Zuhaitz Eguna 2000. urtea ezkero antolatzen dute Udalak eta Ingurumen Eskolak. Hasieran ikastetxeei soilik zuzenduta bazegoen ere, 2013an herritar guztiengana zabaldu zen deialdia. Orain arte, 150-200 zuhaitz inguru landatu dituzte urtero herri lurretan, Garagartzan, Uribarrin, Antoniñan eta San Balerio inguruan.

Aurtengoa Hidalgobasoko hariztiaren barruan egingo dute, eta 200 zuhaitz inguru jarriko dituzte biodibertsitate handiko eremu horretan. Besteak beste, espezie hauek sartuko dituzte: elorri beltza, elorri zuria, gurbitza, basaerramua, gorostia, zuhandorra, erratza eta hurritza.

### 3.000 euro gehiago azken pintaketak kentzeko lanetara

Udal Gobernuak jakinarazi duenez, 2017an zehar hogei aldiz baino gehiago egin dira izaera edo eduki politikoa duten pintaketak herrian.

Esan dutenez, aurreko asteburuan, euskal presoekin lotutako 70 pintaketa egin ziren herriko hainbat lekutan, eta horiek ezabatzeko 3.000 erabili behar izan ditu Udalak.

"Adierazpen askatasunaren eskubidea errespetuan oinarritzen da; herritarrekiko eta guztionak diren espazio publikoekiko errespetuan, alegia. Udalbatza osatzen duten gainerako alderdi politikoei dei egiten diegu guztiona den ondarearekiko errespetua eskatzeko".

### Porrotx pailazoak helduentzako tailerra eskainiko du

AEDk antolatutako saio hori urtarrilaren 24an izango da, eta bertan, haur txikiekin euskaraz komunikatzeak duen garrantziaz jardungo du Porrotxek, bere estilo serio-alaian.

"Jorratuko dugun gaiak haurren hazkunde prozesuan daukan garrantzia aintzat hartuta, saiora hurbiltzeko gonbidapen berezia egiten dizuegu seme-alaba txikiak edota ez hain txikiak dituzuenoi", adierazi dute AEDko kideek.

Hitzordua Kulturateko areto nagusian izango da, 18:30ean, eta doako zaintza zerbitzua jarriko du AEDk. Erabili nahi izanez gero, deitu 943 77 12 28 zenbakira gaur bertan.

# Emakume raketisten lana balioan jartzeko bilduma

'Emakume raketistak. Iragana eta etorkizuna' izeneko erakusketa Kulturateko klaustroan ipini dute, hilaren 28ra arte. Guztira, 25 panel daude argazkiekin eta datuekin. Azken laurak Arrasateko lau raketistari eskainitakoak dira

**Mireia Bikuña** ARRASATE

Emakume raketistek frankismo garaian emandako pausoa eta egindako lana "balioan ipintzea eta aitortzea" da Kulturaten dagoen erakusketaren helburu nagusia. *Emakume raketistak. Iragana eta etorkizuna* izeneko bildumarekin dihardu lanean azken hiru urteotan Jon Juanesek. "Lehen emakume kirolari profesionalak izan ziren. Kontratuarekin lan egin zuten emakumeak. Aurretik, baziren emakume tenislariak, baina haiek ez zuten kontratu profesionalik", esan du.

Kulturateko erakusketan dagoen kontratuetako baten agertzen da zeintzuk ziren raketista batek zituen baldintzak: hilero 25 partidu jokatu behar zituen, bakoitza 124 pezetaren truke.



Antolatzailea, udal arduradunak eta raketisten oinordekoak, Kulturaten. M. BIKUÑA

### Madrilera eta Mexikora

Askorendako "ezezaguna" den kirol ekintza bada ere, aipagarria da Euskal Herriko 40 herritan raketistak egon zirela: Ermuan, Abadiñon, Mallabian, Eibarren, Arrasaten... "1934an, pilotarekin jokatzen zuten federatu lizentzien erdia baino gehiago emakume raketistak ziren. Espainiako 34 pilotalekutan eta Ameriketako beste hamarretan emakume raketisten partiduak ziren entzutetsuenak", azpimarratu du Juanesek.

Euskal Herriko raketista gehienek Madrilerako eta Mexikorako bidea hartu zuten. Leku haietan izarren pare egon ziren. "Euskal Herrian ez zituzten begi onez ikusten. Kontrara, irainak ere jasotzen zituzten. Aldiz, Madrilen eta Mexikon beste ibilbide bat izan zuten. Artistekin, aktoreekin, abeslariekin eta beste hainbatekin hartu-eman zuzena izan zuten: Gary Cooper, Raphael, Jorge Negrete... Divak ziren ", esan du Juanesek.

### Lau arrasatear

Raketista entzutetsuen artean lau arrasatear egotea izan da bilduma herrira ekartzearen arrazoia. "Memoria berreskuratzen laguntzeko beste aukera bat dela uste dugu. Emakume kirolariak, tartean arrasatearrak, gerra garaian, Francorekin... Ez genuen bitan pentsatu", esan du Kirol zinegotzi Ander Garayk.

Miren eta Justina Arenaza Azkoaga ahizpak eta Juanita eta Margarita Arenaza Velasco ahizpak izan ziren Arrasateko raketistak

## "Debuta egin behar nuen egunean damutu, eta ez nuen lehia jokatu"

**AMPARO ARENAZA VELASCO** RAKETISTA



MIREIA BIKUÑA

Juanita eta Margarita ahizpen antzera, Amparo ere raketista izateko puntuan egon zen. Bada, lehen partidua jokatu behar zuen egunean, damutu egin zen.

**Zer gertatu zitzaizun azken unean atzera egiteko?**

Azken unean beldurtu egin nintzen. Nire bi ahizpen partiduak harmailetan jarraitu nituen, eta han entzuten zirenak ez ziren gustagarriak. Emakumeen kontrako irainak, berba zakarrak...

**Azken pausoa ematea falta izan zitzaizun, orduan?**

Bai. Lehen partidua jokatzeko gona zuria neurrira egin zidaten, eta frontoiko kartelean nire debuta iragarrita zegoenean... damutu egin nintzen. Dena den, pena handiarekin geratu nintzen, raketisten inguruan zegoen giroa ikusgarria zen eta.

**Ze ezaugarri zituzten Juanitak eta Margaritak?**

Margaritak sake indartsua zuen eta gai zen 10-12 tanto sakez egiteko. Juanita atzelari indartsua zen. Bikote sendoa osatzen zuten.

**Raketista asko ezagutu zenituen; norekin geratuko zinateke?**

*Txikita de Anoeta* izan zen ikusgarriena. Irura eta Manolete aipatuko nituzke. Eta, noski, Vasquita I.a eta II.a lehengusinak ere bai.

## Dokumentala eta erakustaldia

Emakume raketisten bilduma ibiltaria osatu duen Jon Juanes da hilaren 23an, Kulturaten, 18:00etan, erakutsiko den ikus-entzunezkoaren egilea. "Bereziki, raketista izandakoen testigantzak jaso ditut. Euren esperientzia kontatu didate. Bizi izan zutena. Batzuetan, ona. Beste batzuetan, ez horrenbeste". Dokumentala Arrasaten emango dute lehenengoz. "Ohorea da guretzat", aipatu du Ander Garayk, Kirol zinegotziak.

Azkenik, erakustaldi partiduak jokatuko dituzte hilaren 28an, Uarkapen, 30 tantora. Garai batean egiten zen *Kiniela* jokoa ere egingo dute norgehiagokak hasi aurretik. Emakume raketisten lanaren aitortza borobiltzeko, haien senitartekoei omenaldia egingo diete, hilaren 28an.

## Eskiatzeko bost irteera egingo ditu Besaidek, martxora arte

Formigalera eta Alpeetara egingo dituzte. Azken hori Pazko astean izango da: martxoaren 31tik aurrera

**M.B.** ARRASATE

Kirol zuriaren inguruan dabiltzan guztiak zorioneko daude aurten. Elurra badago, eta, hori aprobetxatuz, Besaidek bost eski irteera egingo ditu, urtarriletik martxora arte. Lehena, aste bukaera honetan, Formigalera. Ostean, otsailean eta martxoan, aste bukaerako beste bi egingo dituzte: otsailaren 3an eta 4an eta 10ean eta 11n. Azken hori erraketekin eskiatzeko izango da. Bestalde, martxoaren 3an, egun bakarreko beste irteera bat egingo dute. Hori ere Formigalera.

Azkenik, eski irteera luzeena Pazko asterako utzi dute. Hain zuzen ere, martxoaren 31tik apirilaren 7ra egingo dutena, Alpeetara.

Horietako bateren baten parte hartu gura dutenek Besaideren bulegoan eman beharko dute izena, astelehenetan, martitzenetan eta eguaztenetan, 18:30etik 19:30era. Informazio gehiago dago *Besaide.org* helbidean.

## Liderraren bisitarekin hasiko du urtea Mondratek, bihar

Abenduaren 23an jokatu zuen azken lehia, baina entrenatzen indartsu ibili da Mondrate. Hori horrela, gogotsu daude jokalariak Mahastiak Labastida taldearen kontra jokatzeko (zapatua, Musakola, 17:30). "Azken hiru partiduak irabazi ditugu eta bolada on horrekin jarraitu gura dugu. Liderra da, bai. Baina lehiakorrak izan gura dugu kantxan", esan du taldeko jokalari Jonatan Rasok.

Liderraren ezaugarriei buruz galdetuta zera dio: "Talde indartsua da. Oso ona. Maila galdu duen taldea da. Bigarren B Mailan eta Hirugarren Mailan jokatu duten jokalariak ditu. Zaila izango da, baina guretzat oso garrantzitsuak dira puntuak, sailkapenean gora egiteko".

Izan ere, Mondrate hamargarren dago sailkapenean –hamahiru talde daude– bederatzi punturekin.

# "Polita da proiektuak lagunekin partekatzea"

**AITOR BARBADILLO 'BARBA'** CRAP TALDEKO BATERIA JOLEA

Bigarren diskoaren grabazioan murgildurik daude Crap musika taldekoak. Eta, gainera, hainbat musikariren kolaborazioa izan dute

**Iker Oñate** ARRASATE

Musika talde askok uzten dute aztarna gizartean. Eta euren abestiak disko batean biltzea erabakitzen dute batzuek. Bada, besteak beste, hori da Arrasateko eta Aretxabaletako musikariek sorturiko Crap taldearen kasua. Orain, bigarren lanarekin dihardute buru-belarri, kaleratu aurretiko fasean murgildurik; gaur-gaurkoz, grabatua dute diskoa, eta berorri forma ematen dihardute. Aukera aprobetxatuz, bada, horren inguruan jardun du Aitor Barbadillo *Barba*-k, taldeko bateria-joleak.


Crap taldeko kide Borja, Iker, *Jawer* eta Barba –eskuinekoa–. POLI KARPO

**Bigarren lana kaleratuko duzue. Zein puntutan zaudete?**

Orain, grabazio osteko fasean dihardugu. Bada, azaro aldera grabatu genuen diskoak bilduko duen abesti sorta, Bilboko Silver Recordings estudioan. Martin Guevararekin jardun dugu horretan; ezagun dugu, Capsulako taldekide da bera. Hain zuzen, hamar abesti grabatu ditugu, horietako bat Radio Birmand taldearen bertsioa; gainerakoak, gureak. Hizkuntzari gagozkiolarik, bestetik, ingelesez abesturikoak dira kantu guztiak. Oro har, esan dezakegu diskoa entzuten duenak 70eko hamarkadako punk-rocka izango duela entzungai, betiere, gure ukituekin. Doinu rockeroak ditu, tartean.

**Beraz, ez duzue aurreikusten diskoa berehala kaleratzea...**

Ez. Azken finean, diskoa kaleratu aurretiko prozesua ez da grabaziora mugatzen. Horrez aparte, gauza asko daude egiteko. Besteak beste, ekoiztetxeak bilatu, masterizatu eta azaleko irudia diseinatu behar dugu. Presa barik dihardugu, diskoa kaleratzeko presio barik. Gaurgaurkoz, hain zuzen, hainbat diskoetxerekin dihardugu harremanetan. Gainera, diskoaren izena ere erabaki barik dugu oraindik.

**Diskoetxea topatu aurretik grabatu duzue?**

Bai. Hala egiten dugu geuk. Lehenengo, proposamena aurkezten diegu, diskoa bera. Eta, behin hori eginda, horien esku dago gurekin lan egin gura duten erabakitzea. Hori, bada, ez dago gure esku.

**Ez da disko bat grabatzen duzuen lehen aldia...**

Hala da. Baina prozesu guztiak ez dira berdinak; oraingoak badu berezitasunik aurrekoarekin alderatuta: kantu gehiago daroatza. Alegia, aurreko lanean lau abesti grabatu genituen, eta, oraingo honetan, hamar. Beraz, luzeagoa eta konplexuagoa izan da grabazio prozesua. Kaleratzeke duguna disko osoagoa dela esan dezakegu, horrek dakarrenarekin. Hala, esan bezala, esperientzia berria da, hein batean.

**Eta aurrekoaren bide beretik segitzen du lan berriak?**

Oro har, baietz esan dezakegu. Agian, entzuleak topatuko du alderik; erritmoan, batez ere. Baina, esandakoa, ez du aparteko diferentziarik. Aukeratu ditugun jorragaiek ere bide beretik segitzen dute. Hain zuzen, bizitzako istorioetan oinarrituriko letrak leudeke erdigunean, salbuespenak salbuespen, gaurkotasunezko gai politikoetan eta halakoetan sartu barik.

**Letrak egitea ez da lan samurra izango...**

Egunaren araberakoa da hori. Hainbat bide daude letrak sortzeko. Batetik, baliteke taldekide bat kantu proposamen batekin iristea entsegura; orduan, guztion artean osatzen dugu bere proposamena, nork bere ekarpena eginez. Bestetik, badaude taldekideok elkarlanean hasi eta bukatu ditugun abestiak, lokalean egiten ditugunak. Eta, horiez gain, kolaborazioak ere izaten ditugu tartean. Azken lan honetan, esaterako, Marak –Agressive Combat taldeko kidea– jarri du bere aletxoa.

**Kolaborazioak izan dituzue, beraz.**

Hala da. Gustuko dugu gure egitasmoak lagunekin partekatzea; eta, horretarako, ez da hoberik grabazioan euren laguntza izatea baino. Zehatz esanda, Tupelokoren harmonika –Screamers and Sinners– eta Martin Guevararen gitarra zein marakak –Capsula– entzun daitezke diskoan; eta, horiez gain, hainbat lagunek sartu dute ahotsa: Agressive Combateko Marak eta Arkada Socialeko Hodeik eta Maguk. Finean, ederra da proiektuak ingurukoekin batera sortzea, euren laguntza izatea. Horrek balio erantsia ematen dio egiten dugunari, duda barik. Polita da hori.

**Bitartean, dena den, ez zaudete geldi.**

Kaleratu bitartean, gure martxan darraigu, kontzertutik kontzertura. Bihar –zapatua– Larrabetzun izango gara, esate baterako. Esan beharra dugu emanaldi horietan jada hasiak garela abesti berriak eskaintzen, zaharrekin batera; nahasketa moduko bat egiten dugu, finean. Diskoa kaleratzen dugunean iritsiko da kantu zerrenda guztiz aldatzeko unea: kantu berriak eskainiko ditugu, eta, horretarako, zahar ugari baztertu behar izango ditugu.

**Diskoa kaleratu ostean, aurkeztea dagokizue, ezta?**

Duda barik. Ea ezer berezirik egiterik dugun. Esandakoa, horren aurretik, gauza asko itxi behar ditugu. Beraz, itxarotea dagokigu. Ostera, aurreko urtean bideoklipa ere grabatu genuen, ingurukoen laguntzarekin. Ez litzateke gaizki egongo halako zerbait egitea. Baina, aurretik, baditugu eginbeharrak. Momentua iristen denean erabakiko dugu zer egin.

**"SALBUESPENAK SALBUESPEN, BIZITZARI BURUZ DIHARDUGU GEURE ABESTIETAN"**

## '40 minutu rock'-eko agertokian izango da Des-kontrol

Otsailaren 24ean eskainiko du kontzertua, Durangon. Egun osoan zehar izango dira musika emanaldiak

**I.O.** ARRASATE

Jada iragarri dituzte *40 minutu rock* musika jaialdian izango diren taldeak; euskal presoen eskubideen alde jardungo dute musikariek. Eta tartean da Des-kontrol talde arrasatearra. Otsailaren 24rako finkatu dute hitzordua, Durangoko Landako Gunean; 10:30ean hasiko da egun osoko kontzertu sorta.

"Hamazazpi kantu eskainiko ditugu. Ibilbidearen errepasoa modukoa izango da", azaldu du Oier Beitiak, taldeko gitarrajole eta abeslariak.

Des-kontrol itzuli da. Baina aukera gutxi daude Arrasatekoak taula gainean ikusteko."Kontzertu gutxi eskaintzeko asmoarekin itzuli ginen. Salbuespenak salbuespen, ez dugu urtean bi edo hiru kontzertu baino gehiago egin gura", argitu du Beitiak.

Bada, jada eskuragarri daude sarrerak, 16 eurotan –aurrez erosiz gero–. Eta Arrasaten bertan bada eskuratzeko aukerarik, Jai Zale tabernan.

## Kontzertu akustikoa izango da gaur Osorik tabernan

Asier Sala musikari arrasatearrak kontzertu berezia eskainiko du gaur, egubakoitza, Osorik tabernan; 22:30erako finkatu du hitzordua. Bere urtebetetze eguna ospatzeko aitzakiarekin, Salak emanaldi akustikoa eskainiko du, hainbat kolaboratzaileren laguntzarekin. Abesti propioez gain, askotariko bertsioak izango dira entzungai.

## Era askotako filmak izango dira ikusgai datozen egunetan

Ohi bezala, asteburuan ere izango da zinema emanaldirik Amaia antzokian. Batetik, *Wonder wheel* filma egongo da ikusgai: gaur –19:30 eta 22:00–, bihar –19:30– eta etzi –20:30–. Eta umeentzako ere egongo da emanaldirik: gaur eta bihar *Ferdinand* filma, 17:00etan. Bestetik, *Demasiado cerca* filma eskainiko dute martitzenean, 20:30ean hasita.



Atzo, eguena, zabaldu zuten Arabako sagardo denboraldia, Iturrieta sagardotegian. ENEKO AZURMENDI

# Txotx denboraldia abian da, "uzta bikainarekin"

Iturrieta sagardotegian egin dute Arabako 2018ko sagardotegi denboraldiko txotx irekiera, Arabako Sagar eta Sagardogile Elkarteak antolatuta; aurtengo sagar uzta "bikaina" izan da, sagardogileen arabera; Jon Zerainek egin du txotx irekiera

**Eneko Azurmendi** ARAMAIO

Atzo, eguena, egin zuten txotx irekiera, Iturrieta sagardotegian. Jon Zerain gasteiztarrak ireki du, eta gustura azaldu da Arabako Sagar eta Sagardogile Elkarteak berarekin izandako detailearengatik. Alberto Zerain mendizalea zenaren semea da. "Gauza polita da, eta pozik nago. Ondo iruditzen zait aita gogoan izatea eta halako aukerak ematea. Aitari egindako omenaldi txiki bat bezala hartzen dut, eta, alde horretatik, gustura nago", azaldu du Zerainek.

Aurtengo sagar uztari dagokionez, "bikaina" izan da, Iturrieta sagardotegiko arduradun Juanjo Peciñaren arabera. "Oso sagar osasuntsuak sartu ziren eta kalitatea bermatuta dago. Badirudi graduazio txikiagoa dutela aurtengoek, eta hori arriskutsua ere izan daiteke, errazago edaten delako, ura balitz bezala. Baina, kalitate aldetik, oso ona irten da. Gero, ikusi egin beharko da zein bilakaera izaten duen, produktu naturala da eta, inongo kimikarik gabea".

Kantitate aldetik ere uzta ezin hobea izan dela azpimarratu du Peciñak. "Inoiz baino sagar gehiago batu ditugu. Hogei urte daramatzagu sagarrondoekin eta ez dugu sekula jaso aurten beste sagar. Ikaragarria izan da, 50 tona inguru batu ditugu. Gainera, sagar kilo asko geratu dira zuhaitzetan eta lurrean, jaso barik edo erabili barik, eta pena hori da. Horrenbestez, zoragarria izan da aurtengo uzta, oso pozik gaude", azpimarratu du Peciñak.

Aurtengo sagarraren berezitasunei ere erreparatu die Iturrieta sagardotegiko arduradunak, eta azaldu du beste urteetakoak baino graduazio txikiagoa edukitzeaz gain, kolore aldetik argiagoa dela eta zapore "handia" duela.

**"HOGEI URTEAN EZ DUGU SEKULA JASO AURTEN BESTE SAGAR; 50 TONA INGURU BATU DITUGU"**

**Aurreikuspen onak**

Atzo abiatutako denboraldiari begira, aurreikuspen onak dituzte sagardotegian. Izan ere, dagoeneko eskari asko jaso dituztela dio Peciñak. "Egia esan, harrituta gaude. Denboraldia hasi aurretik erreserba asko egin ditugu, jendea gogotsu dagoela argi dago. Beraz, espero dugu mugimendua izatea eta jendea gustura egotea gurekin", nabarmendu du. Eurak ere gogoz daude denboraldiari behar bezala ekiteko. "Hilabete batzuk itxita eduki dugu sagardotegia, beste lan batzuk egiten aritu garelako, hasiera honetara ahalik eta modurik egokienenean iristeko. Beraz, orain, disfrutatzea dagokigu, bezeroei ahalik eta harrera onena eskainiz. Gogoz gaude", bukatu du sagardotegiko arduradunak.



ARAMAIOKO UDALA

## Zubietarako bidea, asfaltatuta

Bukatu dituzte Zubieta auzora igotzeko bidea asfaltatzeko lanak. Deialdia abuztuan argitaratu zuten, eta, dagokion esleipena egin ondoren, Firmes Alaveses enpresak egin ditu lanok. Ordaindu beharrekoa 63.829,92 euro izan da –BEZa barne–. Bestalde, Altzaga auzorako errepidea asfaltatzeko ere aprobetxatu dituzte lanok.



ARAMAIOKO UDALA

## Ostetan iturri berria jarriko dute

Saihesbide izkinan antzina zegoen iturria berreskuratuko dute. "Iturburu bat zegoen hor, baina lur-jausi batek tapatu zuen duela urte batzuk. Iturburu horretako ura oso preziatua zen herrian; beraz, ur hori behera bajatu genuen auzolanean, eta orain, iturria jarriko dugu", azaldu du Lierni Altuna alkateak. Datorren astean bukatzea aurreikusten du Udalak.

### 25 odol-emate egin dira azkenengo deialdian

Pasa den astean Arabako Odol Emaile elkarteko autobusa izan zen Aramaion, eta, elkarteak emandako datuen arabera, 25 pertsonak eman zuten odola, eta horietako bat berria izan zen. Elkartekoek balorazio positiboa egiten dute. Hala ere, gogorarazi dute "beharrezkoa" dela odola ematea, eta horretara animatu dituzte herritarrak.

### Ekintzaileendako programa abiatu du Lanbidek

Laguntzak bi motatako ekintzaileri zuzenduta daude: ekintzaileak izan daitezkeen pertsonei, haien enpresa-ideia garatzen laguntzeko –lau plaza– eta bideragarritasun plana eginda eta negozio ideia definitua duten ekintzaileei –hiru plaza–. Izena emateko, 945 43 01 67 telefonora deitu beharko da, otsailaren 2a baino lehen.




Pasa den zapatuan egin zuten Arabako Bertso Kuadrilla Arteko Txapelketaren aurkezpena, Gasteizen. ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

# Arabako Bertso Kuadrilla Arteko Txapelketa, abian

Aramaixoko Sobrak eta Ibabeko Bertaren Bilobak izango dira parte hartuko duten Aramaioko bi taldeak; lehenengoek gaur emango diote hasiera txapelketari, Egurra Salgai –Zalduondo– taldearen aurka, Zabolako elkarte gastronomikoan, 20:30ean

**Eneko Azurmendi** ARAMAIO

Pasa den zapatuan aurkeztu zuten txapelketa, Gasteizen, eta gaur, egubakoitza, jarriko da martxan. Guztira, 320 partehartzaile ariko dira, bi modalitatetan banatuta: batetik, batbateko modalitatea, jendaurrean inprobisatzen ohituta dauden horiei zuzendutakoa. Eta bestetik, idatzizkoa. Bigarren horretan, bertso-sortak sortuko dituzte taldeek eta saio bat dagoen egunean kantatuko dituzte paperarekin, jendearen aurrean. Gazte Asanbladak, Mintzalagun taldeak, lagun kuadrillak, bertso eskolako kideak, eta abar arituko dira modalitate horretan. Hori ez da txapelketa izango, ez da lehiarik egongo, eta gaia librea izango da.

Bat-bateko modalitatean hamalau talde ariko dira lehian; horietatik bi, Aramaioko Bertso Eskolakoak. Lehenengo taldea Aramaixoko Sobrak izenekoa da, eta honako hauek osatuko dute: Unai Etxenausia, Peru Abarrategi, Martin Abarrategi, Paula Amilburu, Aitor Ugarte, Beñat Burgi, Maria Izaga, Izar Elorza, Eider Ballina, Idoia Asurmendi, Amaia Arregia, Aldai Zalakain eta Beñat Zalakainek. Talde hori B ligan arituko da, ondorengo taldeekin batera: Egurra Salgai (Zalduondo), Kakiturri (Gasteiz) eta Errekaleor Birizik (Gasteiz).

Ibabeko Bertaren Bilobak taldea, berriz, honako hauek osatuko dute: Xabi Igoa, Manex Agirre, Andere Arriolabengoa, Iker Agirre, Lierni Altuna, Mikel Marto, Gillen Agirre, Txomin Elorza, Amaia Arregi, Mailen Ballina eta Iker Elexpuruk. Talde hori D ligan arituko da, Mendialdeko Mitxarroak eta Alfredo (Aiaraldea) taldeekin batera.

**ARAMAIOKO BERTSO ESKOLAK LAU TALDE IZANGO DITU, GUZTIRA: BI BAT-BATEKOAN ETA BESTE BI IDATZIZKOAN**

Idatzizko modalitatean ere Aramaioko bi talde izango dira: Gazte Asanblada eta herrian kantuan ibiltzen den lagun talde bat.

### Txapelketa formatua

Hamalau taldeak lau ligatan banatuko dira eta talde bakoitzak etxean saio bat antolatu beharko du, tokatzen zaion taldearen aurka. Ligaren barruan sailkapen bat sortuko da, epaimahaiak emandako puntuazioarekin. Lau irabazleek eta puntuazio handiena duten beste bi taldek –bigarren sailkatuak– finalaurrekoak jokatuko dituzte –guztira, sei talde– eta ondoren jokatuko diren hiru finalerdietako bat Sastiñan izango da, martxoaren 3an. Irabazleek finala jokatuko dute Gasteizen, martxoaren 17an.

Ibabeko Bertaren Bilobak taldeak hilaren 26an ekingo dio txapelketari, Marixekan, Alfredo (Aiaraldea) taldearen aurka.



AHTaren lanek "kalte larriak" eragin dituzte, EH Bilduren arabera. ARABAKO EH BILDU

# "10 urte pasatu dira dagoeneko eta egiteko asko dago oraindik"

AHTaren lanek Aramaion eragindako kalte "larriak" salatu ditu EH Bilduk; alkatea Batzar Nagusietan izango da gaur

**E.A.** ARAMAIO

EH Bilduk AHTaren lanek Aramaion eragindako kalteak eta arazo "larriak" salatu ditu. "Zerrenda luzea da; izan ere, 2008a ezkero lur-jausiak gertatu dira, irteera gabe utzi dituzte hainbat lursail, desjabetzeak eguneratu gabe daude eta bertako herritarrek gehiago ordaindu behar dute zergetan eta hainbat bide eta errepide guztiz suntsituta daude. 2010ean lur-jausi oso larri baten ostean, errepide nagusia itxita egon zen 18 hilabetez eta bigarren mailako beste errepide eta landa bideak erabili ziren Arrasaterako bidean. Bide hauek guztiak erabat suntsituta daude gaur egun, eta, konpontzeko konpromisoa hartu zuten arren, ez da ezer egin azken urteotan", adierazi du koalizio abertzaleak prentsa-ohar batean.

### Alkatea, Gasteizera

EH Bilduk eskatuta, Lierni Altuna alkatea Arabako Batzar Nagusietan agerraldia egingo du. "Bizi izan dugunaren eta egungo egoeraren berri ematera noa", azaldu du. ADIFeko arduradunei ere egin die eskaera EH Bilduk, baina ez dute erantzun.



NIRE USTEZ

**LEIRE ELEJALDE**

## Aspergarria, aiherga

"Zatoz, nire logela erakutsiko dizut; pixka bat desordenatua dago, baina tira...". Hori esan nion lehengusinari aurreneko aldiz etxera etorri zenean. "Desordenatua dago", atea zabaldu aurretik.

Pantanora heldu eta arropa erantsi baino lehen, "gaur ez naiz depilatu", esan zuen lagunak. Arropa motxilan sartu zuen ondoren. Prebenitu nahi gintuen. Zerengandik? Haren ile hala nolakoek jan egingo gintuztela pentsatu al zuen? Lehengusina nire logelako arropa nahasien artean galduko zela uste al nuen?

Ingurukoak babesteko egiten dugula deritzogu, lehenago abisatuz harrituko ez direlakoan; epaituko ez gaituztelakoan, honen beldur baikara. Perfekzioaren bila gabiltza, horrek zentzua izango balu bezala.

Perfektu: "Hutsik, akatsik gabea, hobetzerik ez dagoena".

Perfektu izan nahi al dugu? Hobeezina? Aspergarria. Akatsik gabea? Aiherga. Oker gabiltza, perfekzioa bakoitzaren inperfekzioen harrera eta onarpena da. Perfekzioa gimnasia osteko klasera "desodorantea ahaztu zait" esan gabe sartzea da.



Hainbat lagun kakorratz-lanak egiten astelehenean, Iralabarri plazako lokalean. MIRARI ALTUBE

# Ikastaroak, harremanak estutzeko aitzakia

Gu Haziak Gara elkarteak hainbat konturen gaineko ikastaroak eskaini dizkie asteotan herritarrei: kakorratz eta puntua, joskintza eta ortu ekologikoak. Oinarrizko saioak egingo dituzte, adituek gidatuta, eta helburuetako bat elkar ezagutzea da

**Mirari Altube** ARETXABALETA
Gizarteratzea eta ekintzailetza sustatzea helburu dituen Gu Haziak Gara elkarte aretxabaletarrak hainbat ikastaro antolatu ditu datozen egunetarako. "Jakintza partekatzea eta herritarren arteko harremanak estutzea da helburua", dio elkarteko ordezkari Paloma Martinezek. Horretarako antolatu dituzte joskintza ikastaroa eta ortu ekologikoaren gaineko saioak, eta kakorratz-lanak egiten dituen taldea ere abian da.

### Josten ikasteko saioak

Urteak daramatzate elkarteko kideek joskintza lanetan. "Hasieran, goizetan elkartzen ginen, baina orduan, batez ere, etorkinak zetozen. Ondoren, arratsaldeetan hasi ginen eskaintzen saioak eta bertan jaiotakoak bakarrik gerturatzen ziren. Hortaz, beste formula bat bilatze aldera, taldeak nahasteko hiru bat saioko ikastaroak egitea pentsatu dugu". Ane Garai irakasleak oinarrizko kontuak irakatsiko dizkie: josteko makina zelan erabili, praka barrenak hartu... "Irakasleak hainbat laguntzaile izango ditu, Gu Haziak Gara taldeko kideak, harreman berriak sortzeko ahaleginetan", dio. Urtarrilaren 29an, 30ean eta 31n egingo dituzte saioak (15:00-17:00), eta izena emateko epea zabalik dago.

### Kakorratz-lanetarako taldea

Kakorratz eta puntu-lanak egiten ere ez dira orain hasi. "2016ko udazkenaz geroztik elkartzen gara talde bat, eta egindako lanen fruituak ikusgai daude han eta hemen; Aretxabaletan bi zuhaitz ditugu apainduta, eta Eskoriatzan, hiru. Azken horietan Eskoriatzako erretiratuek egindako lanekin osatu genituen gureak". Astelehen guztietan elkartzen da talde hori (17:00-19:00) eta ateak beti dituzte zabalik Iralabarri plazako lokalean. "Ez dago izenik eman beharrik, ez dago saio guztietara etorri beharrik. Elkartzen garenok jarduten dugu lanean, eta bakoitzak dakiena partekatu. Gainera, umeak ere ondoetorriak dira, eta lasai asko egon daitezke gurekin lanean gabiltzan bitartean".

**KAKORRATZ ETA PUNTU-LANAK EGITEN DITUEN TALDEA ASTELEHENERO ELKARTZEN DA**

Oinarrizko kontuak ikasten hasi ziren, eta orain, ume-jaioberriendako txanoak egiten dihardute: "Alemaniako lagun batek eman zigun ideia eta txano horiek Arrasateko ospitalean erabil ditzaten eskaini ditugu. Haien erantzunaren zain gaude".

### Ortu ekologikoa bultzatzen

Gu Haziak Gara elkarteak ortua ere badu; Oro auzoan, hain zuzen. "Lau bat laguneko taldetxoak daroa hori, baina inor gehiago ez zaigu gerturatu, horregatik, ikastaro bat deitzea pentsatu dugu". Ortu ekologikoetan lursailak zelan gertatu irakatsiko du Zuriñe Peralesek bi saiotan; urtarrilaren 26an (17:00-18:30) argibideak emango ditu, eta 27an (10:00-12:00) praktika lanak egingo dituzte.

Joskintzan jarduteko eta ortu ekologikoaren gaineko saioetarako izen-ematea zabalik dago; hona bideak: *guhaziakgara@gmail.com* eta 688 62 37 18. Prezioa 10 euro da eta langabeek debalde izango dute.



Ekarpenen kutxa, Arkupen. M.A.

## Proposamenak jasotzeko azken eguna

Kurtzebarri eskolaren aurrealdea margotzeko prozesua abiarazi du asteotan Gu Haziak Gara elkarteak. Lau bat urtetako proiektua izango da, eta mural hori herritarren parte hartzearekin egin gura dute. Lehen pausoa izan da gaia aukeratzeko herritarrei proposamenak eskatzea: "Zerk kezkatzen gaitu? Zer dugu gustuko? Zerk alaitzen gaitu?… Bota zure ideia kutxara", diote. Kutxa horiek gune hauetan daude: Arkupen, Kurtzebarri eskolan, udaletxe zaharrean eta Udal Euskaltegian. Azken eguna gaur da, hilak 19.

Prozesu hori bideratzeko, gainera, hogei laguneko taldea osatu gura dute. Interesatuendako bideak: *guhaziakgara@gmail.com* eta 688 62 37 18.




Kartel irabazlea. ITSASO DIEGO

## Itsaso Diegoren irudia Aratusteak iragartzeko

Zazpi lanen artetik hautatu du epaimahaiak Arrasateko gazteak egindakoa

**Martin Perez** ARETXABALETA
Txino dantza dantzatuko duen kintoa erakutsiko du Aratusteetako egitarauak. Zazpi lan aurkeztu dira aurtengo lehiaketara, eta Itsaso Diegok, 24 urteko arrasatearrak, egindakoa hautatu du epaimahaiak. Iaz Arrasateko Aratusteen kartel lehiaketa irabazi zuen horrek.

Diegok Publizitate eta Diseinu Grafiko ikasketak egin zituen, eta hortik datorkio kartelak egiteko afizioa. Horrez gain, eskuorriak ere egiten ditu. Aretxabaletako kartela egiteko ideia asko zituen, baina txino dantza dantzatzen ari den pertsona irudikatzea erabaki zuen. "Tradizioz, txino dantzak garrantzi berezia dauka Aretxabaletako Aratusteetan, eta hori izan da kartel hau egitearen arrazoi nagusia. Testuari dagokionez, derrigorrezkoa zen testua jarri dut", dio. 200 euro irabazi ditu Itsaso Diegok.

### Bazkarirako txartelak, salduta

Aratuste-domekako bazkarirako txartelak joan den zapatuan jarri zituen salgai Kultura Sailak. Arkupeko harrera zabaldu baino ordu pare bat lehenago joan ziren herritar asko, eta 600 txartelak ordu erdian salduta zeudela iragarri zuen Txapel Txinek.

# Dokumentalak ikusgai, berbaldiez lagunduta

Hilero dokumental bat eta gaiarekin zerikusia duen hitzaldi bat eskainiko dituzte 'Loramendi dokumentaldia' izeneko egitasmoaren barruan. Hasteko, 'Gutik zura' dokumentalaren proiekzioa eta Jon Maiaren hitzaldia izango dira urtarrilaren 25ean

**Imanol Beloki** ARETXABALETA

Aretxabaletako Udalak eta Loramendi Elkarteak elkarlanean, *Loramendi dokumentaldia* izeneko egitasmoa jarriko dute martxan urtarrilaren 25etik aurrera. Hainbat helbururekin antolatu duten ekimena da: jendea erakarriko duen dokumental sorta eskaintzea, gaietan sakontzeko aukera izatea dokumentalarekin zerikusia duen jendearekin batera, gai ezberdinak ukitzea… Hala, urtarriletik uztailera bitartean, hilero dokumentalak hitzaldiekin lagunduta izango dira ikusgai, udaletxe zaharreko gela sozialean, eguenetan, arratsaldeko sei eta erdietan.

Iaz, hitzaldi ziklo bat prestatu zuen Loramendi elkarteak, eta aurten ibilbide horri jarraipena eman nahi izan diote, beste pizgarri batekin. Honela azaldu du Martin Berrizbeitiak, Loramendi elkarteko kideak: "Pil-pilean dauden gaiekin hitzaldi zikloa antolatu dugu datozen hilabetetarako, baina beste ukitu batekin. Batetik, dokumentalen proiekzioak izango dira, eta, horretan geratu beharrean, ikus-entzunezkoan jorratu den gaia aztertzeko aprobetxatuko dugu".



*Gutik zura* dokumentalaren fotograma bat. 'ZURA.EUS'

### Gizakia eta zura

Egitasmoari hasiera emateko, urtarrilaren 25ean, 18:30ean, basoaren, zuraren eta euskal gizartearen arteko harremanek izan duten, gaur egun duten eta izango duten balioa gizarteratzea helburu duen *Gutik zura* dokumentalaren proiekzioa izango da udaletxe zaharrean, eta, horrekin batera, Jon Maia dokumentalaren zuzendariak hitzaldia eskainiko du, dokumentalean ikusitakoak aztertzeko eta gaian sakontzeko.

Euskal Herriaren idiosinkrasian basoa eta zurezko zimenduak daude. Dokumental horretan, antzinatetik etorkizunerako bidaia egingo da, lur honetako gizakiaren eta zuraren arteko harremana azalduz. Dokumentaleko protagonisten bizi-esperientzia pertsonala eta mundu mailako adituen esanak batuz, historia eta istorio konbinaketa poliedriko baten bidez, lehengo, oraingo eta etorkizuneko basoen eta zuraren gako nagusiak azalduko dira.

### Herritarrei deia

Dokumentalen proiekzioak, eta horiekin batera uztartuko diren hitzaldiak, udaletxe zaharrean izango dira, eta sarrera doakoa izango da. Hala, Loramendi Elkarteko kideek herritarrak animatu nahi dituzte pil-pilean dauden gaien inguruko dokumentalak ikustera, eta horien azterketara hurbiltzera.

## 'Loramendi dokumentaldia'

- **Urtarrilak 25:** Gutik zura. Jon Maiarekin.
- **Martxoak 15:** Urzulo. Aloña mendi espeleologia taldearekin.
- **Apirilak 26**: Dominika film laburra eta Akabuko Mertxea dokumentala. Fredi Paiarekin eta Aitor Gisasolarekin.
- **Maiatzak 31**: Kurdistan begiratuz. Handik itzuli berria izango den mediku taldearekin.
- **Uztailak 5:** Gure kabuz ala hil. Ez dago zehaztuta zeinek egingo duen hitzaldia.

# "Yoga eta ipuinak uztartzea lagungarria da haurrentzat"

**MAITE ARRESE** YOGA IRAKASLEA ETA IPUIN KONTALARIA

'Yogipuinak' izeneko saioa eskainiko du bihar, Arkupen

**I.B** ARETXABALETA

Zapatu honetan, 11:30ean hasita, Maite Arrese ipuin kontalariak *Yogipuinak* izeneko saioa eskainiko du Arkupeko haur liburutegian, 5 eta 10 urte bitarteko haurrendako.



Maite Arrese. MAITE ARRESE

**Yogipuinak saioan zer eskainiko duzu?**

Yoga eta ipuinak batzen dituen saioa izango da. Hasieran, bi ipuin kontatuko ditut, ditugun desioak kontatzen dituena, gure barrura egitearen garrantzia azpimarratuz. Hirugarren ipuina, berriz, haserrearen ingurukoa izango da. Beti haserre bizi zen errege baten istorioa kontatuko dut… Amaieran, aldiz, erlaxazio pixka bat egingo dugu.

**Saio berezia; nola otu zitzaizun?**

Yoga irakaslea naiz, eta azkeneko urteetan ipuinak kontatzen aritu naiz. Zerbait ezberdina egin nahi nuen, bereizteko beste era bat zen. Hain zuzen ere, biak elkartuz gurasoak eta haurrak batzeko saio berezi bat egin nahi nuen.

**Zein helburu du saio horrek?**

*Yoga* hitzak *batasuna* esan nahi du. Ipuinen bitartez yogako asana (jarrera) desberdinak egingo ditugu: arnasketa gogoan hartuz, emozio ezberdinei erreparatuz eta, nola ez, muskuluak eta artikulazioak landuz.

**Yoga eta ipuinak ondo uztartzen al dituzte umeek?**

Yoga nagusiekin eta umeekin desberdin landu behar da. Umeek, askotan, ez dakite lasai egoten, eta, horretarako, begiak ixten ditugu, ipuinak kontatuz ere lasaitzen dira… Yoga nork bere burua ondo ezagutzeko tresna bat da, ezta soilik gimnasia egitea, eta umeek dena ikasten dute, ipuinak eta yoga uztartzea lagungarria da eurentzat.

## Jaiki elkarteak dantza ikastaroa antolatu du

Ikasturte honetarako dantza ikastaroa antolatu du, aurten ere, Jaiki elkarteak. Zuriñe Benaventek emango ditu dantza garaikide eskolak, eta martitzenetan 18:30etik 20:30era bitartean emango dira, kuartel zaharreko eraikinean.

Izena emateko, 688 81 96 65 telefonora deitu edo *jaikielkartea@yahoo.es* helbidera idatzi beharko da, eta ikastaroaren prezioa, hiru hilabeteko, 80 eurokoa izango da langileentzat eta 70 eurokoa gainontzekoentzat. Bertaratzen denak gorputzaren eta mugimenduaren bidez entzumena eta bakoitzaren beharrak landuko ditu, gorputzarekin komunikatzeko.

## Aratusteetarako prestatzeko makillaje ikastaroa izango da

Loramendi elkarteak Aratusteetarako makillaje ikastaroa antolatu du. Urtarrilaren 30ean izango da, 18:30ean, udaletxe zaharrean, eta izena emateko azken eguna urtarrilaren 26a izango da.

Gemes irudi aholkularitzakoak izango dira irakasle lanetan, eta mozorroak eramatea gomendatu dute, horien arabera moldatu ahal izateko. Loramendiko bazkideek sei euro ordaindu beharko dituzte tailerrerako eta gainontzekoek, berriz, hamar euro. Hala, izena emateko, udaletxe zaharrera joan, 685 75 67 29 telefonora deitu edo *euskara@loramendielkartea.eus* helbidera idatzi daiteke.



Maria Jesus Revuelta eta taldeko kide bat barazkiak jasotzen. MIRARI ALTUBE

# Kontsumo taldeak osasuntsu jarraitzen du

Hogei bat lagunek osatzen dute Aretxabaletako taldea eta martitzen iluntze guztietan jasotzen dituzte Maria Jesus Revueltak Eskoriatzako Eraña auzoan duen ortu ekologikoko barazkiak eta Etxezuri baserrian egindako ogia

**Mirari Altube** ARETXABALETA
Basherri kontsumo taldea 2011ko apiril inguruan sortu zuten hainbat herritarrek Aretxabaletan, eta lehenengo otarreak irailean jaso zituzten. Ordutik hona, martitzen iluntze guztietan (19:00) jasotzen dituzte Maria Jesus Revueltaren ortuko barazkiak eta Etxezuri baserriko ogia.

**Asia aldeko produktuak**
Joan-etorri handia izan da taldean sei urteotan, baina badira hasiera-hasieratik daudenak. "Orain baino gutxiago zeuden orduan. Gaur egun, hogei bat lagun daude, batzuek otarre handiak jasotzen dituzte eta beste batzuek txikiak", jakinarazi du Revueltak, eta pozik agertu da taldeak izan duen bilakaerarekin.

Eskoriatzako Eraña auzoan duen ortu ekologikoaren jarduna ere aldatuaz joan da sei urteotan. Betiko produktuekin batera, ezezagunagoak direnak ere landatzen ditu, probatzearren: "Asia aldetik etorri direnak, adibidez: *pak choi*, Asiako zerba mota bat; *kale*…", dio Revueltak, eta gaineratu du: "Jendeak pozik hartu ditu mota berri horiek, eta prestatzeko oso samurrak dira, gainera". Negu partean barazki gutxiago izango den ustea egon arren, ez da zuzena: "Otarreetan dakartzagu porruak, aza mota guztiak, eskarolak, patatak, tipulak, kalabazak eta espinakak, oraindik txiki samarrak badira ere".

Beste herri batzuetako kontsumo taldeekin harremana dute eta kezkak partekatzen dituzte horiekin: "Barazki berri bat landatzerakoan, adibidez, zein prezio jarri adosteko. Eta soberan ditugun produktuak trukatu izan ditugu geure artean".

**KIDE GEHIAGORENTZAT LEKUA DUTE TALDEAN; INTERESATUEK BANAKETA-GUNERA JO DEZAKETE**

**Etxezuriko ogi ekologikoa**
Galartza auzoko Etxezuri baserrikoek, ostera, ogia eskaintzen diete taldekideei, ogi ekologikoa. "Meritu handia dute sei urteotan hutsik egin barik martitzen guztietan agertzea produktuak jasotzen. Gu oso gustura gaude ekimenarekin, eta jarraitzeko gertu", jakinarazi dute.

**Taldea, zabalik**
Revueltaren esanetan, ortuak ematen du beste sei edo hamar lagun gehiagorendako uzta. Hortaz, pozik hartuko lituzkete kide gehiago bai horrek, bai gainerako kideek. Interesa dutenak edozein martitzenetan (19:00) gertura daitezke Andre Mariaren Zeruratze parrokiaren aurrealdera, eta argibide guztiak emango dizkiete han.

Revueltak uste du herritarrek eskertzen dituztela bertako eta sasoiko produktu ekologikoak: "Gero eta gehiago. Horien usaina, zaporea… Ez dute besteekin zerikusirik!"

## Basotxoko erretiratuek bi irteera antolatu dituzte

Urtarrilaren 26an Gasteizera joango dira eta otsailaren 13an Tolosara, Aratuste-martitzeneko giroa ezagutzera

**M.A.** ARETXABALETA
Basotxo erretiratuen elkarteko kideak hasi dira urte berriko egitaraua osatzen. Bi irteera iragarri dituzte datozen asteetarako, eta izena emateko epeak zabalik daude. Horretarako eta argibide gehiago eskatzeko, Errekabarren kaleko egoitzatik pasa daitezke bazkideak goizetan (11:00-12:00).

**Historia kontuak eta jai giroa**
Gasteizko alde zaharra bisitatzera joango dira urtarrilaren 26an, egubakoitza, eta Aurora Etxean bazkalduko dute gero. Arratsaldean, ostera, norberak gura duena egin ahal izango du Arabako hiriburuan. 09:00etan irten eta 19:30ean itzuliko dira.

Otsailaren 13an, Aratuste-martitzena, ostera Tolosako jai giroan murgilduko dira: "Urteroko bisita da eta aurten ere ez dugu hutsik egin gura", adierazi dute. Urnietako Oianume sagardotegian bazkalduko dute gero eta dantzaldia ere egongo dela iragarri dute. Egun horretan, 10:30ean irten eta 19:00etan itzuliko dira etxera.



M.A.

## Astroen gaineko argazkiak

Aranzadi Zientzia Elkartearen astro-argazkigintza erakusketa dago Arkupen martitzenaz geroztik. Espazioan eta denboran bidaiatzeko erakusketa dela iragarri dute: "Eguzki sistematik hasiko gara, astroak jaio eta hiltzen diren nebulosan sartu, eta, azkenik, Esne Bidearen antza duten urrutiko galaxietan bukatuko dugu". Hilabete osoan izango da zabalik.

## Danbor hotsak gaur Kurtzebarri eskolan eta Pausokan

San Sebastian egunaren bezperan, gaur, urtarrilak 19, danborrak astinduko dituzte Aretxabaletako neska-mutikoek. Kurtzebarri eskolako 2 eta 8 urte arteko umeak, 200 inguru, 15:30 aldera elkartuko dira Herriko Plazan –eguraldi txarra bada, Iturrigorri pilotalekuan–. Sarriegiren doinuak eskainiko dizkiete gurasoei eta lagunei.

Pausoka haur eskolako txikiak ere buru-belarri ibili dira entseguetan azken asteotan, eta gaur, 11:00etan, gurasoen aurrean astinduko dituzte danborrak; eskolako patioan elkartuko dira horiek.

Arizmendi Ikastolako Basabeazpi guneko neska-mutikoek, ostera, Santa Ageda bezpera ospatuko dute otsailaren 4an, domekan. Iaz egindako legez, ikasleak eta irakasleak gurasoekin batera irtengo dira kalerik kale kantuan eta eskean.



Autobusa erdiguneko autobus geltokira iristen. IMANOL BELOKI

# Autobusak Jose Aranatik, kalea itxita egonda ere

Jose Arana kalea koexistentziako gune bilakatuko da, Santa Anako biribilgunean autobusekin sortzen diren arazoengatik. Hau da, oinezkoentzat kalea ixten bada ere, autobusak bertatik pasatuko dira, urrutiko aginte bidez pibotea irekita

**Imanol Beloki** ESKORIATZA
Lurraldebus zerbitzuak hainbat aldaketa izan ditu ordutegiari, lineen maiztasunari eta ibilbideei dagokienez. Hala, Eskoriatzan moldaketak izango dira; datozen asteetan gauzatuko dira.

Eskoriatzan, aurreko legealdian, Jose Arana kalea zirkulazioarentzako itxi egin zuten ordu jakin batzuetan, oinezkoek lehentasuna izan zezaten. Autobusak, handik pasatu beharrean, Santa Anako biribilgunean buelta ematen izan dira ordutik hona, eta, aldaketa horren eraginez, hainbat arazo izan dira. "Autoeskola aldera ematen duen espaloi zatian dagoen hesia hamabi aldiz hautsia izan da bi urtean, eta, batzuetan aseguruak ordaindu arren, beste hainbatetan Udalaren kargu geratu da konponketaren gastua. Bestalde, autobus batzuek maniobra bat baino gehiago egin behar izaten dute biribilgunean buelta emateko, eta atzeraka doazenean egiten duten zaratak ere herritarren kexak eragin ditu", adierazi du Josu Ezkurdiak, Mugikortasun eta Hirigintzako batzordeburuak.

Horrekin batera, linea zirkularren sinplifikazioa izan da bailaran, eta lehen Eskoriatzako estazio zaharrean zain geratzen ziren autobusak gaur egun Eskoriatzako Akeitako geltokian egoten dira. Hala, hainbat autobus batzen dira erdigunean, ordu jakin batzuetan, eta horrek zirkulazioan ere eragiten du. "Autobus zerbitzuen kontua, Diputazioaren konpetentzia da, uste dugu zerbitzu egokia egiten ari direla, baina Eskoriatzan hainbat aldaketa egin behar ditugula uste dugu; ea onerako diren".

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK EGINDAKO PROPOSAMENA ONARTU DU UDALAK**

### Arana, koexistentziako gune

Autobusekin sortu diren kexak konpondu nahian, autobusak Jose Arana kaletik pasatzeko proposamena egin zion Gipuzkoako Diputazioak Eskoriatzako Udalari, eta, abenduan egindako Hirigintza eta Mugikortasun batzordetik pasa ondoren, aldaketa egitea erabaki dute. "Jose Arana kaleak itxita eta oinezkoentzat izaten jarraituko duen arren, autobusak ere bertatik pasako dira. Horretarako, urrutiko aginteak banatuko dizkiegu sei unitatetako autobus gidariei. Ikusiko dugu ea funtzionatzen duen; gero, ikusi beharko dugu koexistentziako gunea mantendu edo lehengo modura bueltatu".

### Aldaketaren eraginak

Autobusak, goitik behera doanean, Jose Aranara heltzean, geratu egin beharko du, pibotea jaitsi arte, eta, poliki pasako dela bermatu arren, autobusek denbora pixka bat galduko dute aldaketa horrekin.

## Aratusteetako desfilerako eta lehiaketetarako bilera irekia

Bilera astelehenean egingo da; herri bazkarirako txartelak aste bukaeran hasiko dira saltzen

**I.B** ESKORIATZA
Eskoriatzako Inauteriak ate joka datoz, eta aurten, egun handia otsailaren 10ean, zapatuan, izango da. Egun horretan, Inauterietako mozorro lehiaketa eta desfilea egingo dira, besteak beste, azken urteotan moduan, eta, hori fintzeko, datorren astelehenean bilera irekia izango da Eskoriatzako kultura etxeko lehenengo solairuan, 19:00etan.

Urtero aldaketak izan ditu mozorro desfileak, eta azken urteotan ikusmin handiagoa piztu du herritarrengan; gainera, bertan parte hartzen duen talde kopurua gorantz doa. Hala, gauzak hobetze aldera, herritarrek espero eta nahi dutenari ahal den neurrian erantzuteko, Eskoriatzako Udalak bilera irekia deitu du astelehenerako.

### Antolaketa plana

Udalak antolatutako bilera ireki horretan, mozorro desfilearen antolaketa eta lehiaketako oinarriak zehaztuko dira batzen diren guztien artean. Antolaketan, hain zuzen ere, desfilearen ibilbidea, hasiera ordua, parte hartzaileen hurrenkera, eta abar zehaztuko dira. Lehiaketaren oinarrietan, berriz, zenbat kategoria izango diren, zenbat sari, balorazio irizpideak zeintzuk izango diren, epaimahaikideak, eta abar zehaztuko dituzte, besteak beste.

### Herri bazkarirako txartelak

Aratuste-zapatuko herri bazkarirako txartelak aste bukaera honetan hasiko dira saltzen, zenbat pertsona bertaratuko diren lehenbailehen aurreikusteko. Goxotxikin eta Inkernu tabernan izango dituzte herritarrek salgai.

Otsailaren 10ean Joseba Iñurrategi pilotalekuan egingo da bazkaria, urtero moduan, eta 14:30ean hasiko da. Bi menu egongo dira: bata, helduentzako izango dena, 16 eurotan, eta bestea, haurrentzakoa, 11 eurotan. Helduentzako menuak honako hauek izango ditu: patatak errioxar erara, txahal gisatua, San Markos tarta, edatekoa, kafea eta txupitoa. Haurrentzakoak, berriz: makarroiak txorizoarekin, oilasko-izterra txip-patatekin, natillak, ura eta freskagarriak.



I.B

## Josteko makina erabiltzen ikasi dute

Astelehenean tailerra izan zen kultura etxean, josteko makina erabiltzen ikasteko. Bertan, hainbat lagun batu ziren, eta josteko makinaren gaineko oinarrizko kontzeptuez gain, hastapeneko ikastaroa izan zuten. Abiadura kontrolatu, ertzak josi, puntadaren doikuntzak, botoiak nola josi, prakabarrenak nola hartu… Denetarik egiten ikasi zuten.



Haurrak mikroskopiotik begira mikrometeoritoen tailerrean. VIRGINIA GARCIA

# Mikrometeoritoen mundua ezagutu guran

Haurrentzako astronomia tailerra izango da domeka honetan, Eskoriatzako kultura etxean, 18:00etan. Zehazki, mikrometeoritoen gaia jorratuko dute bertaratzen direnek Aranzadi Zientzia Elkarteko astronomo Virginia Garciaren eskutik

**Imanol Beloki** ESKORIATZA
Eskoriatzako Udalaren Kultura Departamentuak antolatuta, astronomia tailerra izango da domeka honetan 8 eta 13 urte bitarteko haurrentzat. Zehazki, mikrometeoritoen gaia landuko dute bertaratzen diren haurrek, Aranzadi Zientzia Elkarteko Virginia Garcia astronomoaren eskutik.

Tailerra 18:00etatik 20:00etara bitartean izango da, eta kontzeptu edo fenomeno astronomikoak ulertzen laguntzeko eta gazteen jakin-mina eta zientziarekiko interesa pizteko helburuarekin antolatu dute ikastaroa.

### Meteoritoen gainekoak

Tailerra emango duen Virginia Garciak azaldu duenez, tailerraren helburua meteoritoak ezagutzea izango da, horiek identifikatu eta bereiztea: "Galdera hauei erantzunak emango dizkiegu: *Zergatik desagertu ziren dinosauroak? Zer dira izar euriak? Zein da meteorito, meteoro eta meteoroideren arteko desberdintasuna? Non aurkitu ditzakegu mikrometeoritoak?...*".

### Mikrometeoritoak aztergai

Mikrometeoritoak edonon ikus daitezke. Espaziotik erortzen diren materialak dira, atmosferan sartzean desegiten ez direnak. "Tailer honetan, umeek mikrometeoritoak bilatuko dituzte, eta gero, mikroskopioarekin ikusi ahal izango ditugu. Hala ere, Aranzadik bilatutako batzuk eramango ditut, imanen bidez partikula metalikoak baztertu eta mikroskopioarekin ikusteko. Partikula metalikoak dituztenak herrian bertan ere bilatu ditzakegu, horiek baitira bilatzeko errazenak...".

**ASTRONOMIAREN GAINEKO TAILERRAK HILERO EGINGO DIRA ESKORIATZAKO KULTURA ETXEAN**

### Plaza guztiak beteta

Astronomiaren inguruko mikrometeoritoen tailer horretarako plaza guztiak beteta daude dagoeneko; guztira, hogei haur izango dira bertan. Hala ere, aurrera begira astronomiaren inguruko tailerrekin jarraituko dutela adierazi du Arantxa Unzuetak, Kultura teknikariak: "Gure asmoa da hilero astronomiaren inguruko tailer ezberdin bat antolatzea. Mikrometeoritoen lehenengo tailer honetarako plaza guztiak beteta arrakastatsua izatea espero dugu, eta haurren gustukoa izatea. Hala, otsailean beste tailer bat ere prestatuko dugu, astronomiaren bueltan izango dena".

### Izen-ematea kultura etxean

Datozen tailerretarako izena denboraz emateko eskatu dute kultura etxeko arduradunek, plazak mugatuak direlako. Hala, izena 943 71 46 88 telefonora deituta edo kultura etxera joanda egin daiteke.

## Sansebastianak ospatuko dituzte gaur Eskoriatzako haurrek

15:45ean danborrada egingo dute Luis Ezeizako umeek, patioan; giro txarra bada, berriz, pilotalekuan

**I.B** ESKORIATZA
Urtero bezala, San Sebastian eguna ospatuko dute Luis Ezeiza Herri Eskolako haurrek, eta gaur izango da hori, 15:45ean, patioan.

Eguna ospatzeko, danborrada egingo dute, eta Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lau mailetako haurrek hainbat pieza joko dituzte danborrekin. Eguraldiak laguntzen badu, ekitaldia Luis Ezeizako patioan izango da eta eguraldi txarra egiten badu, aldiz, Joseba Iñurrategi pilotalekuan egingo dute.



Iazko danborrada. GOIENA

### Hiru pieza joko dituzte

Haurrek egindako sukaldari txapelak eta trajeak eramango dituzte ekitaldira, eta 15:45ean hasiko dira danbor hotsak entzuten. Urtero lez, aurrez entseatuta dituzten kantu hauek joko dituzte bertan: *San Sebastian martxa, Diana* eta *Iriyarena,* eta guraso, aitona-amona eta familiakoek haien ikuskizunaz gozatuko dute.

Ekitaldiari amaiera emateko, berriz, txokolatea hartzeko aukera izango dute eskolako haurrek.

## Euskal Herriko Mus txapelketako partiduak, zapatuan

X. Euskal Herriko Mus Txapelketa zapatuan jarriko da martxan, eta lehen kanporaketa herriz herri jokatuko da. Eskoriatzan, zapatuan, Inkernu tabernan, 16:00etan.

Izena eman nahi duenak aukera du horretarako *www.ehmus.eus* webgunean, eta bikoteka hogei euro ordaindu beharko dira.

Lehenengo kanporaketa jokatu ostean, otsailaren 24an jokatuko dira herrialdeko kanporaketak eta finala, berriz, Lapurdin izango da, Uztaritzen, martxoaren 10ean.

Final nazionaleko garaileak txapela, trofeoa, 3.000 euro eta lau lagunentzako Karibera bidaia irabaziko ditu. Txapeldunordeak, berriz, 1.500 euro eta Kanariar uharteetara bi lagunentzako bidaia. Horiez gainera, 16. sailkatura are hainbat sari egongo dira.

## Mundukideren hitzaldia urtarrilaren 23an, martitzenean

Martitzen honetan, 19:00etan, *Eskoriatza Mozambikerekin* hitzaldia ematekoa zen Mundukide Fundazioko Beñat Arzadun, baina hurrengo martitzenera, urtarrilaren 23ra, aldatzea erabaki dute antolatzaileek.

Hala, datorren astean, izango da hitzaldia, aurreikusita zegoen leku eta ordu berean; hau da, kultura etxean, 19:00etan.

Olazar erretiratu elkarteak, Arrasateko Harreman GKEk, Eskoriatzako Udalak eta Mundukide Kooperazio Kooperatibak antolatuta, nekazaritza-ekoizpenean jarduten duten arloaren gainean izango da hitzaldia.

Pasa den astean, Arrasaten izan zen saioa, urtarrilaren 12an, eta oraingoan, nekazariekin miseriatik irten nahian Mozambiken elkarlanean egiten duten lanaren ingurukoak adieraziko dizkie Eskoriatzako herritarrei.

# Helburuak bete arren, azken pausoa ezin eman

Eskoriatzako saskibaloi taldeetako juniorrek eta kadeteek lauko finaleko partiduak jokatu zituzten joan den asteburuan. Ez bata ez bestea ez ziren finalerako sailkatu, baina egindako lanarekin pozik daude jokalariak eta entrenatzaileak

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Eskoriatzako errendimenduko juniorrek eta kadeteek Euskal Ligara igotzeko lauko finala jokatu zuten joan den asteburuan. Juniorrek Atletico San Sebastian taldearen aurka jokatu zuten, eta 69-56 galdu zuten partidua. Kadeteek, berriz, Bidebietan (Donostian) jokatu zuten, Askatuak taldearen aurka, eta 41-43 galdu zuten partidua. Hala, ez bata ez bestea ez ziren finalerako sailkatu.

Eskoriatzako kadeteek Askatuak taldearen aurka 41-43 galdu zuten, eta, emaitzan ageri moduan, gutxigatik izan zen. "Oso partidu parekatua izan zen, bigarren laurdenean abantaila hartu zuten eskoriatzarrek, baina, Askatuak taldeak bi hiruko saskiratze sartu ostean, azken minutura markagailua azpitik genuela iritsi ginen…", adierazi du Julen Forniesek, Eskoriatzako saskibaloi saileko kirol zuzendariak.



Eskoriatzako juniorrak partiduan. GOIENA

### Nahi eta ezin

Errendimenduko juniorrek, berriz, hamahiru puntuko aldeagatik galdu bazuten ere, partidua oso berdindua izan zen. Urduritasunez hasi zuten partidua, eta aurkariek, berriz, intentsitate eta abiadura handiarekin jokatu zuten. Galdu arren, sentsazio onekin geratu dira taldekideak eta entrenatzaileak.

### Helburuak beteta

"Denboraldi honetan bi mailetako taldeek zuten helburua lauko finalera iristea zen, eta biekin oso pozik gaude orain arte egin duten lanarekin. Hemendik aurrera, beste helburu bat markatu dugu, errendimendu mailako Gipuzkoako liga irabaztea, hain zuzen ere".

### Seniorrek atsedena asteburuan

Sansebastianak direla eta, asteburu honetan Bera Bera taldearen aurka jokatzekoak ziren Eskoriatzako seniorrak, baina partidua azaroan jokatu zuten, etxean (25-46).

Hala, asteburu honetako partidua jokatuta, atsedenaldia izango dute. Hurrengo partidua, berriz, Bilintx taldearen kontra jokatuko dute.



Larrañaga eta Mendizabal, ezkerrean, Archeo2Gaves elkartekoekin. JOANNES MENDIZABAL

# Gatzagarrak, Archeo2Gaves elkartearen batzar orokorrean

Bi herrien arteko elkarlana, turismoa sustatzea, 'Leintz Gazitzen' proiektua, eta abar izan zituzten mintzagai

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Orain dela gutxi, Archeo2Gaves elkartearen batzar orokorrean izan ziren, gonbidatu, Kultura zinegotzi Joannes Mendizabal eta Gatz Museoko arduradun Aitor Larrañaga, Saliese-n (Biarno, Frantzia). Bertan, hain zuzen ere, elkarlanerako bidea zabaldu, eta *Leintz Gazitzen* proiektuaren gainean hitz egiteko aukera izan zuten, besteak beste.

### Elkarrengandik ikasteko asmoz

Archeo2Gaves elkarteak ikerketa arkeologiko eta historikoak egiten ditu, eta euren helburua gatzaren iragana ikertzea da. Honela laburbildu ditu Joannes Mendizabalek han bizi izandakoak: "Leintz Gatzagak paralelismo asko ditu Saliese herriarekin, eta museoa, gatz fabrika, eta abar ezagutzeko aukera izan genuen. Bestalde, gure herria eta proiektua aurkeztu genien, eta irteera aberasgarria izan zen. *Leintz Gazitzen* proiektua, bestalde, aurrerapausoak ematen ari da, eta horren adierazletako bat da Gatz Museoan dagoen langile berria, maiatzera arte egongo dena".

# Umore samur eta zentzugabeaz betetako antzerkia domekan

'Escenícas' izeneko antzerkia 19:00etan hasiko da, eta sarrerak aldez aurretik egongo dira salgai kiroldegian

**I.B** ESKORIATZA

Kukumix antzerki taldearen *Escenícas* lana ikusteko aukera izango da domeka honetan, Eskoriatzako Zaldibar antzokian. 19:00etan hasiko da saioa, eta gazteei eta helduei zuzendutako emanaldia izango da.

80ko hamarkadan girotuta, zazpi eszenaz, barrea eragiten duten elkarrizketez eta umore samur eta zentzugabez betetako lana ikusi ahal izango da.

*Escenícas* antzerki obraren izenburuko *i* hizkiari azentu-marka jarri diote, nafarren ikuspuntu berezi horretatik kontatutako dutelako, nafarren azentua azpimarratuz.

Alfredo Sanzol idazle eta zuzendari nafarrak idatzitako lana Iratxe Garcia Urizek zuzenduko du. Oholtzan, berriz, bertaratzen direnei barrea eragiten, aktore hauek izango dira: Inma Montosa, Iñaki Zabala, Montxo Marco, Paco Garcia, Arantza Larumbe, Elena Rodiguez eta Beatriz Ripodas.

Ikusleek irudimena lantzea du helburu obra horrek. Adibidez, umorezko ikuspuntutik kontatuko diren istorioekin, barre-algarak sortu nahi dituzte egileek ikusleengan. Gazteleraz izango da Kukumix taldearen antzerkia eta sarrerak lau eurotan erosi ahal izango dira, aldez aurretik, Manuel Muñoz kiroldegian.



*Escenícas* antzerkia. KUKUMIX



JOANNES MENDIZABAL

# Liburutegiko ate irekietan

Gatzagako liburutegi berria inauguratuta, aste honetan haurrentzako ate irekiak izan dira. Datorren astelehenean, berriz, helduentzako izango dira; batez ere, automailegu zerbitzuaren funtzionamendua ezagutzeko. Izan ere, liburuzaina astelehenetan soilik egongo da, eta asteko beste egunetan automailegu bidez funtzionatuko du liburutegiak.



Egoiliarrei zerbitzu psikosoziala emateko asmoz, ekintza kulturalak ere egiten dira; argazkian, Mizpirualde Asteko kontzertu bat. GOIENA

# Kabiara aldatzeak ez du eragingo egoiliarrengan

Mizpirualde egoitza Diputazioaren Kabia erakundeak kudeatzera pasatzeak ez du eragingo bertako 99 egoiliarrek behar duten arretan eta langileen baldintzetan: "Prozesu honetan hori da inportanteena, zerbitzuak zein lan baldintzak mantentzea", uste du zuzendariak

**Jokin Bereziartua** BERGARA

2017ko abenduaren 31 ezkero Diputazioaren Kabia erakundeak kudeatzen du Mizpirualde egoitza. Udalbatzak 2017ko urriaren 30eko osoko bilkuran aldaketa onartu ostean, hitzarmena sinatu zuten Elena Lete alkateak eta Gizarte Politiketako foru diputatu Maite Peñak. Kudeaketa Kabiaren esku geratzeak ez die egoiliarrei eragingo, Mizpirualdeko zuzendari Gregorio Iruretagoienaren arabera: "Ez dute ezer nabarituko, hori da behin eta berriz Kabiatik eta Udaletik esan digutena; prozesu honetan hori da inportanteena. Gaur egun jasotzen duten arreta bera edo hobea izango da. Funtzionamendu aldetik, erabaki inportanteenak Kabiak Donostian duen egoitzan hartuko dira". Funtzionamenduan aldaketak izango dira, baina egoiliarrengan zein langileengan ez du ondorio aipagarririk izango: "Zerbitzuak mantendu egingo dira, eta, beraz, euren arretan eta egunerokotasunean ez dute aldaketarik sumatuko. Langileen baldintzek ere berdinak izaten jarraituko dute".

**Zerbitzuen zerrenda luzea**

Mizpirualdeko egoiliarrei arreta integrala eskaintzen zaie, askotariko zerbitzuekin. Bost zerbitzu multzo nagusi berezitzen dira: ostalaritza, zaintza pertsonala, osasun zerbitzua, zerbitzu psikosoziala eta zerbitzu erlijiosoa.

Ostalaritza zerbitzuaren barruan daude ostatua bera –gelak, bainugelak, egoiliar guztiek erabiltzeko guneak–; mantenua –gosaria, bazkaria, askaria eta afaria–; arropa garbiketa; gelaren eta egoiliar guztiek erabiltzeko guneen garbiketa; egoiliarrak berak erabiltzen dituen elementu materialen mantenu eta konponketa lanak; telefono zerbitzua; objektuen zaintza eta kafetegia.

**24 orduko laguntza eta arreta**

Zaintza pertsonalaren arloan eskaintzen duten zerbitzuen zerrenda luzea da oso. Eguneroko oinarrizko jardueretarako 24 orduko laguntza eta arreta ematen dute: norberaren higienerako eta janzteko laguntza; esnatzeko eta oheratzeko laguntza; joan-etorrietarako eta lekualdaketetarako laguntza; inkontinentzia tratatzeko laguntza; botikak emateko laguntza; erabiltzaileen estetika zaintzeko laguntza; portaera gehiegikeriei aurre egiteko laguntza; lehen, bigarren zein hirugarren mailako prebentziozko osasun arreta; osasun arreta orokorra –tratamenduak, botika eta jarraipena–; nutrizio azterketen araberako dietak jartzea; mediku aholkularitza egoiliarrei zein familiei; askotariko erizaintza zerbitzuak; farmazia zerbitzua; eta podologia zerbitzua, besteak beste.

Zerbitzu psikosozialen barruan, egoiliarrei banakako diagnostiko integrala egiten zaie eta, besteak beste, egoitzara sartzerakoan bertara egokitzeko laguntza ematen zaie.

Horrez gain, laguntza eskaintzen zaie alor guztietan, banaka zein taldeka. Adibidez, oroimena lantzea, terapia okupazionala, familia-arreta zein partaidetza soziala lantzea eta emanaldi kulturalez gozatzea. Bizitzaren azken uneetan egoiliarrak behar duen laguntza oro ematen dute, baita, Bergarako parrokiarekin koordinatuta, zerbitzu erlijiosoa ere.

**Itxarote-zerrenda, "oso luzea"**

Mizpirualdek Bergarako, Antzuolako eta Elgetako egoiliarrak artatzen ditu. Ia 100 langile ditu gaur egun egoitzak eta egoiliarrak 99 dira; horietatik 18 unitate psikogeriatrikoan daude. Kopuru horri erantzun diezaioke Mizpirualdek, ez gehiago: "Itxarote-zerrendaren kopuru zehatza ez dakit, eskaerak Udalak tramitatzen dituelako, baina badakit zerrenda oso luzea dela. Eta argi daukat joera hori mantendu egingo dela. Pena ematen dit duela urte batzuk onartu zen Mizpirualde handitzeko proiektua ez burutu izanak", adierazi du Iruretagoienak.

Zuzendariak gogotsu heldu dio etapa berriari: "1982an hasitako epealdia amaitu da. Bide berrian, beste parte hartzaile batzuk izango ditugu. Kabia jaio berria da eta laster hamasei egoitza kudeatuko ditu. Erronka interesgarria da".

**GAUR EGUN, 99 EGOILIAR DITU MIZPIRUALDEK ETA HORIEK ARTATZEKO IA 100 LANGILE DAUDE**

## Lurraldebus zerbitzuaren gaineko inkesta abiatu dute

Erabiltzaileen iritzia jakiteko eta Diputazioari proposamenak egiteko antolatu dute; otsailaren 1era arte bete ahalko da

**J.B.** BERGARA

Lurraldebus zerbitzuak Debagoienean murrizketak izan dituela salatu zuen Bergarako udalbatzak, aho batez, abenduaren 18ko osoko bilkuran. Horrekin batera, Diputazioari zerbitzuaren erabileraren eta asebetetzearen balorazioa egiteko eskatu gura dio. Hala, Udalak herritarren artean inkesta bat abiatu du, erabiltzaileen eta herritarren iritzia jakiteko eta proposamenak egin ahal izateko. Galderen artean honako hauek daude, besteak beste: *Zergatik erabiltzen duzu autobus zerbitzua? Zer linea erabiltzen duzu? Zein maiztasunekin? Zerbitzua nola baloratzen duzu? Eraginik izan duzu azken aldiko zerbitzuetako aldaketengatik?* Galdera horiei erantzuteaz gain, aukera dago beste edozein iruzkin edo ekarpen egiteko.

**Webgunean eta udal eraikinetan**

Inkesta betetzeko bi modu izango dute zerbitzua baloratu gura duten herritarrek: batetik, Udalaren webgunean –*www.bergara.eus*– eskegi dute inkesta, eta, bestetik, honako udal eraikin hauetan ere eskuratu daitezke: udaletxean –udaltzaingoan–, liburutegian, Agorrosin Kirol Gunean, Osintxuko liburutegian, Labegaraieta kiroldegiko tabernan, San Joxepe erretiratu elkartean, Miguel Altuna Institutuan eta Irizar jauregian.

Udaletik jakinarazi dutenez, inkestak bete beharko dira otsailaren 1a baino lehen.

## Jaiak antolatzeko batzarra urtarrilaren 25ean, Xaxauk deituta

Xaxau jai herrikoien konpartsak batzar irekia deitu du hilaren 25erako kartzela zaharrean (18:30). Bergarako jaiei forma ematen hasteko elkartuko dira: "Urtea hasi eta segituan jaietara begira jartzeko ordua heldu zaigu. Urtero legez, denon iritziak, proposamenak eta ideiak jasotzeko batzar ireki bat egingo dugu. *Are you ready?*".

Aisia eta olgetarako eskaintza-aukerarik onena

# SuperHirukoitza

## Gorbeian

**ESKURATU ZURE SUPERHIRUKOITZA TXARTELA PREZIO BEREZIEKIN**

| McDonald's | Cines Gorbeia Zinemak | Big Karting |
| --- | --- | --- |
| 1 McMenu® McDonald's soilik 4'90 € | 1 Zinemarako Sarrera Gorbeia Zinemak soilik 3'90 € | 1 Karting Saio Big Karting soilik 9'90 € |

SUPERHIRUKOITZA txartela eskuratzeko, gutxienez honelako erosketaren bat egin beharko da: 1 McMenu® edo 1 zinemarako sarrera edo Big Karting saio bat, une bakoitzean artikulu horrek duen prezioaren arabera.
Promozioa indarrean izango da Arabako edozein McDonald's saltokitan, Gorbeia Zinemetan eta Big Karting Gorbeian.
Eskuratu zure txartela 2018ko urtarrilaren 15etik martxoaren 4ra bitarte. Txartelak 2018ko martxoaren 11ra arte erabili ahal izango dira.
Kontsultatu promozioaren baldintzak webgunean:

**centrocomercialgorbeia.com**

Vitoria - Gasteiz

CINES GORBEIA ZINEMAK

BIG KARTING

GORBEIA

# Seminarixoa kudeatzeko erak, "irekian" berbagai

Areto berriaren gainean "irekian" hausnartzeko beharra sentitu duen herritar talde batek deituta, "saio herrikoia" egingo dute hilaren 24an Irizarren (19:00): "Zenbat eta ahots anitzagoak izan, orduan eta proiektu aberasgarriagoa izango da"

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Seminarixoaz "irekian" hausnartzeko beharra sentitu duen herritar talde batek deituta, urtarrilaren 24an areto berriaren kudeaketaren gaineko "saio herrikoia" egingo dute Irizar jauregian (19:00). *Plaza marrazten* izena jarri diote ekimenari, eta nabarmendu dute interesa duen edonor dagoela gonbidatuta.

Saio horretan, besteak beste, Gernikako Astra eta Azpeitiko San Agustin aretoetako kudeaketa eredua azalduko dute: "San Agustinek antzekotasun handia dauka Seminarixoarekin. Biak dira eliza berrituak, biak daude plazan. Eraikinaz gain, oso eredu interesgarria da: herriko kultur mahaitik sortutako talde batek kudeatzen du proiektua, eta herrigintzako talde pila daude inplikatuta. Kafe antzoki izaera ere badu. Bestalde, Astra herrigintzaren eta instituzioen arteko elkarlanean oinarritutako Euskal Herriko proiektu interesgarrienetakoa da".

Bi proiektu horietan murgilduta dauden ordezkariak izango dira Irizar jauregiko saioan. "Euskal Herrian kultur kudeaketarako eredu interesgarri asko dago, herrigintzatik, instituzioetatik edo bi eremuen lankidetzan oinarrituak, eta herritar talde batek gai hau mahai gainean jarri, eredu ezberdinak ezagutu eta eztabaida aberasgarria sortzea beharrezkoa dela pentsatu dugu", gaineratu dute deitzaileek.

**Poza, batetik; kezka, bestetik**

Mari Domingiren eta Olentzeroren opari moduan ireki zen Seminarixoa abenduaren 24an, eta datorren eguazteneko saioa antolatu dutenek poza sentitu zuten irekierarekin: "Oso pozgarria da aukera berriak sortu eta denok disfrutatu ahal izango dugun gunea gauzatuta ikustea. Ekipamendu moderno bat daukagu herrian, epe ertainlaburrean osatzen joateko aukera ere ematen duena". Hala ere, kezka eta zalantzak ere badituzte: "Azken ordura arte ez da zehaztu kudeaketa eredua eta abenduan jakin genuen Udalak bere baliabideekin kudeatzea erabaki duela, oraingoz".



Seminarixoa aretoaren kudeaketa izango da hizpide hilaren 24an, Irizarren. XABI URZELAI

**GERNIKAKO ASTRA ETA AZPEITIKO SAN AGUSTIN ARETOEN EREDUAK AZALDUKO DITUZTE SAIOAN**

**"Denon ahotsak jaso nahi ditugu"**

Hainbat gairen gainean jarduteko deitu dute hilaren 24ko saioa: "Eredu ezberdin pare baten aurkezpen laburraren ondoren, mahai-inguru baten Bergarako kultur kudeaketa irudikatu eta marraztetik margotzera saltoa egiteko aukerarik baden ikusteko". Hain justu, uste dute herritar orok duela kultura kudeaketaren gaineko iritziren bat: "Denon ahotsak jaso nahi ditugu gure herriko areto hau nola kudeatu beharko litzatekeen planteatzeko". Herritar talde horren arabera, Udal Gobernuarekin harremanetan jarri ziren saioa antolatu aurretik: "Tamalez, ez dugu erantzunik jaso. Saio horiek elkarlanean eta guztion artean egitea izango litzateke zentzuzkoena eta onena". Joan den egubakoitz arratsaldean eman zuten deialdiaren berri, eta ordutik hona, diotenez, herritar pila bat hurbildu zaie, "horrelako zerbaiten beharra" zegoela esanez. Finean, "bizikidetza anitzeko oinarri bat" eskatzen dute: "Hitz egitea eta parte hartze prozesu irekia sortzea beti da aberasgarria. Aretoan interesa duen edonorentzat interesgarria izan daiteke saio irekia. Animatu eta parte hartu. Zenbat eta ahots anitzagoak, orduan eta proiektu aberasgarriagoa izango da".

**Oso harrera ona orain arte**

Abenduaren 24an ateak ireki zituenetik hona, Seminarixoan antolatu diren ekitaldiek oso harrera ona izan dute. Horren adibide da joan den asteburuko *Etxeko saltsak* antzezlana; Mikel Laskurain aktore bergarar ezagunaren *estreinaldian* goraino bete zen areto berria.



NIRE USTEZ

**PEDRO GARITANO**

## Itxurakeria

Ez pose artistikoak, baizik eta egun atzematen ari garen itxurakeriak arduratzen nau. Hainbat dira testuinguruak: foroak, era guztietako solasaldiak... Eta, batik bat, politikarien artean. Desesperagarria da; esaterako, gertaera baten aurrean euren jarrera azaltzea dagokienean, ahots lodiz eta maiestatetsuz entzuten ditugu: "Erabat kezkatuta nago"; "Izugarri arduratuta nago"... Askotan, baina, gezurra da. Gertaera ez zaie axola batere, axola zaiena audientziarekin ondo geratzea da. Eta horretarako, keinuak eta, beharrezkoa bada, aurpegi tristeak jartzen dituzte. Itxurakerietarako erabiltzen diren esaldien artean, bada esanahi hutseko bat: "Aukera bakarra genuen". Halakoak esaten dituzte zentzuzko erabakiak hartu dituztela erakutsi nahi dutenean. Nahiz eta erabaki hori norbere nahiaren aurkakoa izan. Komunikabideetan ere sarriak dira halako jarrerak. Harro agertzen dira hartutako erabaki edo emandako azalpenekin. Tamalez, norbanakoon artean ere atzeman ditzakegu jarrera horiek. Izan ere, hainbat dira ongi-egile edo mezenas direla uste dutenak; beharbada, noizbait izango ziren. Itxurakeriarik ez!

## Zaborraren, uraren eta estolderiaren tasak, martxoaren 12ra arte

2017ko laugarren hiruhileko zaborraren, uraren eta estolderiaren tasak ordaintzeko epea martxoaren 12an amaituko da. Helbideratutako ordainagiriak martxoaren 12an bertan kobratuko dira, zergapekoek agindutako kontu korrontean. Helbideratu gabeko ordainagiriak, ostera, zergapekoek adierazitako helbideetara bidaliko dira, eta honako bi modu hauek egongo dira ordainketarako: batetik, udaletxeko diru bilketa zerbitzuan –astelehenetik egubakoitzera 08:30etik 13:30era eta eguenetan 16:00etatik 19:00etara– txeke bidez; eta, bestetik, finantza erakunde kolaboratzaileetako bulegoetan, kutxazainetan, banku elektronikoetan edota ordainketa pasabidearen bidez. *www.bergara.eus*-en ere ordaindu ahalko da. Borondatezko epea amaitutakoan, premiamenduzko prozedurari ekingo zaio.

## OHARRAK

### 1956an jaiotakoen ospakizuna

Urtarrilaren 27an Zumelaga jatetxean bazkalduko dute. 12:45ean Usoa tabernan elkartuko dira eta 14:30ean talde argazkia aterako dute Zumelaga aurrean. Bazkalostean dantzaldia izango dute, DJ eta guzti. Izena eman behar da hilaren 23a baino lehen, Zumelagan (943 76 20 21) edo 630 62 61 30 telefono zenbakian.

### San Joxepekoen Aratusteetako bazkaria

Elkarteko Aitonak jatetxean egingo dute Aratusteetako bazkaria, otsailaren 13an. Zuzeneko musika egongo da. Izena emateko azken eguna otsailaren 9ra da. Ordainketa Laboral Kutxan egin beharko da. Argibide gehiago: 943 76 30 09.

### Madura elkartearen 50. urteurrena

Madura elkarteak 2018ko urriaren 18an beteko ditu 50 urte. Ospakizun ekitaldiak antolatzen hasita daude dagoeneko; otsailaren 1ean egingo duten batzarrean gaia landuko dute.

### Seminarixoa aretoko leihatilako ordutegia

Seminarixoko leihatila zabalik egongo da eguenero, 18:00etatik 20:00etara. Hileko lehen eguenetan jarriko dituzte hil horretako ekitaldi guztietarako sarrerak salgai, ate nagusiaren ondoan.



Astelehenean hainbat pentsiodun elkartu ziren San Martin plazako elkarretaratzean. DUINTASUNA

# Pentsioak KPIaren arabera igotzea eskatzen dute

Elkarretaratze jendetsua egin zuten pentsiodunek astelehenean, Duintasuna elkarteak deituta; Madrilgo Gobernuak aplikatuko dituen "murrizketei" Gasteizko Gobernuak aurre egin diezaiekeela adierazi dute, Legebiltzarreko zerbitzu juridikoaren bitartez

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Hainbat erretiratu eta pentsiodun elkartu ziren astelehenean San Martin plazan, "pentsioak berreskuratzeko garaia" dela sinetsita. Madrilgo Gobernuak ezarriko dituen "murrizketen" aurka agertu dira: "Pentsiodunok sei urte daramatzagu erosteko ahalmena galtzen. Batez beste, %6,5 galdu dugu, eta Rajoyren Gobernuak, 2020ra arte, urtero %0,25eko igoera ezartzeko asmoa dauka, KPIaren gorakada aintzat hartu gabe. Jakinekoa da pentsiodun askok eta askok diru sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE, RGI) osagarriari esker lortzen dugula gutxieneko duintasuna. Ez litzateke horrela izango, pentsiodun bakoitzak, gutxienez 1.080 euroko pentsioa jasoko balu", adierazi dute.

**1.080 euroko gutxieneko pentsioa**

Pentsioak izozteari utzi eta pentsioaren gutxieneko kopurua 1.080 euro izatea aldarrikatzen dute eta Euskal Autonomia Erkidegoan zein Nafarroan horretarako aukera egon badagoela diote: "Nola gainditu egoera hau? Gasteizko eta Iruñeko parlamentariek aukera dute pentsio apalenei gutxieneko duintasun bat bermatzeko osagarrien bidez, hurrengo hilabeteetan aurkeztuko den aurrekontua baliatuta, Legebiltzarreko zerbitzu juridikoek onartutako neurria da eta". Gaineratu dute orain arte Legebiltzarreko talde guztiek konpromisoa agertu dutela, baina oraindik ez dutela ezer gauzatu. Izan ere, egoera ekonomikoak hobera egin badu, hori pentsioetan igarri beharko litzatekeela uste dute: "Biztanleriaren %25 osatzen dugunok ez dugu halako zigorrik merezi", diote.

Duintasuna elkarteak baditu beste aldarrikapen batzuk; medikuarengana joategatik berriro ordaindu behar izatearen aurkako protestak entzutetsuak izan dira, esaterako. Hilean behin elkartzen dira, normalean, eta pentsiodunen aurkako edozein neurriren aurka protestak antolatzen dituzte.

## "Pentsioendako sistema propioa behar dugu"

**JOSE AGUAYO** DUINTASUNA ELKARTEKO KIDEA



J.A.

**Zeintzuk dira pentsionisten aldarrikapen nagusiak?**

Pentsioak KPIaren arabera igo beharrean, PPren gobernuak %0,25eko igoera bakarrik ezartzeko asmoa dauka, Toledoko Ituna ezerezean utzita. Espainiako sindikatu eta alderdi politiko nagusiek onartutako itun horretako neurri bat zen pentsioak KPIaren arabera igotzea, eta hori errespetatzea eskatzen dugu. PPk murrizketak aplikatuko ditu orain.

**Beharrezkoa da pentsio sistema euskalduna izatea?**

Bai, pentsioendako sistema propioa behar dugu. Askoz justuagoa izateaz gain, askoz hobeto kudeatuko genituzke. 1.080 euroko gutxieneko pentsioa izatea eskatzen dugu.

**Pozik zaudete astelehenean batu zen jendearekin?**

150 bat lagun elkartu ginen; indar handia ematen digu horrek. Egun, erretiratuak gara gehien mobilizatzen garenak...



BERGARAKO UDALA

## Goienagusikoak Seminarixoan

Goienagusi elkartearen eskutik, EHUko errektore izandako Juan Ignacio Perez Iglesiasek hitzaldia egin zuen astelehenean Seminarixoan –*Ciencia por una vida mejor*–; Miguel Altuna Lanbide Heziketako zenbait ikasle ere hurbildu ziren. Urtarrilaren 24an beste aditu bat izango da (10:00): EHUko irakasle Javier Duoandikoetxeak *Egunerokotasunaren matematikak* izeneko saioa gidatuko du.

## Gazteek aukera dute alokairu sozialerako laguntza eskatzeko

Alokairua gehienez 500 euro izanda, 100 eta 250 euro artean emango dizkiete baldintzak betetzen dituztenei

**J.B.** BERGARA

Alokairu soziala jasotzeko ezinbestekoa izango da 18 eta 30 urte arteko adina izatea, Bergaran erroldatuta egotea, eskatzaile edo bizikidetza-unitateko kideetatik inork ez izatea jabetzan etxerik, eta eskatzailearen diru sarrerak urtean 7.455 eta 28.000 euro gordin artean izatea, besteak beste. Laguntza eskatzeko, gazteak eskaera aurkeztu beharko du Gizarte Zerbitzuetan. Han, dokumentazioa gainbegiratu egingo dute, eta, ondo badago, Hirigintzara bideratuko dute, sail horrek etxearen baldintzak ikuskatzeko eta kontu-hartzailetzara arlo ekonomikoa egiaztatzeko. Horiek guztiak betez gero, laguntza emango zaio. Alokairuak, gehienez, 500 eurokoa izan beharko du, eta Udalak eskatzaileari 100 eta 250 euro arteko laguntza emango dio. Laguntza berezi hori 2017ko ekainaren 20an jarri zen indarrean eta 2017an hamaika eskaera jaso ziren; zortzi onartu ziren, bat ezeztatu eta bi ebazteko zain daude. Udalak laguntza urtarriletik abiatu du aurten; iaz eskatu zutenek berriro eskatu behar dute.

## Mikel Aginagalderen kartela bozkatuena Elkartela lehiaketan

Zibergara taldeak aditzera eman duenez, Mikel Aginagalde bergararrak egindako kartela izan da Elkartela ekimenaren lehen lehiaketako irabazlea, 34 botorekin. 2017ko apirilaren 1ean gaztetxean ospatu zen Halabalooza jaialdirako propio egindako kartela da Aginagalderena. "Pozik gaude lehiaketak izan duen parte hartzearekin, 78 boto jaso ditu-eta guztira. Hurrengo pausoa irabazi duen kartelaren egileari saria ematea izango da eta hori urtarrilaren 26an egingo dugu, kartzela zaharrean, beste hainbat sorpresarekin batera". Bergarako horma digitala da Elkartela, Telegram aplikazioko kanal bat; egun, 121 kide ditu.

# "Bergarako txapelketa tranpolin modukoa da"

**REYES AZKOITIA** PILOTA SAILEKO KIDEA

Lau jaialdi, finalerdiak eta finala jokatuko dituzte Soraluce lau t'erdiko txapelketan. Promesen eta nagusien mailetako hamasei jokalari arituko dira nor baino nor gehiago

**Arantzazu Ezkibel** BERGARA

Hilaren 30ean hasiko dute Soraluce lau t'erdiko pilota txapelketa. Herrian eta pilotarien artean errotuta dagoen txapelketa da Bergarakoa. Martitzenetan izaten dira partiduak, baina, hala ere, pilotazaleak frontoira joaten dira, pilotaz gozatzera. Pilota saileko kide Reyes Azkoitiak azaldu ditu txapelketaren nondik norakoak.

**Dagoeneko prest duzue zortzigarren Soraluze txapelketa.**

Bai, dena gertu dugu urtarrilaren 30ean txapelketari hasiera emateko.

**Bi mailatako pilotariak bakarrik izaten dituzue?**

Bai, promesen eta nagusien mailetako partiduak antolatzen ditugu. Martitzenero izaten dira norgehiagokak, maila bakoitzetik bat jokatzen da.

**Aurtengo txapelketako pilotariak gipuzkoarrak izango dira. Zergatik hori?**

Gure ustez, maila onean dabiltzan pilotariak dira txapelketarako aukeratu ditugunak. Gaur egun, Gipuzkoan maila ona dago; gura izan dugu Errioxako beste pilotari bat ekarri, Zabala, baina ezin duela esan digu. Partidu askorekin dabilela esan digu, eta nahiago duela orain ez etorri. Gipuzkoarrek, aldiz, guztiek esan digute baietz.

**Soraluce enpresaren laguntza izaten duzue txapelketa antolatzeko.**

Bai; orain dela zortzi urte, txapelketa antolatzen hasi ginenean, txapelketaren kostu guztia hartzen zuten euren gain. Gaur egun, aldiz, krisi kontuak direla eta, azkenaldian gutxiago ematen dute eta beste bide batzuk bilatzen ditugu. Zozketak egiten ditugu; hortik ateratzen dugunarekin eta ematen digutenarekin, parra egiten dugu.

**Bergarako txapelketa honek izen handia dauka, eta hemen irabazi izan dutenek profesionaletara salto egiteko aukera izaten dute, gero.**



Reyes Azkoitia, Bergarako Udal Pilotalekuan. GOIENA

**"ARRASATEKO MURUAK JOKATUKO DU; ONDO MOLDATZEKO DOHAINAK DITU"**

Bai, Bergarako txapelketa tranpolin bat dela esan daiteke. Izan ere, txapelketa hau irabazi duten pilotari asko pasatu dira profesional mailan jokatzera; ez dira denak izan, baina euretako asko bai.

**Martxoaren 13an izango da finala.**

Bai, eta irabazleek dirua, txapela eta garaikurra eramango dute, eta baita Bergarako tostoi eta erreileno batzuk.

**Debagoiendarrik izango da lehian?**

Arrasateko Muruak jokatuko du promesen mailan. Ezker airez ondo sartzen den mutila da, eta sakea ere indartsua du. Arazoak izan ditu eskuetan, eta ea nolako ikuskizuna ematen duen. Ondo moldatzeko moduko dohainak ditu. Bailara mailan, Oñatiko Biain geratu da kanpoan; denendako lekurik ez dago.

## Lehiatuko diren hamasei pilotariak

Promesen mailan, Mata, Osa, Exposito, J. Egiguren, Iriarte, Agirremalloa, Sein eta Murua arrasatearra lehiatuko dira. Nagusien mailan, aldiz, E. Labaka, Zubizarreta, P. Labaka, Zubiria, I. Egiguren, Prieto, Alberdi eta Elola.

Lau jaialdi jokatuko dituzte: urtarrilaren 30ean lehenengoa, otsailaren 6an bigarrena, otsailaren 13an hirugarrena eta azkena otsailaren 20an. Murua arrasatearrak otsailaren 20an jokatuko du Egigurenen aurka, 19:30ean. Finalerdiak otsailaren 27an –lehen eta bigarren jaialdiko irabazleak elkarren aurka– eta martxoaren 6an izango dira –hirugarren eta laugarren jaialdiko irabazleak elkarren aurka–, eta finala martxoaren 13an jokatuko dute. Norgehiagoka guztiak 19:30ean izango dira.

# Ezustean lortu du Iker Ugartek Espainiako bigarren postua

Erabat lokaztuta zegoen zirkuituan, fisikoki nagusi dela erakutsiz irabazi zuen zilarrezko domina bergararrak

**M.A./ A.E.** BERGARA

Espainiako txapeldunorde bilakatu zen Iker Ugarte, Lokatza taldeko txirrindularia, domekan Legazpin jokatutako Espainiako txapelketan. Kadete mailan lehiatu zen bergararra, eta ezin hobeto moldatu zen guztiz lokaztuta zegoen ibilbidera.

"Iker Ugarte maila handiko ziklista da eta batean zein bestean moldatzen da ondo", adierazi zuen Lokatza elkarteko presidente Jon Unamunok, eta gaineratu: "Lokatz asko zegoen gaur Legazpin; horrenbestez, lasterketa fisikoa izan da, batez ere. Eta Iker, duen fisikoak lagunduta, oso ondo moldatzen da halakoetan".





Ugarte podiumean. LOKATZA

### Atzean irten arren, aurrera

Ugarte bera pozik zegoen lortutakoarekin. "Aurten ezin izan dut Espainiako kopako lasterketarik egin, eta, punturik gabe nengoenez, atzean irten behar izan nuen", azaldu zuen. Atletismoan ibilitakoa izatea ondo etorri zitzaion Ugarteri, eta "espero ez zuen" postua eskuratu zuen. Errepideko denboraldia hasiko du orain Ugartek.

## Futboleko infantil txikiak ohorezko kategoriara igo dira

Infantil txiki taldeak ohorezko kategorian jokatzeko txartela lortu zuen aste bukaeran, Internacionalen etxean 0-4 irabazita. Bergarako taldeak taldeko lidergoan jarraitzen du, hamasei punturekin; bigarren dago, Martutene hamahirurekin, eta hirugarren Internacional, bederatzirekin. Hiru jardunaldi geratzen diren arren liga amaitzeko, bigarrenarekiko duten tartea nahiko da igoera gauzatzeko.

Oraingo aste bukaeran atsedena izango du Bergarak; hurrengo jardunaldietan Astigarragako Mundarroren aurka, etxean, eta Martuteneren aurka, Donostian, jokatuko dute.

Infantil txiki mailan, zazpigarren multzoan jokatzen du Bergarak; zortzi taldeko multzoa da zazpigarrena. Multzoko gainerako taldeak dira: Martutene, Internacional, Astigarragako Mundarro eta Orereta.

## Etxean galduz hasi dute igoera fasea Bergarako neskek

Igoera faseko lehenengo jardunaldia jokatu zuten zapatuan neskek Ipintzan: 1-3 galdu zuten Anaitasunaren aurka. Aurreikusi bezala, partidu "zaila" izan zen etxeko jokalarientzat. Bigarren jardunaldia domekan jokatuko dute, Lasarte-Orian, Ostadarren aurka: 11:45ean izango da partidua, Michelin zelaian.

## Goierrik bisitatuko du Labegaraieta zapatu arratsaldean

Gipuzkoako bigarren mailan jokatzen duen saskibaloi taldeak etxean jokatuko du. Mahoneroek Goierri hartuko dute Labegaraietan, zapatuan, 16:00etan. Denboraldiko 14. jardunaldia izango da oraingo aste bukaerakoa. Dagoeneko liga erdia jokatuta, Bergara Soraluce taldea sailkapeneko 6. postuan dago hogei punturekin.




Nerea Villa, Elena Lete, Julia Monje eta Mikel Gomez, aurkezpen ekitaldian. ARANTZAZU EZKIBEL

# Emakume aurrerakoiak izan zirelako, gogoan

Intxorta 1937 Kultur Elkarteak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, 'Emeek emana' erakusketa ibiltaria prestatu du; gaur, barikua, Aroztegi aretoan inauguratuko dute, 19:00etan. Erakusketako argazkiak Mauro Saraviak egindakoak dira

**Arantzazu Ezkibel** BERGARA

Frankismo garaian emakumeek sufritutakoa eta bizirauteko egindako ahaleginak jasotzen dituen erakusketa zabalduko dute barikuan, Aroztegi aretoan, 19:00etan. Intxorta 1937 Kultur Elkarteak Mauro Saravia argazkilariarekin batera prestatutako erakusketa da *Emeek emana*. 63 emakumeren bizipenak kontatzen ditu erakusketak; tartean, Norberta Ezpeleta Leturia eta Kontxi Lazpiur Zabala bergararrena.

**Ondarretako espetxean**

Norberta Ezpeleta Leturia (1909-1992) Ondarretako eta Saturrarango kartzeletan egon zen preso, Londresko nazioarteko irratia entzutearen akusaziopean. Ezpeletak Blasco Ibañezen eta Alejandro Dumasen liburu debekatuak irakurtzen zituen; hori horrela, erakusketako Ezpeletaren argazkia Ondarretako hondartzan egindakoa da, eta harearen gainean Blasco Ibañezen liburua bat dago.

Kontxi Lazpiur Zabala (1924) Eibarren bizi da gaur egun. Familia langile eta nazionalistakoa, 5 urte zituela Bergaratik Eibarrera joan zen familia, eta ondoren Bilbora alde egin zuten. Bonbardaketetatik ihesi, Torrelavegara alde egin zuten; handik bueltan, etxean, mehatxuak jaso zituzten eta erreketeendako jertseak egitera behartu zituzten. 1964an euskarazko eskolak ematen hasi zen; konpromiso horrekin jardun zuen 25 urtez.

Bi bergarar horiez gain, erakusketan hiru elgetarren aipamena ere badago: Antxoni Telleria, Felisa Garai eta Felisa Iturricastillo. Erakusketaren antolatzaileen asmoa emakume horiek gaurko inaugurazioan egotea izan bada ere, ezin izango du inork egon. Hala ere, senitartekoren bat izango da inaugurazio ekitaldian.

**GAUR ZABALDU ETA OTSAILAREN 4RA ARTE EGONGO DA ZABALIK ERAKUSKETA AROZTEGIN**

**Erakusketaren hiru atalak**

Hiru atal batzen ditu erakusketak: batetik, argazkiak egongo lirateke, testu txiki batekin; bestetik, emakumeen biografia guztia jasotzen duen katalogoa dago; eta, azkenik, sei bat minutuko iraupena duten bideoak, emakumeen testigantzekin.

Erakusketan, *ausentziak* izenarekin hamaika argazki daude –tartean, Ezpeleta bergararrarena–. "Testigantzak jasotzen hasi ginenean, batzuk dagoeneko hilda zeuden; baina, emakume aurrerakoiak izan zirenez, gurera ekarri gura genituen. Hala, sinbolikoki eurekin lotura duen zerbait erakutsiz egin ditugu argazkiak", azaldu du Julia Monjek, Intxorta 1937 Kultur Elkarteko kideak. Gaur zabaldu eta otsailaren 4ra arte egongo da zabalik erakusketa.



Bidelapurrak taldeko kideak. HALABEDI IRRATIA

## 'Gorriak eta bi' disko berria aurkeztuko dute Helldoradon

2017ko azaroan grabatu zituzten abestiak Shot! estudioan; folk eta rock doinuak nagusi dira lanean

**A.E.** BERGARA

Bikote izatetik zazpikote izatera pasa da Bidelapurrak taldea; eta modu horretan aurkeztuko dute euren bigarren diskoa, bihar, zapatua, Gasteizko Helldorado aretoan. *Gorriak eta bi* da disko berriaren izena.

"Lehenengo diskoarekin alderatuta osoagoa dela esango nuke", azaldu du Ekaitz Aranbarri taldekideak. Aranbarri eta Ander Solozabal dira Bidelapurrak taldearen sortzaileak.

**Patxadaz landutakoa**

"Musikalki eboluzio bat egon dela esango nuke, disko landuagoa da", esan du Aranbarrik. "Patxada handiagoarekin hartu dugu", gaineratu du. Folk eta rock doinuak dira nagusi disko berrian. Biolina, akordeoia, mandolina... soinuak entzun daitezke *Gorriak eta bi* diskoan. Taldekide berrian artean, beste bi bergarar daude: Aitor Narbaiza –teklatua eta tronpa– eta Irati Olaziregi –biolina eta baxua–. Narbaizak diskoan parte hartu du, baina ez du zuzenekoetan joko.

**Azaroan grabatu zuten**

2017ko azaroan grabatu zuten diskoa, Arrasateko Shot! estudioan, Ander Barriusorekin. Hamar abestiz osatuta dago.

**Kontzertuko kartela**

Bidelapurrak taldearen kontzertua 22:00etan izango da. Aranbarriren taldeaz gain, taula gainera igoko da Moonshine Wagon taldea. Horiek ere disko berria aurkeztuko dute: *Porca miseria*. Sarrera aurrez eros daiteke, 10 euroren truke, Bastiturrieta eta Hala Bedi tabernetan eta *Helldorado.net* atarian. Leihatilan 12 eurotan egongo dira salgai.

## Musika bandak kontzertua eskainiko du domekan

Alfredo Gonzalez Chirlaque zuzendariak bost pieza aukeratu ditu domekako kontzerturako –12:30–. Egitaraua da: *La millor terra del mon*, pasodoblea, E. Rosillo; *Jericho*, B. Appermont; *Ezpata-dantza*, M. G. Bastida; *La canción del olvido*, zarzuelako selekzioa, J. Serrano; eta *Moment for Morricone*, soinu banda, E. Morricone.

MINDFULNESS
Ikastaroa
AUTOEZAGUTZA MEDITAZIOA
8 astez (otsailaren 3tik martxoaren 24ra arte)
Zapatuetan 10:00etatik 12:30era
Mariaren Lagundia ikastolan, Bergaran.
Informazio gehiago:
FELIX (652 77 15 83)



**Herritarrak berbetan plazan.** XABI PEREZ

# Etorkizuna, herritarren hausnarketan oinarrituta

Hemendik urte batzuetara herria nolakoa izatea gurako luketen ari dira hausnartzen antzuolarrak. Lehen bilerak asteon egin dituzte, baina udazkenera arte iraungo duen lanketa prozesua izango da; emaitzak eta ondorioak urte bukaeran aurkeztuko dituzte

**Maider Arregi** ANTZUOLA

Nolako Antzuola gura duten hausnartuko dute datozen hilabeteetan herriko eragileek. Askotariko esparruak landuko dituzte, gainera. Hala, martxan da udazkenera arte iraungo duen Antzuolako parte-hartze prozesua. Asteon, 30 herritarrek osatutako talde eragileak prozesuaren lehen ildoak zehaztu ditu. Aurretik, baina, alderdi politikoek prozesua bultzatzeko adostasuna azaldu zuten. "Politikarion artean adostu genuen parte-hartze proiektuaren marko orokorra. Gure arteko minimoak adostu genituen, lehenik. Gero, lehiaketara atera genuen eta Aztiker enpresak irabazi zuen. Orain, eurak esaten diguten urratsak jarraitu behar ditugu", azaldu du Beñardo Kortabarria alkateak.

**Talde eragilea**

Gune ezberdinak sortu dira proiektu hori aurrera ateratzeko; eta gune horietako bat da talde eragilea. "Lehen bilera talde sustatzailearekin egin genuen. 30 herritarrez osatutako taldea da. Parte-hartze prozesuaren nondik norakoak azaldu genizkien eta parte hartzera animatzeko deia egin genien", argitu du. "Helburua da hemendik urte batzuetara antzuolarrok nolako Antzuola gura dugun hausnartzea. Antzuola horretara iristeko zelako lana egin behar dugun aurreikustea, alegia".

Ingurumena, industria... dena jasoko du. "Baina prozesu horretan ildo nagusiak irtengo dira, azpimarragarrienak eta garrantzitsuenak direnak herriarendako eta herritarrendako. Lehentasunak zeintzuk izango diren irtengo da: lehen sektorea bultzatu behar den edo ez, oinezkoek edo autoek izan behar duten lehentasuna, kiroletan azpiegitura nahikoa daukagun, futbola ez den bestelako kirolik bultzatu behar den... Eta, behin erabakiak hartuta eta Antzuola nora eraman nahi dugun jakinda, eragileek hausnartu beharko dute zer egin daitekeen eta nola".

**PROZESUARI ESKER HERRIAREN LEHENTASUNAK ZEINTZUK DIREN JAKINGO DA**

Aztiker enpresak gidatuko ditu saioak, bai talde eragilearekin, eta baita politikariekin. "Teknikariak gidatuko gaitu eta zein izango diren joko arauak azaldu dizkigu. Asteon hasi da prozesua eta urte bukaerarako txostena izango dugu. Hurrengo agintaldietan Udalean daudenek edukiko duten lan-tresna izango da, nolabaiteko *agindua* izango da", argitu du alkateak.

Herriak ikusten duena eta herriaren hitza zein den jasoko du, beraz, txostenak. "Politikariei begiak zabaldu eta hor gaudenoi eta egongo direnei bidea markatuko die, gainera".



ANTZUOLAKO UDALA

## Bidegorria zabalik dago

Tuneleko lanak bukatuta, Bergararaino doan bidegorriaren ibilbidea oso-osorik egiteko aukera izango dute berriro antzuolarrek.

Aste honetan bukatu ditu Gipuzkoako Diputazioak lanak. Joan den azaroan hasi zituzten Iraetako tuneleko lanak eta zenbait tunel egonkortzeko lanak egiten.

### Ramon Aldasoro aske geratu da, hogei urteren ostean

Ramon Aldasoro euskal presoak 33 urte eman ditu etxetik kanpo; eta horietatik hogei kartzelan igaro ditu. Aste honetan aske geratu da.

Horrenbestez, antzuolarrek harrera egingo diote. Gaur, egubakoitza, arratsaldeko zazpietan Zurrategi plazan batuko dira. Horren ostean, luntxa egongo da han batzen direnendako.

### Martitzenetan egingo dituzte Aratusteetako dantzen entseguak

Aurten, aratuste-domeka, otsailaren 11n ospatuko da Antzuolan. Hartza, hezitzailea eta tximinoa kalera irtengo dira, baina herritarrak ere festaren parte garrantzitsua izango dira. Horregatik, Oinarinek dantzak ikasteko entseguak herritarrei zabaldu dizkie. Martitzenetan 20:15ean Torresoroan egiten dituzte entseguak.



AMAIA ARANA

## Pintxoak gazteen eskutik bihar

Gazte txokoko gazteek bazkaria egin zuten zapatuan. "Kirol pixka bat egin eta gero, bazkaria egin genuen 40 lagun inguruk. Gainera, ekintzak ere zehaztu ditugu elkarrekin: kartingera joatea otsailaren 4an eta sexualitatea lantzeko tailerra egitea, besteak beste. Zapatuan, baina, pintxoak salduko ditugu Zurrategin 19:00etatik aurrera.




Gazte bat Antzuolako elikagai bilketa kanpainarekin bat egiten. IMANOL GALLEGO

# Egoerarekin "aspertuta" daude saharararrak

Tindufeko kanpalekuetan dauden saharararren egoerak ez du hobera egiten. Eta orain, gainera, hainbat herrialdek laguntza kopurua gutxitu egin dutela salatu du Anelkarrek. Elikagaien bilketa urtarrilaren 21era arte egingo dute Antzuolan

**Maider Arregi** ANTZUOLA

Tindufen (Aljeria) Saharako errefuxiatuen kanpalekuetako egoera oso larria dela kontatu du Kontxi Laskurain Anelkarreko kideak: "Laguntza gutxiago iristen zaie orain. Izan ere, nazio askok laguntza bidaltzeari utzi egin diote azkenaldian. Horietako bat, Ameriketako Estatu Batuak. Laguntza handia bidaltzen zuen, eta orain ez da AEBetako laguntzarik jasotzen; bien bitartean, errefuxiatu kopuruak berdin-berdina izaten jarraitzen du. Bizi duten egoera ere oso larria da".

Ohiko elikagaiez gain, Anelkarko kideek dei berezia egin dute konpresak eta fardelak batzeko. "Emakumeek, haurrek eta pertsona nagusiek behar handia dute. Ahaztu egiten gara, baina konpresa eta fardelen beharra dute haiek ere", gaineratu du Laskurainek. Horregatik, bereziki fardelak eta konpresak erosteko dei egin die elkarteak antzuolarrei.

### Distantziatik begiratuz

Daha Emhamed Anelkarko kide da. Tindufen jaio zen, eta GOIENAk jakin gura izan du nola bizi duen Saharako errefuxiatuen egoera, Antzuolatik, milaka kilometrotara. "Distantziatik bizi dut; baina urteak igarotzen doaz eta egoera ez da aldatzen. Desertuan bizitzea oso gogorra da; geroz eta zailagoa da saharrendako. Ez dago ezer; hotz eta bero handia jasan behar dute, gainera. Jendea aspertuta dago, gatazka konponduko ote den zain", kontatu du.

45 urtez dirauen gatazka politikoa da saharararrena. "Politikariek ez dute ezer egiten saharraren egoera aldatzeko. Negoziazio guztiak geldirik daude, interesak ere handiak dituztelako. Herriak, baina, ez dauka errurik eta beti gezur bera esaten dabiltza politikariak".

**BEREZIKI, FARDELAK ETA KONPRESAK EROSTEKO DEI EGIN DIE ANELKARREK HERRITARREI**

2007an iritsi zen Daha Emhamad Euskal Herrira. "Familia osoa utzita etorri nintzen hona; bizitza hobe baten bila. Kanpamentuetan beti entzun izan dugu Euskal Herriaz. Elkartasun handiko herrialdea dela banekien hona iristerako. Karabana asko ikusi ditut Tindufen. Baina hona etorri arte ez nuen imajinatu ere egiten elkartasun hori horren handia zenik", azaldu du saharrak.

### Laguntzeko aukera

*IV. Piztu Itxaropena* kanpaina domekara arte, urtarrilaren 21era arte, dago indarrean. Herri Eskolak, Udalak, Sagiri elkarteak eta Anelkarrek sustatutako kanpaina da, eta, hain zuzen, herritarrei dei egiten diete geratzen diren azkenengo egun hauetan kanpainari bultzadatxoa emateko laguntzeko.




AKE

## AKEko saskiak badu irabazlea

Zapatuan jokatu zuen AKEren lehen taldeak partidua Eztalan. Eta ondoren egin zuten Gabonetako otzararen zozketa. Irabazlea, argazkian: Iosu Lopez, kadete mailako jokalaria; AKEko Pablo Olaldek eta Ibai Zabalok eman zioten saria. Bigarren buelta ez dute ondo hasi antzuolarrek, eta 2-3 galdu zuten partidua Tolosaren aurka.




KAXETA

## Bederatzi bikote Gailurren

Herriko mus txapelketako bigarren kanporaketa jokatu zen aurreko asteburuan Gailur tabernan. Finalerako beste bi bikote sailkatu ziren: Mikel Gabilondo eta Asier Unamuno; eta David Martin eta Ion Pagaldai. Bederatzi bikotek parte hartu zuten. Zapatuan –16:00etan Ongietorrin– eta domekan –16:30ean, Eperran– jokatuko dira azken bi kanporaketak.

# Frankismoaren biktimak isiltzera behartuta berriz

Eguaztenean ziren Bergarako epaitegian deklaratzekoak, baina epaile aldaketa bat nahikoa izan da auzia artxibatzeko. Esan dute dezepzio ikaragarria izan dela, baina itxaropentsu daudela epaileen artean ere iritzi ezberdinak daudela ikusi dutelako

**Larraitz Zeberio** ELGETA

Hamalau kasu jasotzen zituen Elgetako Udalak frankismoaren krimenen aurka Bergarako epaitegian urrian aurkeztutako kereilak. Ustekabekoa bezain pozgarria izan zen bi hilabetera jasotako albistea: epaileak tramitera onartu eta bost lekuko deitu zituen deklaratzera. Eguna eta ordua zuten: urtarrilaren 17an 10:30ean hasita ordu erdiko tartearekin.

Deklarazioak prestatzen hastekoak ziren beste epaile batek auzia artxibatzeko erabakia hartu zuela zabaldu zenean. Preskribatutako eta amnistiatutako gertaerak izatea argudiatzen zuen bigarren epaile horrek bere autoan. Lekukoek urtarrilaren 11n egitekoa zuten batzarra bertan behera gelditu zen, ezinbestean. "Dezepzio ikaragarria izan da, batez ere, biktimendako", esan du Frankismoaren Krimenen Aurkako Euskal Plataformako Josu Ibargutxik. "Ikusi dugu justiziak hemen nola funtzionatzen duen. Egiteko modua ere aipatzekoa da: 38 egunez egon den epaile bat kendu dute beste bat jartzeko. Ez dakigu bigarren epaile hori titularra den".



Elgetako ordezkariak kereila Bergarako epaitegian aurkezteko egunean. L.Z.

**Bide judizialean aurrera**

Elgetako Udaleko abokatuek berehala ipini zuten bigarren epailearen erabakiaren aurkako helegitea Lurralde Auzitegian. Laia Abokatuak taldeko Aratz Estonbak azaldu du orain auzitegiak gaia aztertzeko data ipini behar duela, eta deliberoa egin. "Oso litekeena da gaia artxibatuta mantentzea ebaztea. Horrela bada, Konstituzio Epaitegira joko dugu, eta, ezinbestean, Europako Giza Eskubideen Epaitegira. Kereila berresteko eta gaia Espainiako Estatuan ikertu eta epaitu behar dela eskatuko dugu". Elgetako Udalaren kereilak bide judizialean egindako lehenengo urratsak, dena den, ez dira oharkabean pasa eta oihartzun mediatiko handia izan dute. "Bere neurrian, ikerketa positiboa ere egin behar dugu. Sekula gertatu ez dena gertatu da epaitegietan, eta hori aurrerapauso bat da. Irakasgai nagusia da badirela zirrikituak frankismoak egindako krimenak epaitzeko eta justizia lortzeko. Epaileen artean ere iritzi ezberdinak daude", esan du Elgetako alkate Iraitz Lazkanok.

**GARRANTZITSUA DA KEREILAN DAUDEN ERAKUNDEEN KOPURUA AHALIK ETA HANDIENA IZATEA**

Josu Ibargutxik gaineratu du garrantzitsua dela auzia Estrasburgora iristen denerako kereilan dauden erakundeen kopurua ahalik eta handiena izatea. "Horrek pisua emango lioke gure eskaerari, eta jasanezina izango dute hemengo epaitegietan justiziarik ez egitea. Gaurgaurkoz, dozena erdi bat udal izango dira kereila jarri dutenak, nahiz eta jartzeko erabakia gehiagok hartu duten". Horren harira, bigarren epailearen erabakia ezagutu bezain laster berretsi zuen publikoki Gipuzkoako Foru Aldundiak kereilatzeko erabakia.

Elgetako alkateak, berriz, lanean jarraitzeko asmoa berretsi du. Astelehenean, frankismoaren inpunitatearen kontrako herrien sareak antolatutako jardunaldi batzuetan izango da, Bartzelonan. "Elgeta berriki atxiki da sare horretara, eta jardunaldi horien helburua da herri ezberdinen esperientziak ezagutu, udaletatik frankismoaren zigorgabetasunaren kontra egin daitekeena aztertu eta arlo juridikoan aurrera urratsak nola eman ditzakegun hausnartzea", azaldu du.

Josu Ibargutxik adierazi du egia, justizia eta erreparazioa eskatzen jarraituko dutela. "Izan ere, uste dugu badaudela epaile ausartak, jende gaztea, zezena adarretatik heltzeko prest daudenak. Ikusi egin dugu hori. Bospasei epaile izan dira horrelako kereila baten aurrean eta batek ikerketa zabaltzeko erabakia hartu du. Esanguratsua da", baloratu du.



NIRE USTEZ

**AINHOA BERNABE** ELGETAKO KULTURA ETA TURISMO TEKNIKARIA

## Ahaztutako biktimak

Sarritan entzun dut Espainiako gerrako biktimak bi bandotakoak izan zirela, eta hala izango da, ideologia guztietakoak izan baitziren biktima zibil errugabeak. Baina hona hemen biktimen arteko desberdintasun nabarmen bat: Francoren diktadurapean, alde batekoak omendu eta goraipatu zituzten bitartean, beste bandokoak gogor zigortu zituzten. Are gehiago, Franco hil eta 43 urte geroago, oraindik ere, biktima horiek justizia eta errekonozimendu eske dabiltza, hilotzak areka eta zuloetatik ateratzeko eskatzen ez daudenean. Biktima horiek guztiak ahaztu egin ditu Espainiako justiziak.

1936ko urriaren 4an, Elgeta frankismoaren aurkako erresistentzia biziaren ikur bihurtu zen; 2017ko egun berean, arrakala txiki bat irekitzea lortu genuen, eta lehenengo aldiz auzitegi batek frankismoak eragindako krimenak ikertzea erabaki zuen. Orain, beste epaile batek erabaki hori atzera bota du, eta justizia izateko biktimek itxaroten jarraitu beharko dutela dirudi.

Baina guk lortu arte ez dugu etsiko; zor diegu!



Koldo Izagirre ordenagailu aurrean. KOLDO IZAGIRRE

# Koldo Izagirrek diseinatu ditu herri sarrerako kartel berriak

Bestelako diseinu lanetan aritu ohi da, baina ilusioz egin dituela eta emaitzarekin gustura dagoela esan du

**L.Z.** ELGETA

Udalak berritu egin ditu Bergarako eta Elorrioko errepideetatik etortzen direnei Elgeta erdigunea iragartzeko kartelak. Koldo Izagirrek jaso zuen diseinu berria egiteko enkargua. "Askatasun osoa eman didate lanerako, eta, egia esan, ilusio eta gogo handiarekin egin dut. Herriko sarreretan norberaren lan bat ikustea ez da ohikoena", esan du. 3x2 metroko kartelak dira eta ezohiko lan-tamaina da elgetarrarendako. Adobe Illustrator erabili du eta lanordu dezente izan direla esan du. "Gustukoa izan dela uste dut. Orain, eguzkia egitea falta da kolore guztiak bixi-bixi ikusteko!". Gertutik ikusteko hainbat detaile egin dituela esan du.

Kataia, Asentzio, Intxorta, lubakiak... agertzen dira irudian. "Elementu esanguratsuenak sartzen saiatu naiz, baina asko daude, eta ezin guztiak sartu zerbait txukuna egin nahi izanez gero...". Orbeako marketin alorrean dihardu orain elgetarrak, eta utzita samar daukza diseinu lanak. Dena den, 3D eta animazioan oso gustura aritu izan dela adierazi du.

# Zaldunen eta nekazarien Elgetara bidaia gertatzen

Hamar pertsonaia ditu Erdi Aroko Elgeta ezagutzera emateko herritar talde bat prestatzen ari den bisita gidatu bereziak. Artxibo historikotik ateratako datuak oinarri hartuta ari dira lanean, eta esan dute ekimena hasi dela forma hartzen

**Larraitz Zeberio** ELGETA

Errementaria, eskribaua, nekazaria, jauntxoa, inkisidorea, erromesa, jostuna, kontseiluburua... hainbat pertsonaia izango ditu Elgetan otsailerako prestatzen ari diren bisita gidatu bereziak. "Sorreran San Roke kalea zen herriaren muina eta bi ate nagusi zituen: bata, gaur egungo agirreazaldegitarren etxearen kontra –eskribauaren etxea zen–; eta bestea, Kalengua etxe inguruan. Oraindik ere gelditzen dira arrasto batzuk. Garaiko pare bat etxe ere bai San Roke kalean", azaldu du ekimena prestatzen dihardruen Nerea Villak. "Arkuak irudikatu nahiko genituzke. Poliespanarekin egin gura ditugu, eta aurrekontuak eskatzen ari gara".



Erdi Aroko Elgetaren errepresentazio bat. NEREA VILLA

Erdi Aroko pertsonaiak ere baditu Elgetak. Ospetsuenen artean, bi nabarmentzen dira: Jalotza etxeko Otxoa Donar de Olaegi jauntxoa eta Calahorrako inkisidore izandako Martin Saez de Ibarra. Horiek ere berpiztu gura dituzte antzerkirako. "Kontatu gura dugu nortzuk ziren, Erdi Aroan jendea nola bizi zen, lurra nola lantzen zen, etxeak nolakoak ziren...", azaldu du Villak.

Txema Barrutia eta Manolo Cainzos artxibo historikotik ateratzen ari diren datuetan oinarrituko dute bisitaren muina. Elgetaren historia jasoko duen liburu bat prestatzen ari dira eta hainbat aurkikuntza egin dituzte. "Atera dute Donejakue bidea Elgetatik pasatzen zela eta gaur egun eskola dagoen inguruan erromesendako ospitale bat zegoela. Elgetako alondegiaren –udaletxearen menpe zeuden merkatuak– garrantzia ere azpimarratzekoa da. Gaur egungo Andra Mari plaza inguruan zegoen, eta, zerealak ez ezik, edozein motatako oihalak ere bazeuden. Erdi Aroan sartu zen kotoia, eta larrua eta lihoa ordezkatzera etorri zen. Elgetan jostun asko omen zeuden. Arropa ugari egiten zuten", dio Villak. "Nabarmentzekoa da ez zegoela atzerritarrik: ez judurik, ez mairurik, ez ijitorik. Ez dute artxiboan arrastorik aurkitu. Aldiz, arropa garbitzeko harraskak, animaliendako askak... non zeuden jasota dago. *Postigua* edo atzeko atexkak zer ziren eta zertarako ziren ere azaldu nahi dugu".

Zortzi antzerki labur izango ditu bisita gidatu bereziak, eta boluntarioekin egin gura dute. Jantziak eta atrezzoa prestatzen hasiak dira.

## "Bi boluntario falta ditugu antzerkirako"

**NEREA VILLA**
ANTOLATZAILEA



NEREA VILLA

Hamar pertsonaia ditu antzerkiak. Bi gizonezko falta dituzte taldea osatzeko.

**Zer duzue buruan?**
Hasierako asmoa zen herriko neska-mutikoei erakustea lehengo Elgeta zelakoa zen, eta pentsatu genuen hitzaldi bat egin beharrean erakargarriagoa izango zela pertsonaia desberdinekin egindako antzeztutako bisita gidatu bat antolatzea. Horretan dihardugu.

**Gidoia prest duzu?**
Bai. Hamar pertsonaia daude eta bi boluntario falta ditugu: bata eskribauarena egiteko eta bestea kontseiluburuarena edo alkatearena egiteko. Gizonezkoak behar ditugu, eta, ahal dela, adin batetik aurrerakoak.

**Artxibo historikotik tiraka ari zarete, ezta?**
Nagusiki. Manolo Cainzos eta Txema Barrutia lan handia egiten ari dira.

## San Sebastian ospakizunak

Herri Eskolako neska-mutikoek gaur, barikua, egingo dute danborrada. 15:30ean izango da, frontoi zaharrean. Prestaketa saioak egin dituzte asteon. San Sebastian kofradiako nobleak, berriz, bihar elkartuko dira urteroko ekitaldia egiteko. Meza 13:00etan izango da. 24 lagun elkartzea aurreikusten dute.



ELGETAKO HERRI ESKOLA

## OHARRAK

### Ipuinen Ordua

Gaur, liburutegian, ipuin kontalari saioa. 2-3 urtetik aurrerako umeendako 16:55etik 17:30era eta 5 urteko gelatik aurrerakoendako 17:40tik 18:15era.

### Mendi taldea

Elkarteko bazkide egiteko zein federatu txartelak ateratzeko aukera urtarrileko martitzenetan kultura etxean, 19:00etatik 20:00etara.

### Berbalagunen irteera

Berbalagunendako irteera urtarrilaren 27an, zapatua, Oñatiko unibertsitatea eta Txokolateixa ezagutzera. Bisita 09:45ean hasiko da. Zabalik da izen-ematea.

## Aste honetan egin du lehenengo saioa umeen abesbatzak

Martxan da Lorea Larrañaga eta Maitena Mañarikua musika ikasleen ekimenez sortutako neska-mutikoendako abesbatza. Hamar bat umerekin ekingo diote ekimenari eta poliki-poliki gehiago izatea aurreikusten dute. Atzo, eguena, egin zuten lehenengo saioa. Interesatuek jakin behar dute aurrerantzean eguenetan elkartuko direla, kultura etxeko musika gelan. Saioak 17:30etik 18:00etara izango dira. "Hiru bat asteko probaldia egingo dugu ea nola doan gauza", adierazi du Lorea Larrañagak. Irakasleek uste dute oso onuragarria dela neska-mutikoek kantuan ikastea, eta gerturatzeko dei egin dute.

# Udaberrian zabaldu gura dute Eltziako taberna

Zerbitzu horrek proiektua borobilduko luke. Horrez gain, fatxadan mural bat egingo dute, barruko dinamika aldatu den heinean kanpotik ere hori erakusteko helburuarekin; eta oso hondatuta dagoen teilatuaren zati bat konpondu egingo dute

**O.E. // A.T.** OÑATI

Eltziako taberna esleitzeko pleguak onartu zituen joan den astean udalbatzak eta dagoeneko jakinekoak dira zer-nolako baldintzak bete behar dituen taberna horren ardura hartzen duenak. Eskaintzak aurkezteko epea zabalik dago.



Klaustroa dagoen solairuan dago taberna. A.T.

### Baldintzak

Aurkeztu nahi dutenek hainbat baldintza bete beharko dituzte: gutxienez, taberna-kafetegi zerbitzua eskaini beharko luke; jatekoak emateko aukera baloratu egingo litzateke, sukalde handi bat ere badagoelako; eta ordutegiari dagokionez, astean zehar arratsaldeetan zabalik egon beharko litzateke eta zapatuetan goizez eta arratsaldez, gutxienez, zabaldu beharko litzateke. Esleipendunak ordaindu beharreko kanona edo alokairua 50 eurokoa izango litzateke hilabeteko.

Eguenean egindako ezohiko osoko bilkuran onartu zituzten pleguak, eta, buletinera bidali eta gero, 40 eguneko epea zabalduko da proiektuak aurkezteko, eta epaimahaiak baloraziorako tartea izango luke. Udaberrirako zabaltzea da asmoa. "Guri gustatuko litzaiguke udaberri alderako zabalik ikustea. Izan ere, hau gehiago luzatu nahi ez izatearen arrazoia izan da Eltziako jarduna dagoeneko martxan dagoela. Obrak bukatu dira, taldeak bertan finkatu dira, dinamika hori bertan martxan dago eta uste dugu taberna proiektuaren osagarri inportantea dela", azaldu zuen Kultura zinegotziak, Nerea Zubiak.

### Prozedura

Ezohiko bilkura berezia egin zuten eguenean taberna horren pleguak onartzeko. EH Bilduk aldeko botoa eman zuen, baina alderdi jeltzalea abstenitu egin zen, "prozedurarekin" ados ez dagoelako. Eltziako tabernaren proiektua beharrezkoa ikusten dutela aitortu zuten jeltzaleek, baina ez dutela onartzen aurrera eraman den modua. "Guk tabernarekin ez daukagu arazorik. Gure kexa izan da prozedura nola eraman den; horrez gain, badaude gauza batzuk ados egon ez gaitezkeenak, baina guk esentzian ez daukagu inongo arazorik. Gertatzen dena da prozedura barik eta batzordetik pasa barik esan duguna dela ez dugula bozkatuko. Botoa ez emate horrek ekarri du abstentzioa, baina gu ez gaude tabernaren kontra", argitu zuen osoko bilkuraren amaieran jeltzaleen bozeramaileak, Lourdes Idoiagak.

**SUKALDEA ERE BADU TABERNAK ETA JATEKO AUKERA ESKAINTZEA BALORATUKO DUTE**

Kultura zinegotziak pena adierazi zuen, gaia aho batez onartu ez zelako, eta hauxe gaineratu: "Prozeduretan ez dugu legez kanpoko ezer egin, eta, gainera, eurek onartu duten moduan batzorde askotan landu den gaia izan da. Horrek sortzen diguna da halako susmo bat paralizatu egin nahi dela gai hau, ez dugu oso ondo ulertzen arrazoia".

### Orain

Egun, honela dago eratuta Eltziako eraikina, Zubiak azaldu duen moduan: "Beheko solairuan, sotoan, Musika Eltzia eta biltegiak daude. Zero solairuan, klaustroaren solairuan, taberna, Lagun Leku jubilatuen elkartea eta Gorpuz Eltzia. Eta goian, Sormen Eltziakoak".

Abenduan, obra ofizialki bukatutzat eman ostean, talde gehienak mugitu dira Eltziara. Orain, talde bakoitza bere espazioa txukuntzen ari da eta *eltzekideak* hausnarketa prozesu batean hasi dira, espazio komunei zein izaera eman erabakitzeko. Udalari dagokionez, egiteko faltako diren lanak hauek dira: fatxada txukuntzea, eta horretarako *eltzekideekin* mural diseinu bat egingo da, barruko dinamika aldatu den heinean kanpotik ere hori erakusteko; eta hondatuta dagoen teilatuaren zati bat konpondu egingo da.

# Inauterietako zapaturako entseguak Larrañan izango dira

Martitzeneko entseguak Errekalden izango dira, baina zapatukoak, bihartik, Larrañako pilotalekuan, 12:00etan

**O.E.** OÑATI

Otsailaren 10ean ospatuko dira aurtengo Inauteriak eta dagoeneko aurrera doaz egun horretan egingo duten dantzaren prestaketa lanak. Astean birritan dira entseguak. Martitzenetakoak Oñatzek Errekalden duen lokalean izango dira aurrerantzean ere, 20:00etan. Zapatukoak, aldiz, Larrañako pilotalekuan izango dira bihartik aurrera. Hau da, urtarrilaren 20ko eta 27ko eta otsailaren 3ko entseguak han izango dira, 12:00etan.



Oñatiko Aratusteak iaz. GOIENA

### Gonbidapena

Goizean kalera irten eta dantzan egitea da Inauterietako taldeak aurtengo Aratusteetarako duen plana. Egun horretan egingo dituzten dantzen entseguak izaten dituzte astan birritan. "Dantzarik egin gura ez duenak ere badauka aukera pertsonaia moduan parte hartzeko. 16 urte baino gehiago duen herritar orok har dezake parte. Danontzako tokia dago", diote antolatzaileek. Gainera, aktoreekin eta dantzariekin batera musikariak ere izango dira otsailaren 10eko festan.

## 'Berbetan' dokumentala

*Oñati dana zana* egitasmoaren barruan egindako ekintzetan 250 herritar baino gehiagok hartu dute parte eta eurek emandako iritziak *Berbetan* izeneko dokumentalean jaso dituzte. Urteetan zehar Oñatin hirigintzarekin lotuta egon diren ekintzek eta jasandako aldaketek izan duten eraginaz hausnartu dute bertan herritarrek. Dokumentala laster egongo da ikusgai.



O.E.

## Yemen eta euskal armagintza Hotz Oñatiren hitzaldian

*Gerrak Bilboko portuan hasten dira* izeneko hitzaldia antolatu du gaurko, egubakoitza, Hotz Oñati taldeak. Yemengo egoeraz berba egitera etorriko dira hara sartzeko baimena duen Solidarios Sin Fronteras talde bakarreko bi kide. Gasteizko talde antimilitaristakoak, berriz, euskal armagintzaz arituko dira. 18:30ean da, kultura etxean.

## Hobari soziala berritu egin behar da argiaren fakturan aplikatzeko

Dagoeneko hobari soziala dutenek berritu egin behar dute dokumentazioa, aurrerantzean ere hobariak jasotzeko argindarraren fakturan. Nork bere hornitzailearekin berritu behar du dokumentazioa. CHC konpainia izanez gero, Merkaoñak Bidebarrieta kalean duen bulegoetan egin daiteke, apirilaren 10a aurretik.




Oinatur kooperatibako Edurne Urteaga oñatiarra Madrilgo Fitur azokan eguaztenean. E.U.

# Fitur azokan izan dira Oñatikoak, beste behin

Tableta eskuetan hartuta, euskal zein espainiar agentzia ezberdinetako ordezkariekin egin dituzte bilerak Oñatiko eskaintza aurkezteko. Beste lurralde batzuetan nola lan egiten duten ikusi dute eta ideia berriak hartzeko ere aprobetxatu dute azoka

**Oihana Elortza** OÑATI

Madrilen egiten ari diren turismoko nazioarteko azokan izan da, beste behin, Oñatiko Turismo Bulegoa eta Arrikrutz kobak kudeatzen dituen Oinatur kooperatibako ordezkaritza. "Aurreko urteetan bezala, Oñati erakustera etorri gara. Non gauden, nolakoa den gure herria eta ingurua, zer dagoen ikusteko, zer gozatzeko... Hainbat bilera egin ditugu hemen dauden bidaia agentziekin eta beste erakunde batzuetako ordezkariekin. Geuk geurea erakutsi eta eurek egiten dutena ikusi", azaldu du Edurne Urteagak.

### Hitzorduak

Eguaztenean joan zen Urteaga Madrilera eta gaur, egubakoitza, etorriko da bueltan Oñatira. Joan orduko hainbat bilera zituen lotuta han egiteko. "Bilera informatiboak izaten dira, nork bere ingurua, bere eskaintza, besteari erakusteko. Telefono zenbakiak ere partekatzen ditugu, kontaktuak egin, jendea ezagutu. Normalean, Euskadiko postuko bilera gelan egiten ditugu hitzorduak. Eguazten goizean, adibidez, bi euskal agentziarekin egon ginen. Batek turismo aktiboarekin egiten du lan, gehienbat, baina besteak hasi gastronomiatik eta kulturaraino. Biei erakutsi diegu guk hemen zer dugun. Adibidez, Estatuko beste agentzia batekoek euren standetik pasatzeko esan ziguten, eta eurengana joanda erakutsi genien gure eskaintza".

Euskadiko postuan hainbat sail dituzte: EAEko hiru hiriburuak, kostaldea, euskal mendiak eta gastronomia. Euskal mendien gunean daude, adibidez, Oñatiko eta bailarako eskuorriak.

### 'Q ZIURTAGIRIA' BERRITU DU OÑATIKO TURISMO BULEGOAK ETA GONBIDAPENA JASO DU GALARAKO

"Horiek aurretik bidaltzen ditugu, azoka muntatzerako han izan ditzaten. Geure eskaintza tableta baten bitartez erakusten diegu interesatuei. Mapak, argazkiak, bideoak... ditugu hor sartuta, eta erraz ikusten da zer dugun Oñatin", dio Edurne Urteagak.

Baina Oñatiko eskaintza aurkeztu ez ezik, beste lurralde batzuetako turismo bulegokoek nola lan egiten duten edo agentziek zer eskaintzen duten ere kontuan hartzen dute beti Madrilgo azokan. "Beti da interesantea beste batzuek nola lan egiten duten ikustea. Ideia berriekin bueltatzen gara askotan, gurera aplikatzeko", esan du Oñatiko Turismo Bulegoko ordezkariak.

Turismoaren *Q ziurtagiria* berritu du Oñatiko Bulegoak eta eguen iluntzean azokan egin behar zuten *Q* sarien ekitaldi nagusira zeuden gonbidatuta. Mankomunitateak Eden saria jaso du Inaziotar Lurraldeagatik.




Zekak ateratako postala eta zigilua. ZEKA

## Trenaren azken bidaiaz oroitzeko postala eta zigilua

Filatelia eta numismatika elkarteak atera ditu eta Turismo Bulegoan daude salgai hiru eurotan

**O.E.** OÑATI

Herriko Zeka filatelia eta numismatika elkarteak postal bat eta zigilu bat argitaratu ditu, gogora ekartzeko Oñati eta Elorregi batu zituen trena desagertu zenetik 50 urte pasa direla.

Postalaren alde batean, tren hark egiten zuen ibilbidea agertzen da, garai hartako argazki zahar batekin batera. Oñatiko geltoki nagusiaz gain, Torreauzoko, Madalenako eta Zubillagakoak ere agertzen dira, Elorregira heldu aurretik. Ibilbideaz gain, inaugurazio egunean izan zuten menu luzea ere agertzen da, 1923ko irailaren 30ean Aldundiko eta udaleko ordezkariek bazkaltzeko izan zutena, hain zuzen. Atzeko aldean zigilua dago. Horrelako 100 postal daude salgai Turismo Bulegoan, bakoitza hiru euroren truke.

### Mende erdi

Abenduaren 31n bete ziren 50 urte Debagoiena zeharkatzen zuen Vasco-Navarro trenak azken bidaia egin zuenetik. Orduko trenaren lokomotorra lehengo geltokiaren ondoan dago, egun postetxea den eraikinaren ondoan.



O.E.

## Bide zuzena bidegorrira

Olabarrietan, Udana mendatearen hasieran, bidexka txiki bat egin dute bidegorrira zuzenean joateko. Auzo horretako gune horretan dauden Aldabe eta Errosta baserriek egindako eskaera izan da, batez ere. Orain arte, errepidea gurutzatu behar zuten bidegorrira sartzeko edo bidegorritik irten eta etxerako bidea hartzeko.


Unai Cueva, Arrikrutz-Aloña Mendiko taldekidea, Oñatiko ziklo-kros proban. IMANOL SORIANO

# Ziklo-kros denboraldian egindakoarekin "pozik"

Denboraldia bukatu berri dute Arrikrutz-Aloña Mendi taldekoek; lau pertsonak jardun dute kadete mailan eta hiruk junior kategorian. Oro har, egindakoarekin "pozik" dira txirrindularitza saileko kideak. Orain, errepideko lasterketak prestatzea dagokie

**Iker Oñate** OÑATI
Asteburuan bukatu zuten Arrikrutz-Aloña Mendi ziklo-kros taldeko mutilek denboraldia –ez da neskarik taldean–. Eta jada eskaini dute egindakoaren bueltako baloraziorik. "Oso denboraldi ona izan da aurtengoa. Taldekoek lehen postuetan bukatu dituzte lasterketak, lehen hamaboste artean. Urteko sailkapenean ere, beste horrenbeste. Pozik egoteko modukoa da hori, duda barik", aitortu du Ruper Arkauzek, Arrikrutz-Aloña Mendi taldeko ordezkariak.

Dena den, Arkauzek argitu du euren helburua ez dela sailkapenean oinarriturikoa: "Egiten dutenaz gozatzea da xede nagusia; ez, irabaztea. Egia da halako emaitzek ere pozten zaituztela, baina, esandakoa. Finean, denboraldian zehar egindako lanaren –entrenamendu saioetan, esaterako– emaitza da hori".

Bestetik, esan beharrekoa da aurtengo denboraldian izan dela aitortzarik oñatiarrentzat. Besteak beste, Aimar Erostarbe txirrindularia bere kategoriako onena izan zen Legazpiko proban. "Lasterketa berezia izan zen, duda barik", aitortu du Arkauzek. Horrez aparte, Oñatiko hitzorduan ere izan zen esangura handiko aitortzarik: Garazi Erostarbe –Gipuzkoa Ogi Berri taldea– eta Unai Cueva oñatiarrek euren egin zuten Gipuzkoako txapeldunaren maillota.

### Zazpi txirrindulari

Guztira, zazpi kidek jardun dute aurten Arrikrutz-Aloña Mendi taldean: lauk, kadete mailan; eta hiruk, junior kategorian. Oñatiko lasterketa izan zen horietako baten estreinakoa. Horrenbestez, denboraldia hasi zuenean baino kide gehiagorekin bukatu du txapelketa ziklo-kros taldeak. Eta, oro har, esan daiteke horiek guztiek erregulartasunari eustea lortu dutela, "aparteko gorabehera barik".

**GIPUZKOAKO TXAPELDUN IZAN DIRA EROSTARBE ETA CUEVA OÑATIARRAK, EUREN KATEGORIETAN**

### Lasterketa, herrian

Besteak beste, azken urteetako ohiturari jarraiki, ziklo-kros lasterketen egutegian izan da Urrutxukoa –Oñati–. Eta antolatzaileak pozik azaldu dira probak eman zuenarekin. "Ederra izan zen. Ondo irten zen guztia, eta ez zen aparteko kexarik izan. Pozik gaude egunak eman zuenarekin", dio Arkauzek.

### Orain, errepidera

Ziklo-kros denboraldia bukatuta, errepideko lasterketetan hastea dagokie txirrindulariei; hilabete erdiko atsedenaldiaren ostean ekingo diote horri. Horretarako, orain artekoa egokitu beharra dute –entrenamendu saioak, tartean–. Aurrera begira jarriak dira, beraz.


Urrutia eta Otamendi pilotari oñatiarrak, iaz. IMANOL SORIANO

## Herriko pilotariak, Gipuzkoako Udaberri Sarian

Hainbat partidu izango dira aste bukaeran Zubikoa pilotalekuan, egubakoitz eta zapatu arratsaldeetan

**I.O.** OÑATI
Aurreko aste bukaeran hasi zen udaberriko pilota txapelketa. Herriko hainbat pilotarik dihardute bertan, eskuz binaka. Eta, gainera, kategoria guztietan da herriko ordezkaririk –alebinen eta nagusien artean–. Hain zuzen ere, herriko hamasei bikotek dihardute txapelketan murgildurik.

### Asteburuan, pilota partiduak

Bada, hemendik aurrera, ohikoenean, asteburuuro izango dute partidua herriko pilotariek –ligaxkak salbuespenik egitea eragin ezean–; horietako batzuk, Zubikoan bertan. Horrekin lotuta, asteburu honetan ere bada partidurik Oñatin: gaur –18:30ean hasita– eta bihar –17:00etatik aurrera–.

Zehatz esanda, zortzi bikotek jardungo dute asteburuan, Gipuzkoako beste hainbat herritako pilotarien kontra, nor baino nor gehiago: Etxegarai-Perez, Bermejo-Altzelai, Urrutia-Perez, Baseta-Amilleta eta Biain-Otxoa bikoteek jardungo dute gaur; eta Madinagoitia-Juaristi, Sarabia-Zabaleta eta Barrena-Bengoa bikoteek, ostera, bihar.

## Urteko martxa irauli guran jardungo du Aloñak Azkoagainen

Denboraldiko hirugarren partidua galdu zuen Aloña Mendi futbol taldeak Idiazabalen (2-0). Hala, oñatiarrek puntuak ezin lortuta ekin diote 2018ari; jokaturiko bi partiduak galdu dituzte. Dena den, atzekoekiko tarte murritzagoa duten arren, lehen postuari helduta segitzen dute –3 puntura dute Eibar Urko–. Eta nagusitasun hori sendotzeko helburuarekin jardungo dute domekan, Azkoagain futbol zelaian, Antzuolaren kontra jokatuko duten derbian; 16:30ean hasiko da partidua. Hain zuzen, hamabosgarren postuan dira antzuolarrak –hamasei talde daude–. Bide zuzena berreskuratzeko aukera dute, beraz.

## Irteera gehiago iragarri ditu herriko mendi sailak

Urte berria hastearekin iragarri du Aloña Mendiko mendi sailak 2018rako irteera sorta. Domekan egingo dute lehena: Arlaban eta Araotz arteko bidea egingo dute. Oñatin hasiko dute ikasturtea, beraz. Eta, guztira, hamaika irteera iragarri dituzte urte berrirako; abuztuan izan ezik, hilero egongo da mendi ibilaldirako aukera. Hain zuzen, otsailaren 18an egingo dute hurrengo irteera, Altzania mendikatera. Horiez gain, bestetik, Gorbeia, Montes Obarenes eta Sierra Salvadan ibiliko dira herriko mendizaleak. Antolatzaileek gogorarazi dute, ostera, irteeretan esku hartzeko aurrez eman behar dela izena.


*Txarriboda* antzezlana entseatzen. HIKA TEATROA

# 'Txarriboda' komedia basatia etzi Santa Anan

Hika Teatroaren azken lana da 'Txarriboda' eta etzi, domeka, 19:30ean egongo da hori ikusteko aukera. Ezkontza basati bat irudikatuko dute protagonistek. Agurtzane Intxaurragak idatzi du gidoia; protagonisten inprobisazioa da obraren abiapuntua

**Miren Arregi** OÑATI
Ezkontza bat da *Txarriboda*. Ezkontza basati bat. Eta labetik atera berri-berri dator Oñatira. Etzi, domekan, izango da emanaldia, arratsaldeko zazpietan, Santa Ana antzokian. Sarrerak 10 euro balioko du. Hain zuzen ere, bihar egingo dute lehenengoz antzezlana, Irungo Niessen aretoan. Oñatikoa jende aurrean egingo duten bigarrena izango da, beraz. "Komedia basatia" dela dio Kepa Errasti aktoreak, antzezlanaz galdetuta. "Ukitu tragikoak dituen komedia basatia". Hain zuzen ere, Mireia eta Imanol ezkontideen arteko ezkontza da antzezlanaren muina, eta testua aktoreen inprobisaziotik abiatuta idatzi du Agurtzane Intxaurragak. Kepa Errasti aktore aretxabaletarraren kolaborazioa izan du lan horretan. "Irailean hasi ginen inprobisazio saioekin, eta gero, Agurtzanek berak eman dio forma testuari. Nik lagundu egin diot, prozesua zaila izan baita", dio Kepa Errasti aktore aretxabaletarrak. "Ideia asko kendu behar izaten dira; beste batzuk, berriz, hartu eta garatu... eta bidea ez da erraza".

### Itxurakeria

Ezkontza basati bat irudikatuko du, esan bezala, Hika Teatroaren azken ekoizpenak. "Bodetan badago halako itxurakeria bat, gizartean bertan ere badagoena", eta hori da antzezlanak irudikatu gura duena. "Txarriboda bera baserrian txerria hiltzen deneko ekintza hori da, liturgia kutsua duena. Ezkontzek ere badute liturgia kutsu hori, eta hortik dator antzezlanaren izena", dio Errastik. Gainera, "ezkontzetan txerriak bezala jan, edan eta dantza egiten da". Hortik, baita ere, lotura. Hasiera bateko "itxurakeria" hori, baina, protagonisten emozioen azaleratzean bilakatuko da.

**EUSKAL KANTUGINTZAKO ABESTI EZAGUNEKIN KABARET BAT OSATU DU HIKA TEATROAK**

### Kabareta

Inprobisaziotik abiatuta, kabaret forma hartu du antzezlanak. Euskal kantugintzako egungo eta lehengo abestiak hartu dituzte. Batzuei letra moldatu diete, gidoiarekin bat joan zitezen. Beste batzuk, Anariren *Naufrafoak*, esaterako, bere horretan utzi dituzte. Kanten letrak moldatzeko lanetan Onintza Enbeita aritu da eta *Txarriboda*-n entzungo diren abestien artean daude, besteak beste, Antxon Valverderen *Maitasunaz hil* kantaren melodia eta Afu taldearen *Oxigeno* eta Imanolen *Izarapean* abestiarenak.

Interpretazio fisikoak berak ere garrantzi handia du antzezlanean, eta entseguek iraun duten bitartean asko landu dute arlo hori.

# Kultura etxean ikusgai dago 'Lur azpitik lur azaleratuz'

Txinparta Elkarteak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak elkarlanean antolatutako erakusketa da hori

**M.A** OÑATI
Aranzadik eta Txinparta Elkarteak –San Cristobal Gotorlekuan errepresaliatuak izan zirenen memoria berreskuratzea helburu duen elkartea– antolatutako *Lur azpitik lur azaleratuz* izeneko erakusketa egongo da ikusgai martitzenetik, hilaren 23tik, otsailaren 4ra bitartean Oñatiko kultura etxean. 18:00etatik 20:00etara egongo da hori ikusteko aukera.

Nafarroako Ezkaba mendian dagoen San Cristobal gotorlekua kartzela izan zen Espainiako gerran eta ondorengo urteetan. 1938an gotorlekuan izan zen ihesaldiaren eta bertan Txinparta Elkarteak Aranzadi Zientzia Elkartearekin batera egin duen lanaren gainekoak jasotzen ditu erakusketak. Izan ere, 1938ko ihesaldian hil zituztenen gorpuak aurkitzeko eta hobitik ateratzeko lanetan ari da Txinparta Elkartea, horietako asko Iruñeko inguruetan eta Iparraldeko muga inguruan sakabanatuta baitaude oraindik, lurperatuta. Dagoeneko hobi batzuk aurkitu dituzte, eta 39 pertsonaren gorpuzkiak atera. "Hildako hauetako asko San Cristobal inguratzen duten hamabi herrietan lurperatu zituzten. Gaur egun, Antsoain, Berriozar eta Berriobeiti osatzen duten hamar herritan. Batzuk hilerrietan eta beste batzuk hilerrietatik kanpo. Identifikatzeko lana ez da erraza, baina lanean dihardugu", dio Elkarteko kide Koldo Plak.

### Hamalau debagoiendar

San Cristobalen, gutxienez, hamalau debagoiendar egon ziren preso 1934 eta 1945 urte bitartean. Sei oñatiar, bergarar bi, Aretxabaletako lau, arrasatear bat eta Leintz Gatzagako bat. Horietako baten gorpua, Jose Urrutia Anduaga aretxabaletarrarena, hain zuzen, lokalizatuta du elkarteak. Azpimarratu behar da bertan preso egon zen Pedro Jose Aspe Sagasta bergararra, gero nazien Alemaniako Dachauko kontzentrazio-esparruan gatibu-lanak egin ostean hil zela 1944an. Debagoiendarren artean, gainera, Felix San Pedro Lizarralde oñatiarrak 1938ko ihesaldian parte hartu zuen, eta Oteizan fusilatu zuten, Ezkabatik kilometro gutxira.

# 'Gabonkontra' kontzertua eta Abereh asteburuan gaztetxean

Musikaz betetako asteburua izango da oraingoa. Bihar 17:00etan eta etzi 19:00etan hasiko dira horiek

**M.A** OÑATI
Bihar, zapatua, arratsaldeko bostetan hasiko dira kontzertuak. *Gabonkontra* izenburua eman diote ekitaldiari, eta zortzi talde igoko dira taula gainera. Sarrera bost euro kostako da. Lokuria taldea izan ezik –talde oñatiarra da hori–, beste guztiak kanpotik etorriko dira: Pas, Tolosatik; Pato Pato, Zarauztik; Veganpiranha, Iparraldetik; Paniko, Zarautz eta Oreretatik; Ikaära, Laudiotik; Üther eta Blank Slate, Frantziatik, hain zuzen ere.

Hurrengo egunean, domekan, Abereh taldearen txanda izango da. Erik Berganzaren bakarkako ezizena da Abereh. 2016an eta 2017an zehar egindako zazpi kantu eskainiko ditu, 17:00etan hasiko da emanaldia eta sarrera hiru euro kostako da.

Astelehenean, oso bestelako saioa izango da gaztetxean: Juankar Olaetak autoformakuntza saioa eskainiko du, *Josu Nazaretekoaren bizitza; hainbat irakaspen kultural eta sozioekonomiko* izenburupean. 18:30ean hasiko da saioa.



Irizar eta Aristi gertu daude Kontinental Profesional mailara Muriasekin saltoa egiteko; erretratuan, Angiozarrera bidean. X.URZELAI



**MIKEL ARISTI**
BERGARA

- **Jaiotza-data:** 1993ko maiatzaren 23a.
- **Aurreko taldeak** Delko Marseille KTM, Euskadi Fundazioa, Lokatza.
- **Ezaugarriak** Esprintean espezialista izan barik, azken metroetan ziklista azkarra da, eta ordekan ondo doana.



**JULEN IRIZAR**
BERGARA

- **Jaiotza-data:** 1995eko martxoaren 26a.
- **Aurreko taldeak** Murias, Ampo, Debabarrena, Lokatza.
- **Ezaugarriak** Ondo moldatzen da mendate ertainetan, eta azken metroetan gizon azkarra da.

# "Orain, ziklistoi dagokigu errepidean saltoa ematea"

**MIKEL ARISTI ETA JULEN IRIZAR** TXIRRINDULARIAK

**ZIKLISMOA** Euskadi Murias taldeak Kontinental Profesional mailara salto egingo duen urtean, Debagoienak bi ordezkari izango ditu errepidean, baina gehiago dira taldean

**Xabier Urzelai** BERGARA

Proiektu hau jaio zenetik, 2014an, urte bakoitza erronkaz betetakoa izan da. Hain zuzen ere, honaino iristeko, askok bota dute izerdia, eta ziklista batzuen ametsak bidean geratu dira. Orain, beste batzuek dituzte amets horiek egia bilakatzeko aukera, eta horretarako urte aproposa da aurretik datorrena. 2018a bereziki da garrantzitsua Euskadi Murias taldearendako, bere ibilbidean beste aurrerapauso bat eman du eta, Kontinental Profesionalera salto eginda.

**Mikel, astebete egin duzue Benidorm inguruan entrenatzen. Ze itxura hartu diozu taldeari?**

**Mikel Aristi:** Bada, gustura egon naiz. Niretako, lehenengo hartu-emana izan da talde berriarekin eta eroso sentitu naiz. Uste dut urte polita egiteko moduko taldea daukagula.

**Julen, urtarrila badoa aurrera; hastera doa txirrindularitza ikuskizuna.**

**Julen Irizar:** Bai, datorren astean bertan taldea martxan jarriko da; batzuek Mallorcako Challengean egingo dute debuta eta guk ere asteburu horretan izango ditugu lehen lasterketak. Egia esan, gogotsu gaude.

**Dagoeneko jakinekoa da hasierako hilabete hauetan taldea Mallorcako Challengean, Kataluniako Voltan, Andaluziako Itzulian... egongo dela. Egutegia poliki-poliki badoa itxura hartzen, eta hitzordu handietan izango zarete.**

**Irizar:** Egutegi aldetik ezin dugu kexarik izan, lasterketa garrantzitsuetan lehiatzeko aukera izango dugu eta. Orain, geratzen dena da guk maila ematea.

**Mikel, azken bi urteak Frantzian egin dituzu, Delko Marseille KTM taldean. Zelako urteak izan dira?**

**Aristi:** Denetik izan dut, ona eta txarra. Lehenengo urtea oso zaila izan zen, gaixo egon nintzen [birus batek pikutara bota zuen denboraldia] eta ez nuen batere gozatu. Bigarren urtean, berriz, momentu onak izan ditut, eta orain, ikuspuntu orokor batetik ikusita, esperientzia positiboa izan dela uste dut. Ziklista moduan hazi egin naizela uste dut, eta sekulako ilusioarekin nator talde berrira.

**Urte txar batetik datorren ziklista batendako helmugan besoak altxatzea arnasa hartzea da. Konta egiguzu Afrikako esperientzia hura [otsail amaieran Amissa Bongoko itzuliko lehen etapa irabazi zuen, esprintean].**

**Aristi:** Bizipen ederra izan zen. Itzuli hartan Europako eta Afrikako taldeak batu ginen, eta abentura moduan hartu genuen lasterketa. Arazoak leku guztietan gertatzen dira, baita World Tourreko lasterketetan ere, baina Afrikan, zoritxarrez, ez dituzte hemen ditugun baliabideak, eta txirrindularitzan ere igarri egiten da hori. Etapa bat, esaterako, bertan behera utzi behar izan zuten antolatzaileek hainbat arazorengatik. Baina beste txirrindularitza bat ezagutzeko aukera eman zidan, Afrika gertuagotik ezagutzeko aukera, eta horrekin geratzen naiz.

**Julen, zuk iaz egin zenuen Kontinental mailan lehen urtea; bigarren urtea duzu taldean. Jon Odriozola zuzendariak aitortu du kategoria berriak zorroztasun handiagoa eskatzen duela.**

**Irizar:** Taldeak hiru urte egin ditu Kontinental mailan eta nire iazko urtean momentu onak eta ez horren onak izan nituen. Orain, koska bat gorago egotea eskatuko digute, kategoriaren izenak berak horixe eskatzen du eta.

**Taldean badituzue lidergoa hartzeko ardura izango dutenak. Eta beste batzuek horien ondo ondoan egon beharko duzue.**

**Irizar:** Halaxe da. Iazkoa, niretako, ikasteko urtea izan zen, profesional mailan lehiatzea zer den ikusteko urtea. Aurtengoak egonkortzeko urtea izan behar du, eta taldera etorri diren eta lider izateko ardura duten horiei laguntzea tokatuko da.

**"ORAIN, GUK EMAN BEHAR DUGU NEURRIA ERREPIDEAN"**

**"EGUTEGIA? ZENTZU HORRETAN, EZIN DUGU KEXARIK IZAN"**

**"LASTERKETETAN ERRITMOA GOGORTU EGINGO DA"**

**Dagoeneko zehaztu duzue zuen egutegia nondik norakoa izango den?**

**Irizar:** Nik denboraldi hasiera Frantzia inguruan egingo dut, bertan egongo naiz-eta hilabetez. Marseillan dut lehenengo lasterketa, bertan egiten duten klasiko bat izango da lehenengoa, eta ondoren, iparralderago dauden beste bizpahiru itzuli egingo ditut, ia jarraian.

**Eta zuk, Mikel?**

**Aristi:** Ni Kolonbian hasiko naiz, otsailaren 6tik 11ra bitartean egiten duten itzuli batean –Colombia Oro y Paz– eta handik bueltan ikusi egin beharko da zelan itzultzen garen, eta orduan baloratuko dugu ze lasterketatan egon gaitezkeen.

**Aurrerago datoz, esaterako, Euskal Herriko Itzulia, Vuelta edota Donostia Klasikoa moduko lasterketak, eta taldea bertan egon daiteke. Horietan irteera puntuan egotea ametsa izango litzateke.**

**Aristi:** Orain esan duzu; umetatik amestu egin dugu horietan egotearekin. Orain, ametsa izan beharrean helburu bilakatu da Muriasi esker, hor egoteko aukera ematen digulako taldeak.

**Julen, Espainiako Vuelta. Munduko hiru asteko itzuli handienetako batean egoteko aukera izan dezake taldeak.**

**Irizar:** Ametsa da, bai. Taldeak hor egoteko aukera dauka, baina uste dut oraindik, niretako, goiz samar dela, gaur-gaurkoz handi geratzen zaidan kirol erronka bat da.

**Batez ere, lasterketako iraupenagatik diozu?**

**Irizar:** Hori da. Orain arte ikusi dut lasterketa egunak bata bestearen ostean kateatzen ditudanean nire kirol mailak behera egiten duela. Horrenbestez, ez dut pentsatu ere egin gura zer gertatuko litzatekeen hiru astetako lasterketa batean. [Barre]

**Hori galdetu nahi dizuet. Ziklista moduan, ze arlo indartu gura duzue aurten?**

**Irizar:** Bada, orain aipatu duguna, erregularrago izatea falta zait. Itzuli bateko etapa ezberdinetan maila antzerakoan jardun gurako nuke, beherakada nabarmenik izan barik.

**Aristi:** Arlo guztietan gurako nuke koska bat gora egin: aldapa gora, lautadan, esfortzuetatik errekuperatzeko orduan...



Debagoieneko ukitua izaten jarraituko du Euskadi Muriasek. ANGEL EZKURRA

## Taldea ofizialki aurkeztu zuten atzo

Atzo –eguena– aurkeztu zuten, Gasteizen, Euskadi Murias talde berritua: "Gaur, egun handia da, euskal talde bat berriro ere munduko lasterketa onenetara itzultzen delako", adierazi zuen taldeko zuzendari Jon Odriozolak. Hala, urteetako lanaren ostean errealitate egin den ametsa amari eskaini zion oñatiarrak. Horrekin batera, esker oneko berbak izan zituen babesle den Murias Taldearendako, proiektu horretan sinestearren.

Hain zuzen, errepidean Mikel Aristi eta Julen Irizar izango dira talde horretan Debagoiena ordezkatuko dutenak. Baina ez dira bakarrak izango. Aipatu bezala, Jon Odriozola oñatiarra izango da proiektuaren buru; azken urteotan moduan, masajista lanetan jarraituko du Jon Rivero bergararrak, eta Eneko Garai aretxabaletarra izango da mekanikarietako bat.

## ATLETISMOA Urrezkoa Malen Ruiz de Azua atletarendako

Gipuzkoako pista estaliko txapelketan Malen Ruiz de Azuak denboraldiko lehenengo urrezko domina jantzi zuen, pertika saltoan 4,15eko marka eginda. Maialen Axpe bigarren izan zen –4 metro– eta Jonathan Perez ere bigarren sailkatu zen bere kategorian –4,45–.

Denboraldi hasiera izateko, marka ona egin zuen, baita ere, Ibai Fernandezek, 60 metroko lasterketan 7 segundoko langatik jaisteko gauza izan zen eta (6.98). Gazte mailako Aitor Uranga (7.61) eta Iker Menor (7.78) ere izan ziren, eta baita luzera-saltoan Mikel Agirre ere (6.06). Istar Dapena eta Iñigo Uribarren, berriz, ez ziren txapelketan egon, min hartuta daudelako.

Bestalde, Arrasateko atletismo taldeak jakinarazi du martxoaren 21ean egingo dutela Euskadiko Eskola Arteko kros Txapelketa, Mojategin, eta maiatzaren 26an infantil mailako Euskadiko Txapelketa.





Palista, jokoan. AIURRI.COM

## PILOTA Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketa etzi

Aretxabaletako Iturrigorri frontoian jokatuko dute, domekan, Euskal Herriko Kluben Arteko Gomazko Paleta Txapelketa (11:00). Gazte mailako emakumezkoak izango dira lehian, eta finalerdiak izango dituzte. Lehenengo partiduan, Su-Berri eta Errekaleor taldeek jokatuko dute, eta bigarrenean, Mendillorrik eta Auñamendik.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

EUSKAL LIGA

**Barakaldo-Leintz Ariz.**
Zapatua. 17:30. La Siebe.

OHOREZKO ERREGIONA.

**Hernani-UDA**
Domeka. 16:30. Zubipe.

**Añorga-Mondra**
Domeka. 18:00. Rezola.

**Urola-Bergara**
Zapatua. 16:00. Argixao.

ERREGIONAL PREFERE.

**Aretxabaleta-Lagun O.**
Domeka. 16:30. Ibarra.

**Mondra-Eibar Urko**
Domeka. 12:00. Mojategi.

**Bergara-Idiazabal**
Domeka. 16:30. Ipintza.

**Aloña Mendi-Antzuola**
Domeka. 16:30. Azkoaga.

LEHEN ERREG. IGOERA

**Dunboa-Aloña Mendi**
Zapatua. 15:30. Irun.

ERREGIONALA. KOPA.

**Ikasberri-Arizmendi**
Domeka. 10:00. Azpeitia.

EMAKU. IGOERA FASEA

**Ostadar-Bergara**
Domeka. 11:45. Lasarte.

OHOREZKO GAZTEAK

**Mondra-Urki**
Zapatua. 16:00. Mojategi.

**Bergara-Tolosa**
Zapatua. 16:30. Ipintza.

**Aretxabaleta-Urola**
Zapatua. 16:00. Ibarra.

**Elgoibar-Aloña Mendi**
Zapatua. 16:00. Mintxeta.

**ARETO FUTBOLA**

NAZIONAL MAILA

**Aretx. UDA-Internacio.**
Domeka. 12:00. Ibarra.

EUSKADIKO TXAPELK.

**Atxurre-Eskoriatza**
Zapatua. 18:00. Bakio.

**Mondrate-Labastida**
Zapatua. 17:30. Musako.

GIPUZKOAKO LIGA

**Mondrate-Zarautz**
Zapatua. 17:30. Musakol.

SENIOR EMAKUMEZKOA

**Eskoriatza-Trintxerpe**
Zapatua. 19:40. M. Muñoz

**SASKIBALOIA**

EBA

**Univ. Valladolid-MU**
Zapatua. 20:30. Valladolid

GIPUZKOAKO LEHEN M.

**Aloña Mendi-Zarautz**
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

GIP. BIGARREN MAILA

**Bergara Sora.-Goierri**
Zapatua. 16:00. Labega.

SENIOR EMAKUMEZKO

**Eskoriatza**
Jokatuta dute jardunaldia.

**ESKUBALOIA**

EUSKADIKO TXAPELKE.

**Basauri-Fagor Indust.**
Zapatua. 18:15. Basauri.

**Ford Mugarri-Ereintza**
Zapatua. 17:30. Iturripe.

EUSKADI. TXAP. EMAK.

**Elgoibar-Aloña Mendi**
Domeka. 11:30. Elgoibar.

GIPUZKOAKO TXAP.

**Eibar-Soraluce BKE**
Zapatua. 16:30. Ipurua.

**Ernio-Sesiñena Aloña**
Domeka. 12:00. Andoain.

GIP. BIGARREN MAILA

**Saieko-Arrasate**
Domeka. 12:00. Donostia.

GAZTE MAILA

**Leizaran-Aloña Mendi**
Zapatua. 17:30. Andoain.

**ERRUGBIA**

EUSKADIKO TXAPELKE.

**Atleti.-Kanpanzar ART**
Domeka. 11:00. Donosti.

**PILOTA**

GOMAZKO PALETA

**Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketa**
Domeka. 11:00.
Su Berri-Errekaleor
Mendillorri-Auñamendi

PILOTA FEDERATUA

**Oñati:**
Gaur. 18:30ean hasita bost partidu. Zapatua, 17:00 hiru partidu.

**Aretxabaleta:**
Gaur. 19:00ean hasita lau partidu.

**Bergara:**
Gaur. 21:30ean partidu bat.

**ESKALADA**

BOULDER TXAPELKETA

**Aretxabaleta. Ibarra kiroldegia.**
Zapatua. 17:30. Topaketa. Domeka





JAIME GARTZIA

## Ibarreko epaileak Juan Mugerzan

ATLETISMOA Elgoibarko Kroseko 75. edizioan bailarako hainbat epaile izan ziren lanean. Guztira, hamabi izan ziren –argazkian horietako hamar–, eta ibarrekoak dira Jaime Gartzia (Bergara) eta Jon Ormaetxea, Jesus Soto, Juan Carlos Martin eta Jose Ramon Petreñas arrasatearrak.

# "Literatura itzultzea opari bat, luxu bat da"

**AMAIA APALAUZA ETA IÑIGO ROQUE** JOKIN ZAITEGI SARIKETAKO IRABAZLEAK

Iazko Literaturako Nobel saridun Kazuo Ishiguroren 'The Remains of the day' liburua itzuliko du aurtengo bikote irabazleak, eta urte amaieran Elkar-ek argitaratuko du

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE

Euskal Filologia ikasi zuten Amaia Apalauzak (Iruñea, 1979) eta Iñigo Roquek (Portugalete, 1976). Literaturako eta beste arlo batzuetako zuzentzaile eta itzultzaile jarduten du Apalauzak, eta EHUko Euskara Zerbitzuko testu akademikoen zuzentzaile da Roque. Aspalditik jardun dute elkarrekin lanean, eta halaxe itzuliko dute Kazuo Ishiguroren liburua.



Amaia Apalauza eta Iñigo Roque, Jokin Zaitegi sariketako irabazleak. MARTIN ROQUE

**Zorionak! Pozik? Espero zenuten?**

**Amaia Apalauza:** Bai, oso. Pentsatzen genuen zaila izango zela, baina bagenuen esperantza. Esperantza baino gehiago, gogoa.

**Iñigo Roque:** Pozik geratu ginen bidalitako itzulpenarekin, baina horrek ez du esan nahi hobetu ezin zitekeenik, jakina.

**Zer dela-eta animatu zineten parte hartzera? Lehenengo aldia da?**

**A.:** Orain dela bi urte ere aurkeztu nintzen, Alexievitxen lana itzultzeko. Halako lehiaketak urregorrizko aukerak dira itzultzaileontzat. Tentazio txiki bat. Niretzat, literatura itzultzea opari bat da. Baldintza ekonomiko aldetik ere, txukuna da eskaintza; normalean, ohiko lanetik kanpo egin behar izaten ditugu halako lanak, ez baitira izaten ongi ordainduak. Lasaiago aritzeko aukera ematen du.

**I.:** Bagenuen gogoa zerbait biok biotara itzultzeko. Ez da aukera handirik izaten literatura euskaratzeko, eta testuak proposaturiko bidaia erabat tentagarria!

**Zeri buruzkoa eta zelakoa da?**

**I.:** Narrazioak hari bi ditu: batean, gainbeheran hasitako etxe nagusi bateko maiordomo baten bidaia kontatzen da, eta, bestean, etxe horren goraldian bizi izandakoak. Dena muga, dena formalitate, dena gerruntze estu… Eta, noski, bada amodiozko istoriorik ere tartean.

**Ze zailtasun ikusten diozue?**

**A.:** Zailena tonu egokia harrapatzea izango da, garai hartako maiordomo ingelesen hizkera berezi eta dotore hori islatzea.

**Eta zein da zuen indargunea?**

**A.:** Badugu esperientzia pixka bat literatura-itzulpengintzan, eta gogoa, sekulakoa; eta ongi moldatzen gara elkarrekin.

**Ze lan-prozesu jarraituko duzue?**

**I. :** Egutegi bat egin, dokumentazio-lanak gero, egilearen lanak irakurri… Testua bion artean itzuli eta zuzentzea da asmoa, baina baliteke, gero, kanpoko beste norbaitek irakurtzea.

## Glaukoma eta Autobus Magikoa taldeak Oñatiko gaztelekuan

Emanaldia 22:30ean hasiko da; sarrera ia guztiak salduta daude, baina leihatilan gutxi batzuk izango dira

**A. Aranburuzabala** OÑATI

Reggae eta rap doinuekin gozatzeko aukera izango da gaur, egubakoitza, Oñatiko gaztelekuan. Tolosako Glaukoma taldeak *Kalima* lana aurkeztuko du eta Oiartzungo Autobus Magikoak, iaz kaleratu zuen *Musker*.

Tolosarren laugarren lana da hori, urtebetez eta mimo handiz landutakoa; halaxe azaldu zuen taldeko abeslari Juantxo Arakamak *Puntua* aldizkarian. "Hutsetik hasi ginen geure musika birplanteatzen. Erritmoen aukeraketa, musikaltasuna, gaiak, errimak... Dena jarri genuen zalantzan disko hori egiten hasteko". Hala ere, bete-betean du lanak Glaukomaren marka, egunerokotasunean topatzen dituzten estimuluetan oinarritutako kantu zorrotzak rap eta reggae doinu bizi eta dantzagarriekin josita.

2015ean Oiartzunen sortutako Autobus Magikoa izeneko boskoteak zabalduko du emanaldia. Iaz jaietan Oñatin jo zuten eta musikalki ez daude tolosarrengandik oso urruti; horiek ere reggae doinuak dituzte ikur.

## Holokaustoaren biktimen omenezko biolin kontzertua

Vicente Cueva musikariak interpretatuko du Jorge Grundmanen obra, Seminarixoan, domekan, 19:00etan

**A.A.** BERGARA

Urteetako eskarmentua du Madrilen jaio baina asturiarra sentitzen den biolin-joleak; irakaslea da goi mailako Katarina Gurska eskolan, baina askotariko orkestretan ere parte hartzen du; adibidez, Bilboko Orkestra Sinfonikoan.

Jorge Grundman lagun eta konposiitoreak sortu eta apirilean Toledon estreinatu zuten *Shoah for solo violin and Sacred Temple partita* eskainiko du etzi, domeka, Bergarako aretoan. "Sei mugimendurekin osatuta dago. Musika deskribatzailea da, eta publikoa hunkitzea du helburu nagusi. Holokausto garaiko istorio gogorrak jasotzen ditu; Grundmanen aitona-amona juduen eta, orokorrean, holokaustoko biktimen memoria berreskuratzeko asmoa du eta horrelako gehiago ez gertatzeko itxaropenerako bidea zabalik uzten du. Jaime Arranz aktorea izango dut taularen gainean lagun, haren narrazioek lotuko dituzte piezak. Publikoa negarrez ikusi dut, baina aretotik irribarre batekin ateratzen gero".

HARIRA
GOIENA TELEBISTA
URTARRILAREN 23AN, MARTITZENEAN, 21:30EAN
GONBIDATUA: IZASKUN LANDAIDA, EMAKUNDE EMAKUMEEN EUSKAL ERAKUNDEKO ZUZENDARIA
ENEKO AZKARATEK AURKEZTUTA
LAGUNTZAILEA:
Markiegi
goiena
Zu hemen zaude.


# Putin-ek debekatutakoak Kooltur Ostegunetan

Svetlanas izeneko punk-hardcore talde oldarkorra izango da Arrasateko gaztetxeko agertokian datorren eguenean, 22:00etan. Olga abeslari errusiarrak gidatzen duen taldearen ikur dira eskaintzen dituzten amorruz betetako zuzeneko indartsuak

**A. A/ I. B.** ARRASATE
Nazioarteko musika taldeak gonbidatu dituzte Kooltur Ekintzak taldekoek urtarrileko eguenetako egitarauan parte hartzeko: Kolonbiako 1280 Almas igo zen atzo Arrasateko gaztetxeko agertokira, eta datorren eguenean Italian sortu baina jatorri askotariko kideak dituen Svetlanas izango da protagonista.

### AEBetan egin ziren ezagun

"Svetlanas taldeak Estatuan lehenengo bira egingo du eta bira horretako kontzertu bat Arrasaten egiteko proposamena jaso genuen. Zeresan handiak sortu dituen taldea da, dituzten kantuen hitz kritikoengatik, batetik, baina, bereziki, taldeko abeslari Olgaren amorruzko jarreragatik. Errusiarra da Olga, baina haurra zela amarekin Italiara erbesteratu zen; gaur egun, Olgak debekatua du Errusian sartzea", dio Kooltur Ekintzak taldeko Iker Barandiaranek.



Svetlanas taldeko abeslaria. SVETLANAS

AEBetan egin ziren ezagun eta geroago Europan ere izena hartzen joan ziren. Taldeko abeslari Olgak kontatu moduan, ez dute sekula Errusian jo, eta, oraingoz zaila dute, abeslariak galarazita du-eta 2014az geroztik Errusian sartzea. "2009tik, taldea sortu genuenetik, errepidean gabiltza eta bidean jende oso ona eta nazkagarria ere topatu dugu. Jende on hori guri buruz hitz egiten hasi zen eta eurei esker jarraitzen dugu bidean. Ez gara musika talde huts bat, mezu bat dugu eta ni pozik nago mezua muinera heltzen dela ikusita", dio abeslariak.

### Amorruz betetako emakumea

Abeslariaren ustez, "ezagunagoak dira zuzenekoetan eskaintzen dituzten ikuskizunagatik sistemaren aurka aritzeagatik baino". Gaur egun bost kide direla gaineratu du. "Pentsaera bereko bost pertsona gara, eta iraganean beste hainbat taldekide izan ditugu. Munduko bandarik arriskutsuena gara. Uste dut punk-eszenan dabilen edozeinek beharko lukeela amorruzko jarrera hori izan. Svetlanas musika talde bat da guretzako, baina baita gure doktrina ere".

## Agertokira igotzeko aukera berriak Aldundiaren eskutik

Zabalik dago 'Katapulta Tour Gipuzkoa' musika eta formatu txikiko arte eszenikoetako zirkuiturako epea

**A. Aranburuzabala** ARRASATE
Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol sailek Kutxa Kulturrekin batera bultzatzen dute, Donostia Kulturarekin eta Buenawista Prolleckziom's-ekin elkarlanean. Helburuak dira Gipuzkoako artisten garapen profesionala sustatzea, lurraldeko kultura dinamizatzea eta kultura-programazio guneen ikusgaitasuna bultzatzea.

### Izena emateko azken egunak

Urtarrilaren 22an amaitzen da 2018ko zirkuituan parte hartzeko eskaera aurkezteko epea. Musikaren eta arte eszenikoen esparruetan garatu nahi duten artista berrientzat, profesionalentzat edo erdi-profesionalentzat da deialdia.



Amaia Arriaran aktorea. IÑAKI ALBERDI

Sei proiektu aukeratuko dituzte eta honako hau eskainiko zaio bakoitzari: hiru emanaldi Gipuzkoako hainbat aretotan, 400 euro emanaldi bakoitzeko eta artista edo proiektua sustatzeko bideo baten grabazioa. *Gipuzkoangazte.eus* atarian daude oinarriak eta bestelako informazioa eskuragarri.

### Bergarako aktorea iazkoan

Amaia Arriaran bergararrak eta Nerea Ariznabarreta eibartarrak iazko zirkuituan eskaini zuten *Berriz topatzean* antzezlana; Eibarren, Errenterian eta Deban izan ziren.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko urtarrileko sariak!


Tableta:
Lenovo tab-2 A10-30
Parte hartzeko sariaren izena: Tableta
EROSKI ARRASATE


Glaukoma
CD-a sinatuta.
Parte hartzeko sariaren izena: Glaukoma


Sarrerak
Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz
ARRIKRUTZ


Otarrea
Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

PARTE HARTZEKO:
E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Irabazi bi lagunendako otordua
DUKIENA JATETXEARI ESKER
Begiratu Puntua aldizkariko Otorduan atala eta hartu parte!
943 25 05 05 kluba@goiena.eus
KLUBA Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Irabazi bi lagunendako sarrerak
Arrasateko Udalari esker
'Esto no me lo esperaba' ikuskizunerako sarrerak ditugu.
Arrasate | Amaia Antzokia | Urtarrilaren 28an | 19:30ean
Bergarako Udalari esker
'Jon Braun' haurrentzat antzerkia.
Bergara | Seminarixoa | Urtarrilaren 27an | 18:00etan

PARTE HARTZEKO: URTARRILAREN 24A
E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "ikuskizunaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.


Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...
Bazkidetu orain 2018rako 56€ ordainduta.
Deitu: 943 25 05 05. kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

OROIGARRIA

## Maite Garcia de Salazar Aguirregoicoa



2018ko urtarrilaren 14an hil zen, 48 urte zituela.

*Kuadrillako txinparta joan zaigu,*
*baina zu bezalako izarrak ez dira inoiz itzaltzen.*
*Maite zaitugu.*

Zure kuadrillakoak.
Eskoriatzan, 2018ko urtarrilaren 19an.

OROIGARRIA

## Maite Garcia de Salazar Aguirregoicoa



2018ko urtarrilaren 14an hil zen, 48 urte zituela.

*Iraganak, orainak eta etorkizunak bat egiten duten lekuan*
*berriro elkartuko gara.*
*Beti izango zaitugu gurekin.*
*Laster arte eta musu bat, Maite.*

69ko kintada.
Eskoriatzan, 2018ko urtarrilaren 19an.

OROIGARRIA

## Maite Garcia de Salazar Aguirregoicoa

June Castañedaren ama

2018ko urtarrilaren 14an hil zen.

*Bat egiten dugu senideen saminarekin.*

Kurtzebarri BHIko langile, guraso eta ikasleak.
Aretxabaletan, 2018ko urtarrilaren 19an.

OROIGARRIA

## Jose Luis Arratibel Lahidalga



2018ko urtarrilaren 12an hil zen, 72 urte zituela.

*Eskerrik asko zure lanagatik.*
*Herria beti zurekin.*
*Mila esker.*

Zure lobak: Izaskun, Idoia, Jose Luis, Mirari, Jon eta Ander.
Aretxabaletan, 2018ko urtarrilaren 19an.

OROIGARRIA

## Jose Luis Arratibel Lahidalga



2018ko urtarrilaren 12an hil zen, 72 urte zituela.

*Aretxabaletako Andra Mariaren Zeruratzearen parrokiak eskertzen*
*dio bihotz onez egin duen zerbitzua.*

Aretxabaletan, 2018ko urtarrilaren 19an.

OROIGARRIA

## Carlos Elorza Sasieta



2018ko urtarrilaren 11n hil zen, 86 urte zituela.

*Txistu eta danbolinarekin kaleak bizitu dituzun moduan,*
*zure irribarrearekin gure bihotzak alaitu dituzu.*

Anai-arrebak eta koinatu-koinatak.
Bergaran, 2018ko urtarrilaren 19an.

OROIGARRIA

## Jokin Agirre Arrizabalaga



2018ko urtarrilaren 16an hil zen, 52 urte zituela.

*Inoiz ez dugu ahaztuko zuk emandakoa.*
*Negarrik ez, agurrik ez.*
*Musu bat.*

Arrasateko kuadrillako lagunak.
Arrasaten, 2018ko urtarrilaren 19an.

OROIGARRIA

## Jokin Agirre Arrizabalaga



2018ko urtarrilaren 16an hil zen, 52 urte zituela.

*Hitzez arindu ezin dugun saminean,*
*bihotzez, ondoan gaituzue.*

*Agur, Jokin,*
*maite zaitugu.*

Jokin eta Mirenen kuadrilla.
Arrasaten, 2018ko urtarrilaren 19an.

OROIGARRIA

## Jokin Agirre Arrizabalaga



Ikastolako langilea

2018ko urtarrilaren 16an hil zen, 52 urte zituela.

*Ikastolak non beharra,*
*han hengoelako,*
*Arizmendi kide denok,*
*Mondrauetik Eskoitzaino,*
*ez diagu besterik*
*esker ona baino.*

Arizmendi Ikastolako langile, guraso eta kolaboratzaileak.
Leintz bailaran, 2018ko urtarrilaren 19an.

OROIGARRIA

## Jokin Agirre Arrizabalaga



2018ko urtarrilaren 16an hil zen, 52 urte zituela.

*Beti izango zaitugu gogoan.*
—
Bat egiten dugu senideen saminarekin.

San Formerioko ehiza elkarteko lagunak.
Arrasaten, 2018ko urtarrilaren 19an.

OROIGARRIA

## Jokin Agirre Arrizabalaga

2018ko urtarrilaren 16an hil zen, 52 urte zituela.

*Bat egiten dugu senideen saminarekin.*

Mirenen lankideak.
Soraluzen, 2018ko urtarrilaren 19an.

OROIGARRIA

## Jokin Agirre Arrizabalaga

2018ko urtarrilaren 16an hil zen, 52 urte zituela.

*Beti izango zara gure artean*
*Kurtzetako zelaian.*

Aramaioko Tiro Platoko lagunak.
Aramaion, 2018ko urtarrilaren 19an.

ESKER ONA

## Joakin Azcoaga Huete



2017ko abenduaren 27an hil zen, 63 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan zuen babesa eta gertutasuna adierazi diguzuen guztioi.
Bihotz-bihotzez, besarkada handi bana familiaren izenean.

Arrasaten, 2018ko urtarrilaren 19an.

ESKER ONA

## Juan Mari Gorosabel Ayastuy



2017ko abenduaren 31n hil zen, 63 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2018ko urtarrilaren 19an.

ESKER ONA

## Dionisio Arrizabalaga Irasuegi



2018ko urtarrilaren 16an hil zen, 97 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2018ko urtarrilaren 19an.

ESKER ONA

## Carlos Elorza Sasieta



2018ko urtarrilaren 11n hil zen, 86 urte zituela.

Emaztea: Candi Larrañaga. Seme-alabak: Marije eta Alfredo, Agurtzane eta Angel Mari, Javi eta Karmele, Ane eta Javi.
Bilobak: Ainhoa, Aitor, Josu, Olatz, Joseba, Andoni, Idoia eta Itsaso.

—

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2018ko urtarrilaren 19an.

ESKER ONA

## Carmen Ugarte Arregi



Miguel Goñiren alarguna

2018ko urtarrilaren 8an hil zen, 95 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

—

Ondra meza urtarrilaren 20an izango da, zapatua, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan.
Bertaratuko zaretenoi aldez aurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2018ko urtarrilaren 19an.

HILETA

## Jesus Mendizabal Aldanondo



2018ko urtarrilaren 18an hil zen, 88 urte zituela.

Jesusen senideek haren arimaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaiteztela gaur, egubakoitza, 19:00etan, Mikel Goiaingeruaren parroki elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara.
Aldez aurretik mila esker.

—

Oharra: Hilbeila Moyua Tanatorioan egingo da 11:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 18:30era.

Oñatin, 2018ko urtarrilaren 19an.

URTEURRENA

## Margari Mayner Saez



Enrique Muguruzaren alarguna

2017ko urtarrilaren 27an hil zen, 91 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 21ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2018ko urtarrilaren 19an.

URTEURRENA

## Marina Vega Galdos



2017ko urtarrilaren 4an hil zen, 88 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 21ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

—

*Zenbat kantu eta hainbat kontu,*
*eskuzabal emanean eta ezer ez ordainean,*
*Ama, beti izango zaitugu gure bihotzean.*
*Muxu goxo bat etxekuon izenean.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2018ko urtarrilaren 19an.

URTEURRENA

## Felisa Txintxurreta Lete



2017ko urtarrilaren 11n hil zen, 88 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 21ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

—

*Erraza izan zen zu maitatzea ezinezkoa ordea zu ahaztea.*
*Beti gurekin egongo zara.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2018ko urtarrilaren 19an.

URTEURRENA

## Carmen Ormaetxea Luarizaristi



2017ko urtarrilaren 22an hil zen, 93 urte zituela.

*Hutsune handi bat dugu*
*famili barruan*
*emakume zintzo bat*
*nola zaigun juan*
*langile eta ixila*
*irrifartsu ortuan*
*beti egongo zara*
*gure bihotzean.*

Urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 21ean, 10:30ean, San Prudentzioko elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2018ko urtarrilaren 19an.

URTEURRENA

## M. Carmen Martin Martinez



'Carmina'

2017ko urtarrilaren 23an hil zen, Donostian, 60 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 21ean, 11:30ean, Aretxabaletako Jasokundeko amaren elizan.

—

*Denbora badoa, baina zuk gure bihotzean jarraitzen duzu.*

Etxekoak.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Aretxabaletan, 2018ko urtarrilaren 19an.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



Jakin ezazue nahiz eta heriotz asegurua izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.

Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA

Eskela gehiago 44. orrialdean.

## ZORION AGURRAK



OÑATI
**Naroa Letamendi Narraspe**
Urtarrilaren 23an, 9 urte. Zorionak, polit hori! Oso ondo pasatu zure urtebetetzean. Jarraitu halako jatorra izaten. Muxu handi bat, etxeko danon partetik.



ARRASATE
**Luken Ormaetxea Artola**
Urtarrilaren 23an, 12 urte. Zorionak, mutikote! Segi hain jator eta bixi! Muxuak!



MUTRIKU
**Oihan Iriondo Lasaga**
Urtarrilaren 22an, 8 urte. Zorionak, gizontxo! Ondo-ondo pasatu zure egunean. Patxo eta besarkada handi bat, etxeko guztien partetik. Asko maite zaitugu. Mua!



ESKORIATZA
**Aimar Ortiz Esnaola**
Urtarrilaren 21ean, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Ia heldu da zure eguna eta ondo pasatzea opa dizugu familia osoak, bereziki Anerrek, aitatxok eta amatxok. Mua!



ANGIOZAR
**Luken Pagaldai Gomez**
Urtarrilaren 21ean, 11 urte. Maite zaitugulako, zorionak eder hori!



ARRASATE
**Nerea Fernandez Jimenez**
Urtarrilaren 20an, 6 urte. Zorionak, Nerea! Ondo-ondo pasatu zure eguna! Patxo handi bat aitaita-amamen eta osaben partetik!



ARETXABALETA
**Hilario Bartolome eta Amets Esnal**
Hilariok 20an, 70 urte eta Ametsek 21ean, 4. Zorionak, aitita eta zorionak, txapeldun. Ondo pasatu zuen eguna. Muxu handi bana!



ANTZUOLA
**Uxue eta Eñaut San Sebastian**
Uxuek urtarrilaren 19an, 9 urte eta Eñautek 21ean, 7. Zorionak eta ondo ospatu zuen eguna!



ANTZUOLA
**Illart eta tio Aritz**
Urtarrilaren 19an eta 20an, 34 eta 8 urtetxo gure bikoteak! Zorionak, bada, Illart eta tio Aritz!



ARRASATE
**Paula Andres Carmona**
Urtarrilaren 19an, 11 urte. Zorionak eta ondo pasatu zure egunean, gurasoen partetik! Asko maite zaitugu!



ARRASATE
**Aimar Merchan Garay**
Urtarrilaren 18an, 5 urte. Zorionak, maitea! Ondo pasatu zure bosgarren urtebetetze egunean. Patxo potolo bat aitatxoren, amatxoren eta familiaren partetik.



BERGARA
**Ainhoa Rivera Iñarra**
Urtarrilaren 17an, 7 urte. Azkenian iritsi da urtarrilaren 17a! Zorionak eta ondo-ondo pasatu eguna, familixa osoaren partetik!



BERGARA
**Oier Uzin Lazkano**
Urtarrilaren 16an, 11 urte. Zorionak, txapeldun! Mutil koxkorra eginda jada. Aupa Reala! Patxo pila danon partetik. Batez be Izar, Ekaitz, Elene eta Amets.



ARETXABALETA
**Gurutze Martinez Axpe**
Urtarrilaren 16an. Zorionak, Guru! 50+1! Patxo handi bat munduko izeba onenarentzat! Oxel, Lur, Hodei, Beñat, Hitzeder eta Amets.



OÑATI
**Haizea eta Aner Lizarralde Garcia**
Urtarrilaren 16an, 4 urte. Zorionak, polittok! Ondo pasatu zuen urtebetetze eguna. Patxo handi bat, etxeko danen partetik!



ANTZUOLA
**Irati Diosdado Lizarazu**
Urtarrilaren 16an, 7 urte. Zorionak, *printzesi*! Primeran pasa dezazula urtebetetze eguna eta muxu pila bat, etxekoen partetik!



OÑATI
**Irati Jausoro**
Urtarrilaren 14an, 5 urte. Zorionak, Irati, gure printzesa! Bost urte in dittuzu! Ondo ospatu zure urtebetetze eguna eta patxo erraldoi bat.



ARETXABALETA
**Haizea Duandikoetxea Otxoa**
Urtarrilaren 13an, 11 urte. Zorionak, printzesa! Ederto pasatu zure egunean! Musu handi bat, etxekoen partetik!



ARRASATE
**Beñat Rubio Bidaburu**
Urtarrilaren 13an, 6 urte! Zorionak etxeko danon partetik! Ondo-ondo ospatu!



ARRASATE
**Irati Zaitegi Manzanas**
Urtarrilaren 13an, 11 urte. Zorionak, Irati! Oso ondo pasatu eguna. Musu handi bat, etxekoen partetik.



BERGARA
**Ibon Lete Cobo**
Urtarrilaren 12an, 2 urte. Zorionak, *bitxito*! Muxu potolo bat familia osoaren eta, bereziki, Aioraren, Uxueren, Alaitzen eta Liberen partetik.



BERGARA
**Elene Uzin Lazkano**
Urtarrilaren 11n, 7 urte. Zorionak, printzesa! Dagoeneko 7 urte, ze handia! Txokolatezko patxo pila bat danon partetik. Batez be Izar, Ekaitz, Oier eta Amets.



ARETXABALETA
**Araitz Lizarriturri Etxenausia**
Urtarrilaren 11n, 12 urte. Zorionak eta urte askotarako, Araitz! Patxo potolo bana, ahizpa Doltzaren eta prima Elene eta Pauleren partetik.



ANTZUOLA
**Izaro Irizar Fernandez**
Urtarrilaren 10ean, 5 urte. Zorionak, *txikitina*! Ondo pasatu zure urtebetetzean. Muxu potolo bat, etxeko danon partetik.



OÑATI
**Izar Irazabal Plazaola**
Urtarrilaren 10ean, 2 urte. Zorionak, Izar, zure urtebetetze egunian! Txokolatezko muxu bana, Marenen , Garaziren eta familixa danaren partetik!

### Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

**Internet**
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *http://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Ordezkaritzak**
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

## TXUTXU-MUTXUAK



1



2



3



4

**1. Joxe Iñaxio eta Maritxu**
Joxe Iñaxio Urzelaik eta Maritxu Bikuñak urtarrilaren 20an urrezko ezteiak beteko dituzte. "Domekan ospatuko dugu familia osoarekin batera. Zorionak bioi!".

**2. Lehenengoa**
Hogei bat lagun elkartu ziren Hiruerreketa eta Atxorrotx aldean goiza pasatzeko, Aretxabaletako Guraso Foroak eta Murrukixok eta Eskoriatzako Hezkuntza Foroak deituta.

**3. Ibon eta Saioa**
"Urtarrilaren 20an Aramaioko udaletxean ezkonduko diren Saioa Ibargureni eta Ibon Larrañagari onena opa diegu, familiaren partetik. Zoriontsu izan zaitezte!".

**4. Iazko azkena**
Elurra zapaldu zuten Oñatiko Aloña Mendik antolatutako iazko azken mendi irteeran. Asteburuan dute 2018ko lehendabizikoa.

# AGENDA

**EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN.** Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 19

**ARETXABALETA Kurtzebarri eskolakoen danborrada**
Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloko neska-mutikoek ospatuko dute San Sebastian eguna.
*Herriko Plazan, 15:30ean.*

**ELGETA Eskolako danborrada**
Herri Eskolako Haur Hezkuntzako neska-mutikoek ospatuko dute San Sebastian eguna.
*Frontoi zaharrean,15:30ean.*

**ELGETA 'Ipuinen Ordua'**
Boluntario taldearen eskutik. 2-3 urtetik aurrerakoendako 16:55etik 17:30era eta 5 urteko gelatik aurrerakoendako, 17:40tik 18:15era.
*Liburutegian, 16:55ean.*

**BERGARA 'Emakume erresistente eta errepresaliatuak' erakusketa**
Gaur inauguratuko dute Intxorta 1937 Kultura Elkartearen erakusketa. Ikusgai otsailaren 11ra arte.
*Aroztegin, 18:00etan.*

**ARAMAIO Bertso kuadrilla arteko txapelketa**
Aramaixoko Sobrak taldea Zalduondoko Egurra Salgai taldearen aurka.
*Zabolan, 20:30ean.*

## ZAPATUA 20

**OÑATI Jabetza Eskola: batukada**
Ainara Sarasketaren eta Arantxa Vicedoren ikastaroaren lehen saioa, euskaraz.
*Bidebarrietan, 11:00etan.*

**ARETXABALETA 'Yogipuinak' Maite Arreserekin**
Ipuinen bitartez yogako ariketak egingo ditu Arresek 5 eta 10 urte arteko haurrekin. Debalde.
*Udal liburutegian, 11:30ean.*

**OÑATI Aratusteetako entsegua**
*Oñatiko Inauteriak* prestatzeko saioa egingo dute.
*Errekalden, 12:00etan.*

**ELGETA San Sebastian kofradiakoen batzarra**
Elkarteko 24 noble elkartuko dira: 13:00etan meza, eta ostean, urteroko ekitaldia. Batzarra bukatuta, El Rincon de Lola tabernan bazkalduko dute.
*Aipatutako lekuetan eta orduetan.*

**ARETXABALETA Mahai-futboleko mahaia konpontzeko tailerra**
Gaztetxoendako ekintza. Arotz lanak egingo dituzte.
*Gaztelekuan, 16:30ean.*

**OÑATI Gabonen aurkako kontzertua**
Joko duten musika taldeak izango dira: Antiligent (Berlin), RAS (Tolosa), Ikaara (Laudio), Uther (Euskal Herria), Paniko (Zarautz), Vegan Piranha (Iparraldea), Blank Slate (Perigueux, Frantzia) eta Lokuria (Oñati). Sarrerak, bost euro.
*Gaztetxean, 17:00etan.*

**ARRASATE Aratusteetako mozorroak eta karrozak**
Gaztetxoendako tailerra.
*Erdiguneko gaztegunean, 17:00etan.*

**ESKORIATZA Mahai jolasen 'tourra'**
Gaztetxoendako ekintza.
*Gaztelekuan, 17:30ean.*

**ARRASATE 'Emakume raketistak. Iragana eta etorkizuna' erakusketa**
Lehen emakume kirolari profesionalen ibilbidea laburtzen duen bilduma da Jon Juanesek egindakoa. Hilaren 28ra arte.
*Kulturaten, 17:30ean.*

**ESKORIATZA Beisbol partiduak**
Arauak ikasi ostean, norgehiagoka mistoak jokatuko dituzte.
*Luis Ezeizako kantxan, 17:30ean.*

**BERGARA Vicente Cuevaren musika eta Jaime Arranzen poemak**
*Shoa for solo violin and sacred* izeneko ikuskizuna egingo dute biek ala biek. Holokaustoaren biktimen oroimena gogora ekarri eta publikoa hunkitzea du helburu. Sarrerak, zortzi euro.
*Seminarixoan, 19:00etan.*

## DOMEKA 21

**OÑATI Arlabanera mendi irteera**
Arlaban-Mugarriluze-Saiturri-Araotz izango da urteko lehen ibilaldia Aloña Mendikoekin. Hamabost kilometrokoa, bost ordutan egiteko.
*Postetxean, 08:00etan.*

**BERGARA Udal Musika Bandaren kontzertua**
Frontoian egingo dute emanaldia, Alfredo Gonzalez Chirlaqueren agindupetara.
*Aipatutako lekuan, 12:30ean.*

**ARRASATE Aratusteetako mozorroak eta karrozak**
Gaztetxoendako tailerra.
*Erdiguneko gaztegunean, 17:00etan.*

**ARRASATE 'Familia jolasean'**
0-8 urte arteko umeendako eta euren familiendako jolasak, Okendoko ludotekan.
*Aipatutako lekuan, 17:00etan.*

**ESKORIATZA Tailerra: mikrometeoritoak**
*Zergatik desagertu ziren dinosauroak?, Zer dira izar euriak?* eta *Zein da meteoritoen, meteoroen eta meteoroideren arteko desberdintasuna?* galderei erantzungo diete Aranzadiko teknikariek.
*Kultura etxean, 18:00etan.*

**ESKORIATZA Komediazko pelikula**
Gaztetxoendako ekintza.
*Gaztelekuan, 18:00etan.*

**ARETXABALETA Beldurrezko pelikula**
Gaztetxoendako ekintza.
*Gaztelekuan, 18:00etan.*

**OÑATI 'Gatza' erakusketa**
Joxefe Diaz de Tuestak Leintz Gatzagako bizilagunekin egindako erretratuen bilduma. Ikusgai, hilaren 22ra arte
*Kultura etxean, 18:00etan.*

**ESKORIATZA 'Escenícas' antzezlana**
Kukumix taldearen lana: zazpi eszena, umore absurdoa eta elkarrizketa dibertigarriak. Sarrerak, lau euro.
*Zaldibarren, 19:00etan.*

**OÑATI Abereh bakarlaria**
*Zaunka datoz arin* izeneko diskoa aurkeztuko du Erik Berjanzak. Sarrerak, lau euro.
*Gaztetxean, 19:00etan.*

**OÑATI 'Txarriboda' antzezlana**
Hika Teatroaren eskutik. Sandra Fernandez Agirre, Patxi Gonzalez eta Kepa Errasti dira protagonistetako batzuk. Sarrerak, hamar euro.
*Santa Anan, 19:30ean.*



ARGIA

**OÑATI Glaukoma eta Autobus Ibiltaria taldeak**
Tolosako taldeak *Kalima* diskoa aurkeztuko du, rap eta reggae doinuetatik abiatuta. Oiartzungo taldeak ere reggae eta rap doinuak ditu oinarri. Sarrerak, leihatilan, hamar euro. Aurrez, zortzi.
*Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 22:30ean.*

## ASTELEHENA 22

**ARETXABALETA Kakorratz eta puntu ikastaroa**
Gu Haziak Gara elkartekoen eskutik.
*Iralabarri plazan, 17:00etan.*

**OÑATI 'Mindfulness' ikastaroa**
Pepa Bojoren ikastaroa, Jabetza Eskolaren baitan.
*Bidebarrietan, 18:00etan.*

**ARRASATE Eski irteerak**
Otsailean eta martxoan, Formigalera eta Alpeetara egingo diren irteeratako izenak, gaur, Besaideren bulegoan.
*Aipatutako lekuan, 18:30ean.*

**OÑATI Autoformazio saioa**
*Josu Nazaretekoaren bizitza. Hainbat irakaspen kultural eta sozioekonomiko* izeneko saioa egingo du Juankar Olaetak, Antixena gaztetxean.
*Aipatutako lekuan, 18:30ean.*

**ESKORIATZA Aratusteeko batzarra**
Aratusteetako mozorro desfilea eta lehiaketa antolatzen hasteko batuko dira. Irekia.
*Kultura etxean, 19:00etan.*

## MARTITZENA 23

**ARRASATE 'Emakume raketistak. Iragana eta etorkizuna' dokumentala**
Jon Juanesen ikus-entzunezkoa lehen aldiz emango dute.
*Kulturaten, 18:00etan.*

**ARRASATE Eski irteerak**
Otsailean eta martxoan, Formigalera eta Alpeetara egingo diren irteeratarako izenak, gaur, Besaideren bulegoan.
*Aipatutako lekuan, 18:30ean.*

**ESKORIATZA Beñat Arzadunen berbaldia**
Mozambiken lanean dihardüen Arzadun gonbidatu du Mundukidek, hango lanei buruz berba egin dezan.
*Kultura etxean, 19:00etan.*

**ELGETA Mendi federatu agiriak**
Urtarrileko martitzenetan elkarteko bazkide egiteko zein federatu txartelak ateratzeko aukera dago Kantsatzeke mendi taldearen lokalean.
*Aipatutako lekuan, 19:00etan.*

**ARRASATE Mendiko federatu txartelak**
Gaur, martitzena, hartu ahal izango dira, Besaideren lokalean.
*Aipatutako lekuan, 19:30etik 20:30era, bakarrik.*

**OÑATI Aratusteetako entsegua**
*Oñatiko Inauteriak* prestatzeko saioa egingo dute.
*Errekalden, 20:00etan.*

**ARRASATE Zinema emanaldia**
Kantemir Balagov zuzendariaren *Demasiado cerca* pelikula emango dute, jatorrizko bertsioan. Darya Zhovner eta Olga Dragunova dira protagonistak.
*Amaia antzokian, 20:30ean.*

## EGUAZTENA 24

**BERGARA 'Egunerokotasunaren matematikak' hitzaldia**
EHUko irakasle Javier Duoandikoetxeak egingo du berba, euskaraz, Goienagusik gonbidatuta. Irekia.
*Seminarixoan, 10:00etan.*

**BERGARA Eguaztenetako azoka**
Sasoiko eta bertako baserritarren produktuak erosteko aukera.
*Oxirondon, 15:30ean.*

**ARRASATE Literatura solasaldia**
Clarice Lispector idazlearen *Cerca del corazón salvaje* liburuaren gaineko saioa, gazteleraz.
*Kulturaten, 18:15ean.*

**ARETXABALETA 'Astro-argazkigintza' erakusketa**
Aranzadi Zientzia Elkartearen bilduma ikusgai, hilaren 31ra arte.
*Arkupen, 18:30ean.*

**ARRASATE Porrotxekin solasaldia**
Tertulia giroan, *Euskaraz zergatik?* galderari erantzuten ahaleginduko da, entzuleen laguntzarekin.
*Kulturaten, 18:30ean.*

**ARRASATE Eski irteerak**
Otsailean eta martxoan Formigalera eta Alpeetara egingo diren irteeratarako izenak, gaur, Besaideren bulegoan.
*Aipatutako lekuan, 18:30ean.*

**ARRASATE Mendiko federatu txartelak**
Gaur, eguaztena, hartu ahal izango dira, Besaideren lokalean.
*Aipatutako lekuan, 19:30etik 20:30era, bakarrik.*

**BERGARA Seminarixoko kultura kudeaketaren gaineko saioa**
Areto berriaz hausnartzeko beharra sentitu duen herritar talde batek egin du deia, *Plaza marrazten* leloarekin. Irekia.
*Irizarren, 19:00etan.*

**BERGARA 'Cezanne y yo' pelikula**
Daniele Thompson zuzendariaren azken pelikula emango dute. Sarrerak, hiru euro.
*Zabalotegin, 20:00etan.*

## EGUENA 25

**ESKORIATZA Ipuin kontaketa**
4 urtetik gorakoendako saioa egingo du Lur Kortak, euskaraz. Debalde.
*Bibliotekan, 18:00etan.*

**OÑATI 'Ostegun kontalariak'**
*Jateko moduko ipuinak* izeneko saioa egingo du Maite Frankok, 3-5 urte artekoendako. Gonbidapena beharrezkoa da.
*Liburutegian, 18:00etan.*

**ARETXABALETA 'Gutik zura' dokumentala eta solasaldia**
*Loramendi Elkartearen Dokumentaldia* izeneko sortan, Jon Maiak zuzendutakoa izango da lehena. Gizakiaren eta zuraren arteko harremana landu du. Ostean, solasaldia egilearekin.
*Udaletxe zaharrean, 18:30ean.*

**OÑATI Zinekluba**
*En la playa, sola, de noche* pelikula emango dute. Sarrerak, bost euro.
*Kultura etxean, 18:00etan.*

**ARRASATE Svetlanas taldea**
Putinek, 2014an, debekatu egin zituen talde horren kontzertuak. Abeslariak Errusiatik alde egin eta kide berriekin taldea birsortu zuen. Geldialdia egingo du, Kooltur Ostegunetan. Sarrerak, bost euro.
*Gaztetxean, 22:00etan.*

## ZINEMA

**ARRASATE**

AMAIA ANTZOKIA

**Wonder Wheel** Zapatua: 19:30, 22:00. Domeka: 19:30. Astelehena: 20:30.
**Ferdinand** Zapatua eta domeka: 17:00.

**OÑATI**

KULTURA ETXEA

**El gran showman** Egubakoitza eta zapatua: 22:30. Domeka: 19:30, 22:30. Astelehena: 19:30.
**Ferdinand** Zapatua eta domeka: 17:00.

**BERGARA**

ZABALOTEGI

**Spiderman** Domeka: 19:30.
**Robby & Tobby** Domeka: 17:00.

**ARETXABALETA**

ARKUPE

**Perfectos desconocidos** Egubakoitza eta zapatua: 22:00. Domeka: 19:30. Astelehena: 16:00.

**EIBAR**

COLISEO

**Thi Mai** Zapatua eta domeka: 17:00.
**Entre ellas** Zapatua: 19:45, 22:30. Domeka: 22:30. Astelehena: 20:30.
**El extranjero** Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30. Domeka: 17:00, 20:00. Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

**The jungle bunch** Zapatua eta domeka: 17:00.
**Thi Mai** Zapatua: 19:45, 22:30. Domeka: 20:00. Astelehena: 20:30.

**GASTEIZ**

BOULEVARD

**Los archivos del pentagono** Egunero, martitzena izan ezik: 15:50, 18:15, 20:30, 22:45. Martitzena: 15:50, 18:15, 22:45.
**Mazinger Z** Egubakoitza: 20:00.
**Tres anuncios en las afueras** Egunero, domeka izan ezik: 15:45, 18:05. Egunero, martitzena izan ezik: 20:20, 22:40. Domeka: 18:00.
**Wonder** Egubakoitzetik eguenera: 20:25.
**Dando la nota** Egubakoitzetik eguenera: 22:40.
**Jumanji** Egubakoitzetik eguenera: 16:20, 18:45, 21:10, 23:40.
**The jungle bunch** Egubakoitzetik domekara: 17:00. Astelehenetik eguenera: 16:00.
**Que baje Dios y lo vea** Egubakoitzetik domekara: 19:05, 21:10. Astelehenetik eguenera: 18:05, 20:10.
**Asesinato en el Orient Express** Egubakoitzetik domekara: 23:15. Astelehenetik eguenera: 22:15.
**Perfectos desconocidos** Egubakoitzetik eguenera: 15:45, 17:50, 20:00, 22:05, 00:10.
**Sola en casa** Egunero, domeka izan ezik: 16:25. Domeka: 16:15.
**Thi Mai** Egunero, domeka izan ezik: 18:15, 20:25, 22:35. Domeka: 20:25, 22:35.
**Coco** Egubakoitzetik eguenera: 16:15, 18:20.
**El gran showman** Egunero, martitzena izan ezik: 15:45, 17:55. Martitzena: 15:45.
**Ferdinand** Egubakoitzetik eguenera: 15:45, 17:55.
**Star wars** Egubakoitzetik domekara: 16:00.
**Insidious** Egubakoitzetik eguenera: 20:05, 22:15.
**El instante mas oscuro** Egunero, egubakoitza eta martitzena izan ezik: 17:00, 19:40. Egubakoitza eta martitzena: 17:00.
**Molly´s game** Egubakoitzetik eguenera: 22:15.

GORBEIA

**Salvando al reino de Oz** Zapatua eta domeka: 16:00, 18:00. Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:15.
**Thi Mai** Egubakoitza: 20:25, 22:30. Zapatua: 20:00, 22:10. Domeka: 20:00.
**La panda de la selva** Zapatua eta domeka: 16:00.
**Me estas matando, Susana** Zapatua: 18:00, 20:10, 22:20. Domeka: 18:00, 20:120. Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:15.
**Los archivos del pentagono** Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30. Domeka: 17:30, 20:00. Astelehenetik eguenera: 17:50, 20:10.
**Handia** Egubakoitzetik domekara: 17:00. Astelehenetik eguenera: 17:50.
**Star wars** Egubakoitza eta zapatua: 19:10, 22:00. Domeka: 19:10. Astelehenetik eguenera: 20:00.
**Ferdinand** Zapatua eta domeka: 16:00, 18:10.
**Insidious** Zapatua eta domeka: 20:20, 22:30. Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:15.
**Coco** Egubakoitza: 17:30. Zapatua: 17:45. Domeka: 12:15, 17:45.
**El instante mas oscuro** Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:30. Domeka: 20:00. Astelehenetik eguenera: 20:15.
**El gran showman** Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:30. Domeka: 20:00. Astelehenetik eguenera: 20:15.
**Perfectos desconocidos** Egubakoitzetik domekara: 16:30, 18:30, 20:30. Astelehenetik eguenera: 18:00.
**Mazinger Z** Egubakoitza: 18:00. Zapatua eta domeka: 16:00, 17:45. Astelehenetik eguenera: 18:00.
**Molly´s game** Egubakoitza: 19:50, 22:30. Zapatua: 19:30, 22:20. Domeka: 19:30. Astelehenetik eguenera: 20:15.
**Que baje Dios y lo vea** Egubakoitza: 20:15, 22:30. Zapatua eta domeka: 18:20, 20:30, 22:30. Astelehenetik eguenera: 20:20.
**El extranjero** Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 18:00. Zapatua eta domeka: 16:00.

KRITIKA

**Tres anuncios en las afueras** ★★★★☆
**Zuz.:** Martin McDonagh. **Aktoreak:** Frances McDormand, Sam Rockwell, Woody Harrelson.

# Emozio-zurrunbiloa

**ANTONIO ZABALA**

*Tres anuncios en las afueras* pelikula etsipenaren eta hiraren indar suntsitzaileari buruz eta samindura bideratzeko izaten ditugun zailtasunei buruz hitz egiten digun parabola da. Modu ankerrean eta tragikoan alaba bat galdu duen emakume batek errepidean hiru iragarki erraldoi jartzen ditu alabaren hilketaren ikerketan poliziaren jarrera salatzeko. Iragarkiek herria hankaz gora jarriko dute eta herritarren arteko harremanak astinduak izango dira. Herri txiki bat da, kontserbadorea, arrazista eta indarkeria erabiltzeko joerarekin. McDonagh-ek idatzitako gidoia bikaina da. Asko sufritzen duten pertsonaiak daude, baina, dramarekin batera, oso egoera barregarriak nahasten dira. Osagaien erabilera oso ondo nahastuta eta neurtuta dago. Eszena berean ikusleak negar eta barre egin dezake.
Emozio-zurrunbilo bat sorrarazten zaigu, eta, hori gertatzen denean, oso sentsazio atsegina izaten da. Pertsonaien deskribapena oso aberatsa da. Ez daude guztiz onak edo guztiz txarrak diren pertsonaiak. Alde batetik, onak direla ematen dutenek badute beraien barnean jokaera zorrotzegiak direnak; eta, beste alde batetik, txarrak direla ematen dutenek badituzte argitasun momentuak.
Istorioan, indarkeria, gorrotoa, familiako egoera itogarriak, alkohola, arrazakeria, etsipena, lirismoa, drama eta umorea elkartzen dira. Horiek guztiak modu egokian nahastuta, film zirraragarria eta harrigarria izatea dakar.

goiena
Zu hemen zaude.

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

AZKEN BERBA



ANDER ETXEBERRIA

## Zirenak eta direnak

Denboran zehar aldatzen dira ohiturak, tradizioak, hitzak… Hona hemen egunotako kasu batzuk.

Bihar, Dakar lasterketa amaitzen da. Hala ere, urteak dira ibilgailuek ez dutela Senegalgo kapitalean bukatzen, milaka kilometrotara baizik, Argentinan aurten. Oporretan izotz pista egon da Arrasaten, baina ur izoztuaz ordez material sintetiko batez osatutako instalazioa izan da –energia aurrezteko–. Gabonetan alaba txikiak *Hator, hator* kantatzerakoan argitu digu, batetik, *mutil etxera* beharrean *laster etxera* esan behar dela; bestetik, ez dela *eragiok mutil* erabili behar, baizik eta *eragiok (sic) gogor*. Edonola ere, abestiak izan dezake non esku hartu oraindik, *aitaren eta amaren ondoan* kantatu baitu, eta ez, adibidez, *gurasoen ondoan*.

Berria izan da, ordea, Errege magoen plan-aldaketa: hilaren 5ean etortzen badira ere, leku batzuetan –Trapagaranen, kasu– 4an egin dute kabalgata. Zer eta eguraldiagatik, aire libreko kirol ekitaldien eguna aldatzen den modu berean, aparteko eztabaidarik gabe.

Badirudi jarraibideei buelta emateko garai berezia bizi dugula, gizartea beti aldatzen ari bada ere.

BUKATZEKO



Kantariko aurkezle Amaia Txintxurreta eta Aitor Agiriano, atzean saioko dekoratua dutela. ANDONI BODES

# Hemen da Kantariren seigarren edizioa

Dekoratu berriarekin eta hainbat berrikuntzarekin, badator Kantari, Debagoieneko karaoke ikuskizun ezagunena. Seigarren aldian, bailarako 1.000 gaztetxok hartuko dute parte. Bihar hasiko dira grabazioak, Aretxabaletako Arkupe aretoan

**Miren Arregi** ARRASATE.

Prest daude Amaia Txintxurreta eta Aitor Agiriano aurkezleak, prest dago Javi Ulla eszenografoak egindako dekoratua, prest daude Kantari saioa osatzen duten Goienako gainerako profesional guztiak –errealizadore, kamerari, laguntzaile–, prest daude, nola ez, neska-mutiko kantariak. Prest daude, bihar hasiko baitira Debagoieneko 1.000 neska-mutiko kantuan eta dantzan ipiniko dituen telebista saioa grabatzen. Arkupen arituko dira asteburu honetan.

### Grabazio egunak

Aretxabaletako eta Eskoriatzako 200 gazte igoko dira asteburuan taula gainera eta bederatzi saio grabatuko dituzte. Hurrengo hitzordua Oñatiko gaztelekuan izango da, otsailaren 3an eta 5an. Otsailaren 24an eta 25ean, berriz, Bergarako Seminarixoa aretoan, Bergarako, Antzuolako eta Elgetako umeekin grabatuko da karaokea. Azken grabazioak martxoaren 24ko eta 25eko asteburuan izango dira. Orduan, Arrasateko Amaia antzokian, Arrasateko eta Aramaioko umeen txanda izango da. Herri horietan, bakoitzean hamar saio ekoiztuko dira.

Saioen emisioak, bestetik, otsailaren 3an hasiko dira eta zapaturo bi estreinatuko dira. Otsailaren 3koak Aretxabaletan grabatutakoak izango dira. Oñatiko saioen emisioak martxoaren 3an hasiko dira, Bergarakoak apirilaren 21ean eta Arrasatekoak maiatzaren 26an.

### Komunikazioa, Whatsappez

Berrikuntzarik ez da faltako aurtengo edizioan. "Esaterako, argazki galeriak Whatsapp bidez jasoko dituzte gurasoek grabazioen hurrengo egunetan. Gainera, modu berean, saioa telebistan eskaini ondoren, partehartzaileei bidaliko zaie", dio aurkezle Amaia Txintxurretak.

Ez hori bakarrik, "aurten gonbidatu bereziak izango baitira herri bakoitzean", dio Txintxurretak. "Aretxabaletan, Beñat Arizabaleta abeslaria etorriko da gonbidatu gisa. Umetan Kantarin hartu zuen parte".

### Dekoratu berria

Berritua dator Kantari, eta horren erakusle da dekoratu berria ere. Javi Ulla eszenografo ezagunak diseinatu du oraingoa ere, eta lentejuelen dirdira dago oinarrian. "Kantari jaia da, alaitasuna da, dirdira da", dio Ullak. Hala, Kantariren hasierako *k* hizkia eta bukaerako *i* dira lentejuela itxura duten borobil dirdiratsuz osatutako dekoratuan nabarmentzen diren hizkiak. "Umeengan pentsatuta dago eta itxura garaikidea du, dotorea, garbia, zarata bisualik gabea, iraunkorra eta mugikorra aldi berean", dio Ullak.

goienagida
2018
DEBAGOIENEKO MERKATARITZA GIDA



LASTER JASOKO DUZU
DEBAGOIENEKO GIDA OSATUENA!
Eskerrik asko bertan parte hartu duzuen bezero guztiei!
ARRASATE ARETXABALETA
ESKORIATZA LEINTZ GATZAGA
ARAMAIO OÑATI BERGARA
ANTZUOLA ELGETA
DESKARGATU DOAN GOIENA APP-A: GIDAKO TELEFONOAK ESKURA
WWW.GOIENA.EUS/GIDA